

**Fernando ETXEGARAI**Sarako lasterketaren irabazle seigarren aldiz  
→ 47**Herriko bestak**

Elbete, Eratsun, Oiz, Elizondoko Txokoto, Sara...

**ETXALAR → 13**

Lehenbiziko aldiz Gazte Eguna irailaren 15ean

**ARESO → 30/32**

Antonio Alustizak Artzain Zakurren 13. txapela

**BAZTAN → 37**

Piriniar arrazako behien lehiaketa-enkantea

**URDAZUBI → 42**

Xareta Eguna irailaren 16an



## Aspaldiko abuzturik beroena

**Euri eskasiak urtegiak hustu ditu eta termometroek datu historikoak utzi dituzte**

Batezbeste historikoak gainditu dituzte abuztuko tenperatura maximoek. Donezteben, konparaziora, batezbesteko maximo historikoa 26,9° C-koa da eta abuztu honetan 30,6° C-koa izan da. Euririk ere ez du ia batere egin. Donezteben batezbesteko historikoa 69 l/m<sup>2</sup>koa da eta aurtengo abuztuan 29,6 l/m<sup>2</sup>koa izan da. Ondorioak bistan daude. Urtegiatiko erreserbak minimoetan daude (argazkian Domikoko urtegia Lesakan), eta hainbat herritan (Iurita, Lekaroz,...) gauetan ura kentzera behartuta daude. → 31

ARGAZKIA: ISIDRO ETXEBERRIA

**ELKARRIZKETA → 3****Bertako haziak berreskuratzeko helburuarekin**

Tokian tokiko haziak zaindu eta partekatze asmoarekin, sare irekia jarri dute abian.

**Nabarraldeko antolatua | Irailaren 7tik 16ra****Euskal Herriko Historialarien Biltzarraren III. edizioa martxan da**

Bost saioetatik bat Leitzan da, irailaren 8an.

**ERREPORTAJEA → 4-5****ZOKKETAK → 55**Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

# 2012/2013 IKASTURTEA



Segur aski, behin baino gehiagotan pentsatu izanen duzu:  
"Eta zertarako behar dut hizkuntzak jakin?"  
**ACORN LANGUAGES**en, hainbat arrazoï bururatzen zaizkigu!



**Acorn Languages, gainera, gauzak errazten dizkizugu!**

**Metodo komunikatiboa.** Solas eginez ikasiko duzu!  
**Campus Birtuala.** Eskola bat bera ere ez galtzeko!  
**Pertsonalizazioa.** Denok ez baitugu berdin ikasten!  
**Ordutegia:** goizeko 8etatik arratseko 10ak arte.  
**Honako hizkuntza hauek:** ingelesa, frantsesa, alemana, txinera, euskara eta gaztelania atzerriko hizkuntza gisa,  
**Modalitateak:** Haurrak, gaztertoak, helduak eta enpresak.  
**Ikasturte-hasiera:** 2012/09/17a.

Eta ez galdut atzerriko ikastaroak egiteko ditugun eskaintza bereziak!

2012/09/14a baino lehen  
izena emateagatik  
**MATRIKULA DOHAINIK**  
eta denak ikasitako  
baita erakorra jarduera berrak

Koekordako bidex 11. beltze LESAKA

(Masteg) Funtzioak baliagarri garrantzi

948 637 135

[www.acornlanguages.com](http://www.acornlanguages.com)

[info@acornlanguages.com](mailto:info@acornlanguages.com)



Bertakoak diren haziak desagertzeko arriskuan daudelako kezkatuta, Baztan, Malerreka, Bertizarana eta Bortziritako haziak berreskuratzeko asmoarekin lanean

hasi dira Edorta Murua (Zubietan), Kristiñe Berra (Lesaka), Ruth Peña (Oronoz) eta Ainhoa Arroniz (Legasa). Dagoeneko tokian tokiko hazi batzuk berreskuratu dituzte,

baina oraindik gehiago badaudela eta, jendeari bertako haziak gordetzeko deia egin diete eta norbaitek gaian interesa baldin badu eurekin jar daiteke harremanetan.

Ainhoa ARRONIZ, Ruth PEÑA, Kristiñe BERRA eta Edorta MURUA | Bertako haziarekin ari diren baratzezainak

# «Bertako haziak galtzen ari direla ohartzea nahi dugu jendea»

## G. PIKABEA

### Noiztik zabilzate bertako haziak babesteko lanean?

Hemengo hazien barietateak galtzen ari zirela ikusita, orain dela hiru urte, Edorta Bertako Hazien Jaia antolatzen hasi zen Zubietan. Eta hortik abiatuta, Baztan, Malerreka, Bertizarana eta Bortziritako baratzezain batzuk elkartu eta Nafarroako Hazien Sarearekin elkartzen hasi ginen hemengo haziak berreskuratzeko asmoarekin. Nafarroako Hazien Sarea egiten ari dena Baztan, Bortziriak, Bertizarana eta Malerrekan egiteko beharra ikusi genuen, urteetan gure arbasoek erein dituzten haziak mantentzeko. Gurea ez da talde itxi bat, sare ireki bat da eta edozein momentutan nekazari bat hazi batekin etortzen bada, sarean dago.

### Zein dira zuen helburuak?

Alde batetik, tokian tokiko hazien barietateak berreskuratu nahi ditugu, galdu ez daitezkeen, eta interesa dutenei erieteko eta kontsumitzeko aukera ematea. Gure lanetako bat bertako haziak hori daudela eta galtzen ari direla jendea ohartzea da, jendeak bere baratzean balore hori daukela konturatzea. Aldi berean, hazien era-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ezkerretik eskuinera, Ainhoa, Ruth, Kristiñe eta Edorta, berreskuratu dituzten bertako hazietako batzuk eskuetan dituztela.

bilerak, ezaugarriak eta kulturaren ezagutza tradizionala berreskuratu nahi dugu.

### Zertan ari zarete?

Lehen, urtean behin biltzen ginen Zubietan haziak trukatzeko, baina orain serioago hasi gara eta azken urte honetan aurrerapausoak eman ditugu. Baztanen, Udalaren Ingurumen Batzordearen eskutik, hitzaldiak egin dira, gu gehiago biltzen gara, web orri bat prestatzen ere hasi gara eta lan serioago bat egiten dugu.

### Nola ikusten duzue bertako haziak?

Azkenenaldian, bara-

## HARREMANETARAKO

Interesa duenak telefono hauetara deizake: Baztan eta Bertizaranan Ruth-i (678 445521), Malerrekan Edortari (686 129108) eta Bortziritan Kristiñeri (652 729101). E-posta eta web orria ere badituzte: [baztangohaziak@gmail.com](mailto:baztangohaziak@gmail.com) eta [https://sites.google.com/site/baztan\\_gohaziak/nafarroako-hazien-sarea](https://sites.google.com/site/baztan_gohaziak/nafarroako-hazien-sarea) edo Google bilatzailean 'Bidasoako haziak' sartuta.

tzean erabiltzen diren landare eta hazi gehienak dendetan erositakoak dira. Batzuek bertako hazia mantentzen dute, baina bertzeek ez. Gure elikadurarako, ordea, aberatsagoa da gure herriko hazia eta ez dugu baloratzen.

### Gure inguruko jendeak badu interesik?

Batzuk bai. Baina orokorrean, belaunaldi berriek ideia hori galdu egin dute. Jende nagusiak mantentzen du baina gazteak ez dira ohartzen. Gauza errazak nahiago dituzte, erosi, jarri eta ea zer ematen duen. Hor aspalditik dagoen kultu-

ra bat dagoela ez dute ikusten.

### Nongo haziak ari dira gailentzen?

Erositakoak, Kataluniatik eta Frantziatik ekarritakoak. Hazi onak dira, baina ez dira hemengoak. Hemengoek kanpokoen aldean abantaila gehiago dituzte, edozein arazorekin gure haziak erositakoek baino abantaila gehiago dituzte. Gure klima eta lurerrakoa hobeki prestatuak daude bertako haziak eta hortaz aparte, erositako haziak urteekin okerrera egiten dute.

### Oraingoz hemengo zein hazi berreskuratu dituzue?

Urritzateko banabarra, Bozateko banabarra, Zubietako baba tikiak, tomateak, Elizondoko porruak, ilar berdeak, Zubietako baba beltzak, Zubietako artoa, Bozateko artoa... Oraindik hasiberriak gara. Gehienak baserrietan mantendu eta eman dizkigutena dira, eta Nafarroako Saretik ere batzuk etorri zaizkigu.

### Baratzean ibiltzen direnei zein aholku emanen zeniekete?

Gure haziak desagertzeko arriskuan daude eta bertako haziak gordetzeko eskatzen diogu jendeari. Gurekin harremanetan jarraitzea eta daukaguna konpartituko dugu.

HISTORIA → NABARRALDEK ANTOLATUA

# Historialarien Biltzarraren jardunaldi bat Leitzan eginen da irailaren 8an

Nafarroako konkistaren ondorioak landuko dituzte orokorrean eta Leitzan 'Gaizkileen muga' bezala ezagutu zenari jarriko diote arreta berezia

Nabarralde elkarteak antolatzen duen Euskal Herriko Historialarien Biltzarraren hirugarren edizioako jardunaldietako bat Leitzan eginen da

irailaren 8an, Leitzako Udalaren laguntzarekin. Aurtengoan, 1512ko Nafarroako konkistaren ondorioak aztertuko dituzte biltzar honetan.

## Aitor AROTZENA

Euskal Herriko historialarien hirugarren biltzar honetako lehenbiziko jardunaldia Arrasaten (Gipuzkoa) eginen da irailaren 7an eta azken bederatzigunegun bearduago eginen da Iruñean. Tartean, Leitzan eta Agoitzen izanen dira, hilaren 8 eta 14an.

Leitzako kasuan, Nafarroa eta Gaztelako erresumen lurraldeen zatiketa landuko dute, inguru honetan zegoen

gaizkileen mugari arreta berezia paratuz.

Angel Rekalde Nabarraldeko koordinatzaileak Euskal Herriko Historialarien Biltzarretan landu dituztenak laburtu digu: «Lehenbizi, duela bi urte, konkista edo inkorporazioa izan ote zen izan genuen eztabaidagai Bianan eta han garbi ateratu zen konkista berritza eta odoltsua izan zela, gerra eta guzti. Joan den urtean, azpimar-

ratu nahi izan genuen hau ez dela gaurko Nafarroaren gaia bakarrik, Euskal Herriko biztanle guztiena baizik, eta horregatik jorratu genuen mendebaldeko lurraldeen papera eta lotura jatorrizko estatuarekin. Aurten esan dugu, historia hor dago, baina konkistak gaurko egunean zer ondorio izan dituen aztertu nahi izan dugu, jendea konturatzeko ez dela iraganeko datu bat, baizik eta

gugan eta gure gizartearen ondorioa izan duela».

Angel Rekaldek aitatu digunez, 1200 eta 1512. urteen artean muga-lerro horretan izan ziren gertakari eta gehiegikeriak erreparatuko dituzte Leitzako konferentzian. «Erdi Aroko muga hura, gerrako muga hura, zauri bat izan da, banaketa eragin du gaur egunera arte eta antzinako euskal gizartearen zatiketa sortu du». Rekaldek dioenez,

«Gaztelak muga hori erabili zuen lehenik independente izaten segitzen zuten Nafarroari egurra emateko eta beste aldetik, etsaitasuna sortu zuen. Horrelako estrategiarekin zatitzea bilatu zuen eta identitate ezberdinak bultzatzea: gipuzkoarrak nafarren etsai gisa agertzea eta nafarrentzat ere gipuzkoarrak deabrua bezala agertzea. Etsaien logika garatu eta ideologikoki garatu zen eta



Gaztelako tropak Ibero aldetik duela 500 urte sartu zirela gogoratu ekitaldia egin zen uztailaren 11n.

ARGAZKIA: JM BARRIOLA

## LOARRE: HOBEKIEN MANTENTZEN DEN NAFARROAKO ERRESUMAKO GAZTELUA HUESCAN DAGO

### Zergatik suntsitu zituzten gazteluak?

Biltzar honetan, Agoitzen, gazteluen suntsiketaz ariko dira. «Ez dago ondare horren aztarnarik ere, dena suntsitu zutelako –dio Angel Rekaldek–. Nafarroak ez zeukan amadarik eta bere estrategia izaten zen herri bakoitzean gaztelu bat, inbadituak izanez gero, defentsarako jendea gazteluan sartzeko eta horrela fronte pila irekitzen ziren. Gaztelak bazekien gaztelu horiek Nafarroako erresumen sinbolo garrantzitsuak zirela, beraien independentziaren ikurra zirela. Nafarroa garaitua sentiarazteko zer egin zuten? Horrelako defentsak suntsitu, erabat bota eta horren erakus-

garri zitak ere badaude, Villalba kornelak Cisneros-i nola esaten dion «*desde que su señoría mando derrocar sus castillos, Navarra está tan baja de fantasía que no hay hombre que levante la cabeza*». Neurri militarra da, baina baita gerra psikologikoa ere. Galea ekonomikoa ere izan zen guretzat, hor bazegoelako ondare bat. Bitxikeria bezala, Huescan dago egoera onean mantentzen den Nafarroako Erresumako gaztelua, Loarrekoa, seguruenik Europako gaztelurik zaharrena. Ondare hori kendu digute, bai turismorako, bai autoestimarako garrantzitsua izanen litzatekeena».



Loarreko gaztelua, Huescan.



#### IBERO

«Ziordiatik sartu ziren gaztelarren indar nagusiak egun batzuk beranduago, baina Hernanitik Goizueta eta Iberon barna sartu ziren batzuk 1512ko uztailaren 11n. Nafarroako erresumak zer erantzun emanen zuen probatu nahi zuten».

#### AMAIUR

«Gerra galdua zegoen baina 200 lagunek eskualdearen independentzia mantendu zuten nafarren esku»

#### Angel REKALDE

Nabarraldeko koordinatzailea

zoritzarrez, gaur egun ere somatzen da hori». Amaiurko sinbolismoaz ere aritu zaigu Angel Rekalde: «Amaiurren sinbolismoa heroizidada da. Gaur egun ez dago ongi ikusia heroiaarena, baina literaturan hor dago. Egia da gure historian horiek direla gure heroiak, Espartako 300ak bezala. Gerra galdua zegoen Noainen nafar armada erabat desginda gelditu ondoren, baina 200 lagunek Amaiurren mantendu zuten eskualdearen independentzia nafarren esku. Hori gainditzeko, Gaztela 10.000 soldaduko armadarekin joan zen, hori dokumentatua dago eta desproporzio horretan menpean hartu zuten, nahiz eta nafarrak ez ziren errenditu».

#### IRAILAREN 8KO PROGRAMA

Leitzan, larunbat goizeko 10:00etan akreditazioa eta materialen banaketa egin ondoren, 10:30ean aurkezpena egingen da eta 10:45etik 13:00etara hitzaldiak eskainiko dituzte Luis Ma-

ri Martinez Garatek (*La partición territorial: fraccionamiento del sujeto histórico*), Beñi Agirrek (*Bi erresuma zaharren muga berriko gaizkileak eta Floren Aoizek (Konkista bedekintua versus baskongado madarikatuak. 1512ko konkistaren inguruko errelato espagnolistaren kontraesanak)*). Martxelo Otamendi Berriako zuzendariak eta Paulo Iztueta soziologo berastegiarrak ere parte hartuko dute 10:00etatik 14:00etara Leitzako zinemaren eginen den jardunaldian.

Leitzako jardunaldian parte hartzeko aurretik izena eman behar da, 20 euro ordainduta. Jardunaldi guztietan parte hartzeko 60 euro ordaindu beharko da. Arrasaten, hizkuntzaren gibelera eta galeraz ariko dira. Azoitzen, gazteluen suntsiketaz. Iruñean, azkenik, konkistaren ondorioak aztertuko dituzte.

Informazio gehiagorako, 948 21 1057 telefonoan edo [www.nabarralde.com](http://www.nabarralde.com) webgunean.

#### ANGEL REKALDE, NABARRALDE ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

## «Tuteran ere euskara zen XVI. mendeko nafarren hizkuntza»

**Gaizkileen muga bezala ezaguna zen inguru hau?**

Literalki, *la frontera de los malhechores* kontzeptua erabiltzen du Campionek (lehendik Moret eta Gorosabele ere erabiliz zuten) eta berak hainbat gaiztakeria zehazten ditu. Hor bi dimentsio daude: alde batetik, gertakari txikiak eta bestetik, ekintza potoloagoak. Honek ez dakit zenbat txerri lapurtu zituen, honek behia, hildako bat... horrelako delitu arruntak daude alde batetik eta beste dimentsioa izan zen, hori guztia lotuta, gauzak potolotzen ziren eta errepresalia operazioak izaten ziren: Berastegiko erreketak, Beotibarko gudua, Gorritiko gazteluaren erreketak, nafarrek Lazkaotarren etxedorra seziatu zutenekoa errepresalia bezala. Oiartzungo Huartetarrak, berez Ganboatarrak eta beraz, Nafarroaren aldekoak Lesakan egiten zituzten lapurretak eta erasoak zirela eta lesakarak protesta egin zuten 1340. urte inguruan. Goizuetako artxiboan ere topatu da idatzi bat, Hernanirekin zituzten gorabeheren inguruan, «*la guerra que Navarra tenía con Castilla*» ageri dena erromantze garbian. Beraz, orduko goizuetarrek eta nafarrek garbi zuten ez zirela hernaniarren edo gipuzkoarren kontra ari, Gaztelaren kontra baizik.

**Arrasaten, hizkuntzaren gibelera tzea eta galeraz ariko zarete. Euskara zen XVI. mendeko nafarren hizkuntza?**

Euskararen inguruan, garbi dago XVI. mende hasierako Nafarroan euska-

ra zela herritarren hizkuntza. Horren erakusgarri da Tuteran, eta ez Goizuetan eta ez Amaiurren, Tuteran, euskaraz ez zekien Aragoiko albaitea ekarri behar zutela eta herritarrek egindako salaketa, han jendea elebakarra, eta euskaldun elebakarra zela esanez. Komertziantek eta izanen ziren, erromantzea edo judutarren hizkuntza menperatzen zutenak, baina populazioa euskaldun elebakarra zen.

**Iruñean konkistaren ondorioak aztertuko dituzte. Zein izan dira nagusienak zure ustez?**

Nire ustez interesgarriena desmantelamendu instituzionala da. Nafarroak izugarriko instituzio pila zituen, garai hartarako oso aberatsak eta aurreratuak, kontuen ganbara, foruak, gorteak, eta abar... Konkistatu ondoren, hasieran ez ziren desagertu baina bai edukiz hustu, azkenean desagertu arte. Baina beste ondorioak ere izan ziren, espolioziora... ikusiko dugu zein ateratzen diren Iruñeko planetarioan.

**Konkistaren 5. mendeurrena hankapuntan pasatzen ari da Nafarroako Gobernuak. Zergatik?**

Bertsio ofizialak ez duela ez buru ez hankarik ikusi da, desakreditaturik gelditu da eta horregatik ez diote aparteko garrantzirik eman. Zarata gehiegirik atera gabe gainetik pasatu nahi izan dute, bestelako proposamenik egin gabe. Debaterik gabe pasatu nahi izan dute, eta Vuelta Ciclista a España eta horrelakoak antolatuz, hori bai.



Angel Rekalde, Nabarraldeko koordinatzailea



**Nire txanda**  
Fernando ANBUSTEGI

## Guatxapa

**E**z naiz edari isotoniko berri bati buruz ari, ezta Hollywoodeko azken superproduktioari buruz ere. Guatxapa sakeleko telefonoetan eskaintzen den aplikazio bat da. Mezuak, argazkiak, bideoak, kantak...dohainik bidal daitezke. Ikarragarria dirudi, baina dena ez da hain pollite. Duela gutti, lan kontuengatik, guatxapa, edo hobe erranda, Whatsapp-a jarri didate telefono mugikorrean, eta aplikazio eraginkorra da, baina niretako ez da hain idilikoa. Nahiko azolagabea naiz sakeleko telefonoarekin, pairatu nautenek badakite, eta guatxapak ez dit horrelakoa izaten jarraitzen uzten. Izan ere, mezuaren bat bidaltzen dizunak badaki noiz irakurri duzun, noiz zauden konektatua...kontrolerako tresna arras eraginkorra da. Gainera, egun guztia argitxo gorria piztu ote den begira pasa dezakegu, eta egun guztia hiperestimulatua pasatzeko arriskua dago. Argi ibili, guatxapa ez da paradisua!

«Egun guztia hiperestimulatua pasatzeko arriskua dago. Argi ibili, guatxapa ez da paradisua»

## Ezpala

Aitor AROTZENA

## Galdera olinpikoak

**Z**ergatik da hondartzako volley-a joko olinpikoa eta errugbia, sokatira edo pilota ez? Zergatik koleratzen dira Gales edo Kataluniarako kirolariak berea sentitzen ez duten herrialde baten izenean ari direla adierazten dutenean? Zergatik Bolt-i ez diogu *usainik* ere hartuko hurrengo lau urteetan eta aldiz, Barça eta Madrilaren entrenamenduen berri egunero irentsi beharko dugu?

## Nabarmentzekoak



Migel Mari URRUTIA  
Mexikotik bueltan

Sei hilabete eskas Mexikon eman ondotik, oporraldian buruz buruko erremonte txapelketa jokatzera gonbidatu dute. Itxura bikaina eman du Saldiasko *güeroak* (ilehoriak).



Juan Carlos PIKABEA  
Margolana New Yorkera


Udaro bezala Lesakako bere etxean erakusketan egin ondotik, udazken honetan Gasteizen eta lehen aldiz, New Yorken ikusgai izanen da bere margolanetako bat, Monserrat aretoan.



Mariano MARITORENA  
Laxoa Elkarrekin omendua

Laxoa txapelketaren finalean marrak zaintzen aritzeaz gain, Laxoa elkarrekin eta Arraiozko herriaren omenaldia jaso zuen, «hainbertze urtetako afizio eta lanagatik».

**Atzera begira →**  
2002.09.05 /  
TTIPI-TTAPA 333. zbk



## Untxi sektorearen krisiaz Jose Luis Tainta lesakarrarekin

Duela hamar urte untxi sektoreak bizi zuen krisiaz solasean aritu zitzaigun Jose Luis Tainta lesakarra. EHNE eta COAG sindikatueta untxi hazleen ordezkaria eta Naraba kooperatibako lehendakaria zen Taintak onartu zigunez, «sektorearen krisia moldatzeko untxi esplotazioak itxi egin beharko dira». Izan ere, lesakarraren erranetan, «untxi kilo bakoitza produzitzea 1,60 euro gostatzen zaigu eta banaz bertze 1,20 eurotan saltzen dugu. Beraz, eguneko lanaz aparte, saltzen dugun kilo bakoitzeko 40 zentimo galtzen dugu. Gero harategian 5 eurotan dago salgai. Tartean lotsagabe aunitz dabil».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako Bidea 7 - 1. • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontzi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.


**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....38€	Europa	.....56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....32€
Ipar Euskal Herria	.....56€	Amerika eta Australia	.....124€	Leitza	.....16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

## Amaiur eta Xabierko Jaso familia

Joxe ORONOZ (Leitza)

Ikaragarriak ikusitako mutil koxkor baten larruan jartzen saia gintezke. 1506 urtean jaio zen Frantzisko Xabierkoa. Juan Jaso eta Maria Azpilkuetaren seigarren eta azken semea zen. Garai txarrean, aspalditik guda- atabalen soinuari bizi ziren garaian. Bere familiak Iruñean zegoen erregeari (Nafarroako azken erregea izan zenari, Albret dinastiakoa) zintzotasun edo fidelitate juramendua egin zion.

1512. urtean (Frantziskok sei urte zituela), Aragoiko Fernando II.a Katolikoak gerra egin zien nafarrei. Nafarroako erresuma Gaztelari lotzea lortu zuen 1515. urtean (Frantziskok 9 urte zituela). Nafarroako errege-erreginak Nafarroa Behean geratu ziren armada frantsesaren laguntzaz, eta Nafarroako erresuma berreskuratzen saiatu ziren. Horregatik historiagile askok, errazkeria edo maltzurkeriaz «nafarrek berreskuratu nahia» esan beharrean, «frantsesen eraso» soilik esaten dute (adibidez 1521. urtean Loiolako Iñigo bi hanketan «frantsesek zauritua», Noaingo guda «frantsesen aurka». 1524. urtean Hondarribia «frantsesei» konkistatua).

1515. urtean (Frantziskok 9 urte zituela) aita hil zitzaion, Juan de Jaso. 1516. urtean Albreteko Juan III.a hil zen erresuma berreskuratzen etsituta.

1516. urtean (Frantziskok 10 urte zituela) gazteluak, dorreak eta harresi-gainak botatzeko agindua eman zuen Cisneros-ek.

Aipatutako 1521eko Noaingo gudan hilak lurra beatean geratu zirenean (5.000-6.000 hildako) Frantziskok 15 urte zituen. Urte horretan berean bi hanketan zauritutako Iñigo Lopez Loiolakoa ez zuen ezagutu 9 urte gehiago igaro ziren arte (Paris 1530). 1522an Amaiurko gaztelua Gaztelaren eskuetan erori zen (Gaztelarrek 10.000 soldadu ekarri zituztela diote).

1523an Frantziskoren familian bakarrik (berak 17 urte zituela) zortzi ahaideri heriotza-zigorra ezarri eta ondasun guztiak konfiskatu zizkieten, Nafarroako erresumarekiko fidelitatea delitu bezala leporatuz.

1524ko Otsailaren 29an Hondarribia Gaztelarren eskuetan erori zen (Frantziskok 18 urte zituela).

1524. urteko apirilaren 29an Nafarroako erresumaren aldeko 150 pertsona baino gehiagok barkazioa lortu zuten, Frantziskoren sei senitarteko tartean zirela (Johan de Azpilkueta, Valentin de Jaso eta abar). Baina Frantziskoren bi ahaide hurbileko barkaziorik gabe gelditu ziren: Ramon eta Juan de Olloki, erbestera hil zirenak.

1525ean (Frantziskok 19 urte zituela) Parisera joan zen ikasketekin jarraitzera baina hemen gaurkoari dagokion historiari aparteko bat hasten da, harri-garria izanik hark egindakoak beste 27 urtetan, 1552an hil baitzen. Nafarroako infernu hartatik bizirik libratu zenarentzat, edozein toki izanen zen zera.

## Zertzelada, zirriborro edo bertsogaiak

Joxe ORONOZ (Leitza)

Frantzisko Xabierkoa mutil koxkorra zela bizitu zituena gertakari historikoetatik lau momentu gogoratuz, ERROMANTZE gisako lau kanta egin nahi nituen eta bertso eskola falta nabarmen gelditu zait. Gutxienez balioko ahal du norbaitentzat bertso gaia bezala, ia nolabait txukundu daitekeen:

**1. 1512-07-24 Batzuek Iruñeko konkista esaten diote eta besteek Nafarroako independentziaren galera, Jasotarrentzat bigarren hau zen.**

- Amatxo zer duzu horrenbesteko negarretan?
- Nik nola sei urteko horri berri txarrak eman?
- Arrosaren Arantzak zulatu ahal zaitu nonbait?
- Berri txarrak Iruñatik ailegatu zaizkit
- Esadazu niri, amatxo, zer gertatu den bada.
- Gaztelako guda-endarra gutaz jabetu da.
- Lasai amatxo. Aitak eta nik ez diegu utziko.
- Jaungoikoak izanen ahal zaitu bere graziako.
- Aita zaldiz eta ni geziz dorre gainetik.
- Seme ez opa izan otoi-tza beste armarik.

**2. 1516: Gazteluak, dorreak eta harresi-gainak botatzea agindu zuen Cisneros Kardinalak**

- Amatxo zer duzu berriz negarrez txikitzen?
- Nola asmatu hamar urteko mutilari esaten?
- Lehengo «arantza» baino txarragoa ote da ba?
- Zure jostaleku hoberena suntsituko da.
- Jolas toki horiek gabe ezingo dut nik etsi.
- Dorreak eta harresi-gainak behar dira eraitsi.
- Leireko fraideak lagun, ez diegu utziko!
- Ez dugu armarik kardinalari aurre egiteko.
- Ez liteke. Erotu edo minez lehertuko naiz.
- Cisneros baretzeko erreza dezagun guk maiz.

**3. 1522 urtean Amaiurko Gaztelua setiatua eta errea. Frantziskok 16 urte.**

- Leirekoak ez gerla eta ez espetxerik diote.
- Cisneros eta Gotzainak bestela egin dute.
- Frantzisko Asiskoaren itxura eta nola izana?
- Alderdikerietatik urruti egin behar lana.
- Otsoak-otso eta pertsonak okerrago ote?
- Asisko txiroa bestelako zela diote.
- Ia mende osoa daramakigu gerletan.
- Beste mila urte segi behar ote bere horretan?
- Historia edo kondaira biziko maisua omen da.
- Ikasi nezake akaso Parisera Joan da.

**4. 1523-12-15 . Nafarroako erresumaren aldekoie Aragoiko Fernando II.a Katolikoak emandako barkazioa, 150 pertsonen izan ezik. Hauei heriotza-zigorra eta ondasunen desjabetzea aplikatu zieten, tartean Frantziskoren 8 ahaide zirelarik.**

- Xabier hamazazpi urteko eta hainbat hondatua?
- Minik, su eta gar, negarrez nago txikitua.
- Noizbait berri onak hasiko dira familian.
- Okerrak eta okerrak datozkigu aspaldian.
- Jaungoikoak erakutsiko digu nola atera.
- Akaso ni misiolari joanez Japoniara.
- Batzuk hil zorian eta zu zoaz urrutira?
- Lasai, nire orde zortziak etorriko dira.
- Ama, lurrera ez baino begirazaun gora.

## Irakurleak mintzo

### Gora Sunbillako herri kiroletako gazteak

Antton ESPELOSIN

San Tiburtzio bezperan Sunbillako herrian aspaldiko urteetan gazte koadrila batek nik pixka bat gidatuta herri kirol saioa egiten du. Ni-ri gogoratzen zaizkidan gauzak egiteko guztiak beti prest egoten dira borondate onez, eta ahalik eta hobekien egiten saiatzen dira eta goi mailako ikuskizuna eskaintzen diote hurbiltzen den jendeari. Aurten sekulako sorpresa hartu dut, gazte hauek antolatuta omenaldi hunkigarria jaso bainuen. Arratsalde dotorea izan zen niretako eta ez dut datorren urteetan ahaztuko jaso nuen omenaldi xumea, asko estimatu bainuen, eta gero gazte hauek eskaini zuten erakustaldia idiaren aurkako proba ere ez. Hemendik besarkada bat eta eskerrik beroenak herri kiroletan ibiltzen diren gazte koadrilari, baita beti hor egoten diren Jalisko eta Jontxu Ibarri ere.

Ondoko egunean ere beste operi bat jaso nuen Ulbeltzak Elkartek emanda Ramon Latasa jaialdia antolatzeko egiten dudana lanagatik. Aprobetxatu nahiko nuke jaialdi hau egiteko urtero laguntzen didaten guztei ere nire eskerrik beroenak emateko. Sunbildar koadrila bat hor ibiltzen baikara urtero lanean ahalik eta

hobekien antolatzen gure aizkolari handi izan zen Ramon Latasaren oroimenez. Nahiz eta aurten herrian bertan bakar bat edo beste saiatu den jaialdi hau antolatzeko oztopoak jartzen, garbi ikusi da jendeak eman duen erantzunarekin oraindik aunitzek ez dugula ahaztua gure Latasa handia. Nire eskerrik beroenak Leitzan bizi den Ramon Zubillagari ere, berak oparitu baitigu aurten egur guztia, ikusten da garbi oraindik jende ona badagoela eta jende asko badagoela Latasa zena bihotzean daramatenak.

Gora Sunbillako herri kiroletako gazteak eta gora Ramon Latasa.

### Eskertza

Txaro Manterolaren  
Goizueta eta Aiako familia

Ez dugu beste hitzik Txaroren hiletara etorri zineten guztiak eskerrak emateko, hala kanpotar hala herritar, alde batera edo bestera familiar lagundu digutenei eta azkenik Goizuetako koroari ere bai, milesker denei.

### Zertarako ikasi eta hobetu euskara?

Pello APEZETXEA

Galdera bakarria baldin bada ere, erantzunak bat baino gehiago izaten ahal dira, erantzule anitz baitira, jende ani-



### Bota bertsoa

Estitxu AROZENA (Lesakako bertso eskola) • Doinua: Munduaren ilunabarra

### Hau panorama!

Bukatu dira glamurrak  
Zementuaren gailurrak  
Banatzen ziren apurrak  
Kamustutako aixturak  
Negu erdira iritsi gabe  
eskastu dira ezkurak  
Berriro ere gure kaleetan  
oinutsik dabiliz zakurrak  
Botere eta dirutik hurbil  
etxe oneko lapurrak  
ibili dira bihurtu arte  
erreskatearen lurrak  
Aurreztu duna eta zorduna  
noiz lehertuko den beldurrak

Euroaren zipriztina  
Bihurtu zaigu ozpina  
Susmatuz egi gordina  
izan nahi nuke sorgina:  
Gizalegea ahantzi eta  
diruaren eragina  
sustraietatik hau aldatzera  
animatuko bagina.  
Mundu ezberdin, mundu berri bat  
nork ez du nahi imajina  
Zergatikan ez, nik utopian  
sines dezaket jakina  
Gu bizi garen mundu erreala  
hau baita sinestezina!

tzi eta desberdini zuzendutako galdera denez gero. Galdemodu hau, izan ere, bertze herrialde eta kultura ezberdinetatik etorri direnei egiten diegu, hemengo kultura eta hizkuntzaz jabetu ez diren horiei: zertarako ikasi behar duzu zuk euskara? Bertako herrialdeko izanagatik, kanpoko kultura eta hizkuntzaz bizi zaren horrentzat ere egina da galdemodua: zuk ere zertarako ikasi euskara? Eta etxeko bertako euskal hizkuntza zureganatu, eskolan ere landu duzun euskal kulturaz jantzia, baina aise samar erdarara eta erdal kulturara jotzen duzunarentzat ere bada galdera hori: zertarako ikasi euskara?

Kanpotik eta bertze kulturatik etorri eta hemen oraindik arrotz sentitzen zaren horrek baduzu arrazoi garbi bat euskara ikasteko: hain zuzen ere, kanpotik etorri zarela, hemengo jende euskaldunarekin harre-

manak landu behar dituzulako, euskara eta euskal kultura baita hemengotarren izaera. Bertako herrialdean jaioa, baina gehienbat kanpoko kultura eta hizkuntzaz baliatzen zarena, zenbateraino oharitzen zara zure izaera eta nortasuna galtzen ari zarela? Nor izateko, herriaren partaide ere sentitu behar duzu. Bertzela etxean arrotz eta kanpotar bihurtzen ari zara. Euskaraz aritzeko, euskara lantzen saiatzea ere beharrezko da. Bertako herrialdean sortua, bertako hizkuntza ere zureganatu duzuna, baina zerbait euskaraz idatzi eta irakurri nahi duzunean ezinean edo zailtasunean ibiltzen zarena, ez duzu uste zailtasun hori gaintitu behar zenukeela, zurea den hizkuntzan bizitzeko? Hara, arrazoi batzuk euskara ikasteko, euskara hobetzeko, euskara euskaldun jator bezala erabiltzeko, zure hizkuntzaz gozatzeko.

Zure izaeraren beraren alderdia den hizkuntzaren balioa ez duzu baloratuko? Hara euskara zertarako ikastearen arrazoi batzuk. Arrazoi gehiago ere badira, noski, zuk ere badakizkizu eta gogoratzen ahal dituzu.

Euskaltegian matrikulatzeko garaia heldu da, eta familian, lagunartean, zein gure inguru hurbilean, euskara ikastearen eta hobetzearen gaiari duen garrantzia eman behar diegu. Euskaraz ez dakien erdal-duna, edo irakurrian eta idatzian ezinean dabilen euskalduna zure aholku eta bultzadari esker has daiteke euskaltegian. Izan ere, hurbilekoek eragin handia dute gure erabakietan. Eta, ez ahantzi, Bortzirietako euskaltegiak eskaintza zabala duela, eta euskara mankomunitateak bideak jartzen dituela egoera ekonomiko zaila euskara ikaste-ko eragozpena izan ez dadin.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58


Faxa: 948 63 54 57



**Irakurleak mintzo**

**Maite Ibarra Mariezkurrena gogoan**

[Izaskun IBARRA \(Elgorriaga\)](#)



*Emazteki bat bazen  
Gure artean maitia  
Izatez oso gogorra  
Bihotzez goxoa  
Ederki ezagutzen eta lantzen zuen burdina bezain gogorra,  
Burdina bezain beratxa, biguna eta esker onekoa.  
Guretzako, emakumeendako, aitzindaria  
Aroztegian lanean, eskuak beztuta, beso indartsuak,  
begirada argia eta hitz goxokoa  
Gure Maite maitia.  
Emakumea, ama, etxekoandrea, langilea.  
Maite zituen maite gure bazterrak  
Maite zituen gure istorio tikiak  
Maria Mariezkurrena sorginarenak...  
Trikuharriak eta harrespilak  
Bidexkak, mendiak  
Onddo beltxak eta xuriak  
Maite zituen ere, liburuak  
Diseinu aldizkariak, dekorazioa eta pintura  
Nola ikusten duzu zure burua? Geldetu nion behin  
Ni, Amagoia bezala gustatuko litzaidake izan...  
Matriarka, amandrea  
Joan da Gure Amagoia  
Hor nonbait aurkituko ditu bere senarra Paco,  
semea Carlos, anaia Migeltxo, arreba Lupe  
Hor barrena ere, bere lamiak eta galtxagorriak.  
Agur ama, agur amaxi,  
Agur arreba-ahizpa  
Agur izeba maitia  
Hor goian, Mendaurpetik, ikusiko dugu  
Bere izarran distira*

**11 galdera labur**

**Nola baloratuko zenuke zure lehenbiziko urtea erremonte profesionalean?**

Gauza batzuk hobetu ditugu eta bertze batzuk hobetu eta ikasi beharrak. Denbora ematen badidate ikasiko ditut, duikabe!

**Erremontea ez den bertze kirol bat?**

Mendian ehizean ibiltzea.

**Olinpiadak segitu dituzu?**

Zerbait ikusi dut, baina gauza gutti. Telebista arrunt gutti ikusten dut.

**Zein da gehien gustatzen zaizun kirolaria?**

Erremontean Urrutia gustatzen zait eta esku pilotan Irujo.

**Erremontea uzten dizu bestetaz disfrutatzen?**

Bai, baina juxtu Oizkoak hasten direnean ehiza sasoa ere hasten da...

**Erremontea edo eskopeta, zer nahiago?**

Aukeran ehiza, baina ehizarekin ezin baita bizi! Afizio handia dut.

**Usoak, oilagorrek edo basurdea?**

Aukeratu behar izanez gero, basurdea. Usotan eta oilagorretan guttiago ibiltzen naiz.

**Oizko bestak ala Urrozkoak?**

Urrozkoetan asti gehiago hartzen dugu eta. Urrozen gehiago ibiltzen naiz, koadrilla ere hangoa izaten dut. Oizen juxtu etxean egoten naiz.

**Eguna edo gaua?**

Gaba nahiago izaten dut, baina batzutan gabez ibili eta bueltaka-bueltaka eguna ere igual egiten zaigu! Tarteka luzatzen da.

**Egun nagusiko meza edo goizaldeko gosaria?**

Mezatan traba gutti egiten dugu guk, igual gosaria nahiago!

**Bestondoa pasatzeko errezetarik onena?**

Ohatzea! Haize pixka bat hartzeko motoa hartu eta buelta bat ematea ere ez da txarra.

**Amets bat?**

Erremontean hobetzea eta noizbait txapelen bat lortzea.



**Andoni SALDIAS → Oizko erremontelaria**

**J. RAMOS**  
zolak akutzilatuta eta barnizatzen ditut.  
Sakelekoiz: 617 836 073 - LESAKA

**XIRALI**  
ANUNTZIA 2000  
Phone: 948 631 148

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**BIDASOA**  
BIDAKOZ - BERRIKOZ  
DUTRIKALAS - AZPURTERRIKALAS  
MONTERRIKALAS - BERRIKOZ  
T.F: 650 971 442  
BERA

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratuetarako laguntzak
- Erpresa berriz egiteko sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etberritasun eta jubilatze espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sumekoak

www.artekari.com

LESAKA: Siltzio, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050  
BUREATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
© 948 630 763 - Altxate, 17 - BERA

**F. LANGHAS**  
Akudialortza eta berriztatzailea  
Parkes eta parket flutatzailak  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 755 - M: 607 406 781

## GIZARTEA

TTIPI-TTAPA → ETXALARTIK LESAKARA

# Ttipi-Ttapa Fundazioa Lesakara lekualdatu da

Telefonoaren zenbakia eta interneteko helbide elektronikoa ez dira aldatu

## TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPA Fundazioak Lesakan dauka egoitza berria, Koskontako Bidea 7 lehenbiziko solairuan. Bertan izanena da hemendik aitzinera TTIPI-TTAPA hamabostekariaren eta webgunearen erredakzioa, baita Kulturkarirena ere.

1980an sortu zen TTIPI-TTAPA aldizkaria. Hiru hilabetetik edo egiten aldizkaria izaki, ez zuen langile eta egoitza finkorik. Hamar urte beranduago, 1990ean, hamabostekari bilakatu zen eta orduko langileek berrelehen bulegoa izan zu-



ARGAZKIA: GOOGLE MAPS

Lesakako Osasun Zentroaren, futbol zelaiaren eta igerilekuaren artean du egoitza berria Ttipi-Ttapa.

ten Berako udaletxeko eskailerapean zegoen gela ttipi batean, Herriko Etxeak berak utzita. Orduan argazkiak errebeltzeko behar zirengela ilunak, biltegiak eta komunak ere Berako Herriko Etxean barna hedatuak zeuden. Gero, ga-

rai batean Correosek eta gaur egun udal bulegoak hartzen dituen gela handiagoa utzi zion TTIPI-TTAPAri Berako Herriko Etxeak. Gainera, telebista sortu zenean, garai bateko kartzela ere utzi zion TTIPI-TTAPAri. Baina preziskiki, udal

bulegoak beheitiko solairuan egin zituztenez, Berat lekutu behar izan zuen TTIPI-TTAPAK eta Etxalarko eskola zaharretan hartu zuen aterpe, Etxalarko Udalak utzita. Bertan eman ditu azken zortzi urteak, baina orain, 32 urtez han-hemen utzitako lekuetan aritu ondotik, Lesakako Koskonta Bideko 7an bulegoa eskuratu eta bertan hasi da lanean TTIPI-TTAPA.

Beraz, gurekin posta arruntaren bidez edo zuzenean harremanean jartzeko horixe izanen da helbide berria: Ttipi-Ttapa; Koskontako Bidea, 7 - 1. - 31770 LESAKA.

Bertze gainerakoan, Etxalarren zuen telefonoa (948 635458) eta faxa (948 635457) mantentzen ditu, baita posta elektronikoko helbideak ere ([info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo [ttipi-ttapa@ttipi.net](mailto:ttipi-ttapa@ttipi.net))

## IRUÑEA

Ameriketako artzain besta irailaren 15ean

## TTIPI-TTAPA

Ameriketako Estatu Batuetan artzain ibili ziren euskaldunen besta irailaren 15ean Iruñean ospatuko da aurten. 10:30ean, San Nikolas elizan ospatuko den mezarekin abiatuko da. Orbela otxo tea eta Bankako Menditarrak kantari izanen dira mezan. Eguer dian, fanfarre baten laguntzarekin Ziadadelako Arma aretoa joanen dira, eta han harrera eginen diete artzainei. 14:00etan anaitasun bazkaria eginen da Iturrama ikastetxe publikoko frontoian.

Irailaren 14ra arte, berri, Iruñeko Condesable jauregian artzainen argazki erakusketak ikusgai dago. Iruñeko ikaste txeei erakusketak bisitatzeak aukera eskaini zaie.

BIDASOKO BIDE BERDEA → LANAK AITZINERA

## Endarlatsa-Donztebe zatia egokitzen 2013ko udan akituko dute

## TTIPI-TTAPA

Bidasoko trenbide zaharra, Endarlatsa eta Donztebe artean, bide berde gisa berreskuratu eta egokitzeko lanak 2013ko udan bukatuko dira, behin Nafarroako Gobernuak ibilbide hau Udalez Gaiendiko Eragina duen Proiektu Sektorial (PRIS) izendatu eta gero.

Lanak 873.003 euroko aurrekontua dute.

Europar Batasunak ko-finantzatu ditu %65ean, 2011-2013 biurtekoan Nafarroa buru den Pirinioetako Lan Elkarrekin (PLE) kudeatzen duen Poctefa programaren bidez. Gainera, %45a Nafarroako Gobernuak (278.833 euro) eta Bertiz Partzuergo Turistikoak (26.718 euro) bideratuko dute.



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Zarraluqui kontseilariak abuztuan bisitatu zituen Bide Berdeko lanak Sunbillan, Bortziriak, Sunbilla, Bertizarana eta Donztebeko udal ordezkariekin batera.

Jarduera nagusia N-121A errepidearen azpitik, Alkaiaga inguruan, eginen den lurpeko pasabidea eraikitzea izango da. Obra hori, gutti

goitibeheiti, 500.000 euro kostatuko da. Horrekin batera, trazadura seinalezapena, tunelen argiztapena eta bide berdea igaroko den

zonatan hainbat egokitzapen eginen dira. Gainera, babesteko esku delak jarriko dira erortzeko arriskua egon litekeen bide-guneetan.

UR ESKASIA → LEHORTEA HASIA DA

# Ur eskasia dela eta, zenbait kasutan uraren erabilpena debekatu du Udalak

Euri dezente egin arte mantenduko du neurria

## TTIPI-TTAPA

Udalak bando bidez jakinarazi duenez, ur eskasia nabaritzen hasiak dira herrian. Ura alferrik ez galtzea urte osoan kontuan eduki behar bada ere, Udalak «sasoi honetan ahalegin berezia» eskatu die herritarrei. Lehortea hasi dela eta, zenbait kasutan uraren erabilpena debekatu egin du Udalak: baratzeak, lorategiak eta loreak ureztatzeko, autoak garbitzeko, igerilekuetarako edota etxerako erabilerarako ez den bertze kasu guztietarako uraren erabilpena debekatu du. Euri dezente egin arte neurria indarrean manten-

tzeko asmoa dute.

Bide batez, aipatutakoa ez betetzeak Ur Hornidurararako Udal Arautegiaren erabakiaren arabera, isuna dakarrela orotarazi du Udalak.

## Aurrematrikulazioa musika eskolan

Irailaren 3tik 7ra izanen da Isidoro Fagoaga Musika Eskolan aurrematrikulazioa egiteko aukera, 09:30etik 13:00etara bulegoan. Haur nahiz helduentzako eskaintzak izanen dira ikasturte honetan ere, solfeo, musika tresna eta abesbatzako klaseak. Musika tresnei dagokionean, akordeoia, bibolina, gitarra klasikoa eta elektrikoa, klarinetea, panderoa, perkusioa, pianoa, teklatura, trikixia, tronpetta, txistua eta saxofoia ikasteko aukera izanen da.



ARGAZKIA: BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUAK

## Jubiloteka martxan

Udako oporren ondotik, irailaren 4an irekiko ditu ateak Jubilotekek Lagun Handiak elkartearen egoitza. 10:00etan eginen dute harrera, eta hortik aitzinera, astearte eta ortziraleko bilduko dira 10:00etatik 13:00etara.



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

## Agerrako bestak ekitaldiz beteak

Aurten ere besta ederrak ospatu dituzte Agerran, abuztuaren 23tik 26ra hainbat ekitaldi prestatuz. Zozketak ere egin dituzte eta hauek izan dira zenbaki sarituak: 1. saria 1.116 zenbakiarentzat izan da (Aloñaren botikan saldua), 2. saria 0118 zenbakiarentzat Iban Telletxeak saldua eta 3. saria 2.010 zenbakiarentzat Edorta Etxeberriak saldua. Bide batez, Agerrako Besta Batzordeak eskerrak eman nahi izan dizkie modu batean edo bertzean lagundu dieten guztiei: «lanean, ekitaldietan parte hartuz, ekitaldiak antolatzeko laguntza emanez, boletoak erosiz... Guztien laguntzarik gabe ezinezkoa izanen litzateke bestak antolatzeari».



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Bestak giro ederrean

VIII. Txirridularitza Proba, Bizikletaren Eguna eta Bidasoaldeko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdia egin ondotik, abuztuaren 2an abesbatzako ordezkariak botatako txupinazoarekin hasi ziren ofizialki sanestebanak. Hortik aitzinera, abuztuaren 6ra arte hainbat ekitaldi izan ziren. Gaztetxekoek ere euren egitaraua osatu zuten lau egunez, Gaztetebanak, hain zuzen.

## LESAKA

KULTURA → LEHEN ALDIZ ESTATU BATUETAN

# Juan Carlos Pikabearen margolana New Yorken ikusgai izanen da

Aitzinetik Gasteizen ere egingen du erakusketa

Aitor **AROTZENA**

Juan Carlos Pikabea margolari lesakarraren 30 bat lan ikusgai izan dira abuztuan bere etxean, Otsango auzoko Irisarrin. Azkeneko urteetan ohikoa den erakusketa honen ondotik, Gasteizko Vital Kutxaren Luis de Ajuria aretoan zintzilikatuko ditu bere koadroak, irailaren 26tik urriaren 14ra.

Aurten, gainera, lehen aldiz itsasoa zeharkatu eta Pikabearen margolan bat New Yorken erakutsiko du Chel-

seako Montserrat aretoan azaroaren 28tik abenduaren 12ra. Nonbait, joan den urtean Parisen egin zuen erakusketak ate hori zabaldu zion eta udazkenean bidaliko du bere margolana, Parisko Hors Champs galeriako Stelin-Overseasen bitartez. «Oraindik ez dut margotu, baina badut astia, seguruenik Hendaiaiko itsas labarreko irudiren bat margotuko dut», aipatu digu Pikabeak.

Bitxikeria moduan, bere margolana, *Frantziako gaur egungo eszena artistiko berria* erakusketaren barnean ikusiko da eta honek ere, ate berriak irekiko dizkionaren itxaropena dauka margolariak.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Pikabea, abuztuan Irisarrin egin zen erakusketan.



UTZITAKO ARGAZKIA

## 47 neska-mutikok parte hartu dute aurten udalekuetan

Aurten 47 haur eta 5 begirale izan dira Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Dindaia Fundazioarekin batera uztailaren 16tik abuztuaren 10era eskaini dituen udalekuetan. Unai Iriondo, Amaia Telletxea, Maddi Taberna, Matixa Oteiza eta Maite Iturria aritu dira begirale lanetan eta giro ederra izan dute lagun, ekitntza ezberdinak egiterakoan.

KIROLA → EUROPAKO IRONMANIK ZAHARRENETAKOIA

## Bixente Igartzabal 25 onenen artean sailkatu da Enbrunman proban

A.A.

Abuztuaren 15ean burutu zen Frantziako Alpeetan Embrunman probaren 29. edizioa. Europako zaharrenetakoia eta Munduko gogorrenetakotzat hartua duten Ironman honetan 1.022 kirolari abiatu ziren, tartean Alejo Sarobe eta Bixente Igartzabal lesakarrak. Sarobek ez zuen proba bukatzea lortu, baina Igartzabalek Top-25ean sartu zen, 24. zehazki.

Aurtengoan bereziki gogorra izan da Embrunman, bero handia eta haize zakarra izan

baitzuten. Horren erakusgarri, atera ziren 1.022 partehartzaileetatik 685 bakarrik helmugaratu zirela.



Igartzabal 24. izan zen, denera 11 ordu, 36 minutu eta 28 segundo lanean aritu ondotik. Eta hori igeriketako zatitik 701. postuan atera zela (01:17:13). Espero bezala, bere espezialitatea den bizikletan hobeki ibili zen, hamargarren izan zen zati horretan (06:21:52) eta oinezko lasterketa, maratoian, 44. denborarik onena egin zuen (03: 50: 26). Azkenean, beraz,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Igartzabal lanean.

bigarren urtez segidan 25 onenen artean sartzea lortu du Igartzabalek, lehenbiziko euskalduna izan zen eta estatuko kirolarien artean hirugarren izan zen, irabazle eta bigarren izan ziren Marcel Zamora eta Victor del Corral katalanen ondotik.



OSPAKIZUNAK → GAZTEEN ESKUTIK

# Lehenengo aldiz Gazte Eguna eginen da irailaren 15ean

Gauean  
kontzertuak  
izanen dira

## Irune eta Itsaso

Lehenengo aldiz, herriko gazteek gazte eguna antolatu dute irailaren 15erako. Honako hau izanen da egitaraua:

- 10:00etan gosaria Anttonion.
- 11:30ean paella txapelketa.
- 14:00ean bazkaria.
- 17:00etan gazte jokoak.
- 20:00etan triki poteoa.
- 21:30ean bokatak txosnan.
- 23:30ean kontzertuak: Arma Tiro Punk, Morge, Egurra Ta Kitto eta Unsain taldeekin.

## GAZTEEN BOLETOAK

Hauek izan dira herri afariko zozketan ateratako zenbaki sarituak: minikadena 955 zenbakiarentzat, argazki kama-131rentzat, Elgorriagako bainuetxeko saria 210arentzat eta zerrikumea 128 zenbakiarentzat. Sarituek 676 249 489ra deitu behar dute.

## Urritzokietako bestak

Urtero bezala, aurten ere Urritzokietako auzoan Santa Kruz bestak ospatuko dira. Irailaren 14an, 11:30ean meza izanen da Santa Krutz ermitan eta ondotik auzotarrek eskainitako ha-18:00etan txokolatada eskainiko dute Sainduneko zubian

hurbiltzen diren guztientzat eta 20:30ean afaria eginen dute auzotarrek.

Irailaren 16an, igandea, 11:30eko mezaren ondotik, 12:30ean trikitilariak kalejiran auzoa zeharkatuko dute. 14:00etan asaua eginen da Sainduneko Zubian eta bazkaldu ondotik mus eta partxis txapelketak. 17:30ean jokoen txanda izanen da: lasterketa bi lagun elkarri hankak lotuta, zartagi jaurtiketa eta zaku lasterketa. 18:30ean erromeria eginen da eta 20:30ean afaria. Trikitilariak afalondoa alaituko dute. 16ko bazkarira joan nahi duenak 948 635134ra deitu behar du irailaren 10a baino lehen.

## Udako turistak

Aurtengo udan ere, Udalak, Bertiz Partzuegoaren laguntzarekin, turismo bulegoa zabalik eduki du Kultur Etxean, turistaren eskaerak erantzuteko. Aste Santuan bezala, Irantz Pastorle-



ARGAZKIA: AXUN MAIA ETA NEREA IPARRAGIRRE

## Giro onean joan dira aurtengo Andremeriak

Eguraldi beroa lagun izan bada ere, ekitaldi gehienak hagitx arrakastatsuak izan ziren. Gehienbat, bezperako herri afaria, Andre Mari dantza taldearen saioa, gazte eta beterranoen herri kirol desafioa eta Asaua. 2013koen zain gelditu da herria.

sakarra izan da ardura-duna. Uztaila eta abuztu-750 turista inguru pasatu dira bulegotik, hauen artean %82a estatua espaniarrekoa. Datu hauekin, aurtengo balorazioa hagitx positiboa izan dela erran daiteke.

## Larraburuko irteera

Abuztuaren 20an Larraburua jubilatuko 40 bat kide Donibane Garazira joan ziren egun pasa. Merkatua, eliza, alde zaharra eta Orreagako kolegiata bisitatu eta kontent bueltatu ziren.



ARGAZKIA: IBON ERRAZU / TESTUA: TTIPI-TTAPA

## Elizagoien ahizpak Euskal Herriko txapeldun

Abuztuaren 15ean jokatu zen Zeanurin (Bizkaia) Euskal Herriko trikitilari gazteen XXXII. Txapelketa. Hamar bikoteren artean, Itsaso eta Irune Elizagoien ahizpak izan ziren txapeldun.

**USOA**  
Nekazarri kooperatiba

Bertan egindako perisuaik, bertze markak eta ekologikoak.  
Organak - Burdin trusak  
Insektizidak - Edanak - Hazia.  
Botiak (irrezistarekin)

Etxez ebeko banaketa egiten da  
Kafelakzioa eta ibigailuendako gascioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

**ERREKALDE**  
Plaza Compañías  
GATZAL  
Barrilak

TTAPA: 948 630 254 • BERA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colón Fas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 632050 • IRUN

# ARANTZA

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA PRESTATZEN

## 3 urteko sei neska-mutikok ikasturte berria hasiko dute ortzegun honetan

Hiru neska eta hiru mutiko lehenbiziko aldiz joanen dira eskolara

### 3 URTEKO IKASLEAK

Ekiñe, Elene, Irati, Xabi, Asier eta Beñat ikasturte honetan lehenbiziko aldiz joanen dira eskolara.

kola handia probatu-ko dute aldi honetan, eta seguru gaude, negar malko eta irrien artean, azkenean ederki egokituko direla! Hiru neska eta hiru mutiko dira: Ekiñe, Elene, Irati, Xabi, Asier eta Beñat.

Lerro hauek idazterakoan, oraindik, eskolako aurtengo datu gehiagorik biltzerik ez dugu izan; beraz, hurrengorako xehetasun horiek guztiak utziko ditugu.

### Nerea ALTZURI

Berriz ere, motxila, liburuak, eskolako materiala eta gogoia mar-txan paratu eta hara non ailegatu den iraila! Bi hilabete pasatxoko oporraldiaren ondotik, eskolako bidea oroitu-ko dute herriko hainbat gaztetxok. Goizean goiz jeikitzeke perez-a utzi eta berriz ere es-kolako kontuetan iza-nen dute burua. Sei neska mutikok es-



ARGAZKIAK: NEREA ALTZURI ETA UTZITAKOAK

### Aio udako ekintzei!

Udalekuak, bestak, bertzelako ateraldiak... oraindik ez da uda akautu eta batez ere eguraldi ederra egiten badu, bada non josta. Halere, eskolan haste horrek zertxobait aldatzen du gure egunerokoa. Pasatutakoa, ordea, ez da gutti izan eta aurtun uda ona eta beroa joan zaigunez, kanpoko ekintzetan partze hartzeko muga tikiak izan dira. Argazki pila ikusten ari zarete bai! Aunitzez ere gehiago atera ditugu baina batzuk aukeratu behar eta urtero bezala, bestetako irudiak ditugu. Gazte Asanbladak abiatu eta akautu zuen bestetako egitaraua. Izan ere, aurtengo lehen altxaferoa Gazte Asanbladako ordezkariak bota zuten eta abuztuaren 25ean egin zen Arantza Rockeko gau arrakastatsuen antolatzaile izan zen 17. aldiz. Gainerakoan, 14an, bezperan, haurren eta gazteen dantza saioa eta herri kirolak izan ziren, bertzeak bertze; Amabirjin egunean, ohiko dantzarien emanaldia eta pilota partidak izan ziren, tartean Beñat Mitxelena zela; haurren egunean, karaokea, aurpegi pintatzea, gaztelu puzgarri eta karsak, bazkaria... izan ziren, baita Patxi Larretxeak gaia emanda bertso saio ederra ere eta gauzez auzoetako afari arrakastatsuek; 17an herriko pilota txapelketako finalak izan ziren goizez, baita kantu kalejira ere Gregorio Mitxelena akordeoilariarekin eta herri bazkaria ondotik... Eta bi haramunean, presoen aldeko elkarretaraztea, kalejira eta elkartasun afaria. Ondoko asteburuan Arantza Rock etorri zen, eta kontzertuek jendetza bildu zuten plaza. Gazte Asanbladaren boletoen zozketan, hiru saririk bakarra atera zen momentuan, bigarrena, Aisia Orio talasoterapian bi lagunentzako sarrerak. Goienetxe Anaiak taldeko kide bati tokatu zitzaion. Gainerako bi zenbaki sarituen jabeek irailaren 25era arteko epea izanen dute agertzeko: 1.730 eta 1.129 dira zenbakiak eta sariak Euskal Herriko landetxe batean bi lagunentzako asteburua eta bi afari Arantzako Aterpen. Tira, hurrengo urtekoak ailegatzeko guttiago gelditzen da!

BERAHONDOKA, S.L.  
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152  
Bidaxoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

TELLETXEA  
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa  
LESACA • T. 619 418 683  
john.telletxea@hotmail.com  
www.telletxealorazaintza.com

TXIRRINDULARITZA → BILTOKIK ANTOLATUTA

# Mendi bizikleta ibiladia egingen da igande honetan

Haurren eta helduen ibilbideak prestatu dira, eta azken hauentzat motza eta luzea

## IBILBIDEAK

Ibilbide luzea aukeratzeko dutenek ondoko bide hau egin beharko dute: herritik abiatu eta Talaia, Errota, Monua, Pagolako egia, Kaxoten harria, Mendibil, San Juan Xar, Albiz, Belagorotzeta, Buztigorri eta

Apittun barna pasatu ondotik berriz ere herrirako bidea hartu.

Motza nahiago dutenek ibilbide luzearen bidea egin beharko dute Monuaraino, baina handik San Juan Xarrera joanen dira. Hor ibilbide luzearekin bat egi-

nen dute Belagorotzetaraino eta hemendik herrirako bidea hartuko dute Zanbudioren borbordatik pasatuta.

Antolatzaileek kasikoa nahitaezkoa dela iragarri dute eta gerta daitezkeen istripuen erantzule ez direla egi-

nen ere adierazi dute.

Bertzalde, proba bukatutakoan hamaiketako eskainiko zaie txirrindulariei eta parte-hartzaileen artean sariak zozketatuko dira. Dutzak eta bizikletak garbitzeko tresnak ere izanen dira.

## Joxean ORTEGA/TTIPI-TTAPA

Biltoki Elkarrekin antolatuta, mendi bizikleta ibilaldia egingen da igande honetan, irailak 9. Froga ez lehiakorra izanen da eta haur nahiz helduentzako ibilbideak prestatuko dira, eta helduen kasuan ibilbide luzea eta motza izanen dituzte txirrindulariek aukeran, 31 eta 20 kilometrokoak.

Izen-ematea egun berean egin beharko da, 08:30etik 09:30erantartean, eta 10 euro ordainduta. 16 urte bitartekoek, berriz, dohainik izanen dute. Behin izena emanda, haurrak 09:30ean abiatuko dira eta helduak ordu erdi beranduago, 10:00etan.



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

## Erlauntza kiskalia

Joan den uztailaren 14an Jose M<sup>a</sup> Sainz herritarrak duen erlauntza erre egin zen. Argazkian ikusten ahal den bezala, dena kiskalita gelditu zen. Lesaka eta Oronoz-Mugairiko su-hiltzaileek egindako lanari esker, sua ez zen mendira hedatu. Lerro hauen bidez euren lana eskertu nahi dugu Jose M<sup>a</sup> Sainzek eta mendia maite dugun guztiok.

## DATUA

# 2

## IBILBIDE

izanen dituzte aukeran helduek, 31 eta 20 kilometrokoak.

## Bestetarako prestatzen

Hurbil ditugu bestak eta aurten ere programan Jubilatuen Bazkaria izanen da. Herriko Etxean (La Villa) egingen da eta txartelen salneurria iazkoa izanen da: 20 eurokoa. Txartelak eros-teko lekuak betikoak izanen dira eta epea irailaren 20an bukatuko da.

**BERA** Zere inguruen klase gaztelako txakurrak (xakarra, zinoarra, armarra, kaxaxo...) eta pirata txakurrak garbitu nahi baduzu, delat! Termite eta Pipin tratamenduetan.

**GOIENKO** Inbentario Gertakarien Produktuak

Tel: 948 627 519 • Zuzen, 40 • 4 • 48210

**caroha** gurea gurea

Ordu emateko 28 berriz 14.02 berriak dira

1984-2012 www.caroha.net

**KOXKONTA** Jatetxea

2012an ezkontzen diren bikoteendako promozioak

Tel: 948 627 519 • 948 627 503 • 689 801 657

Ottango auzoa, 1 • **LESAKA**

**ERROTAZAR**

harategia

Berrizko produktua

Kategoria: 3 - BERA

Tel/Fax: 948 630 058

# DONEZTEBE

KIROLA → ESKUBALOIA

## Jubenil mailan ere taldea osatuz hasi du aurre-denboraldia Erreka Elkarteak

Seniorretan Ganboa anaiak izanen dira entrenatzaile

### TTIPI-TTAPA

Eskubaloiko aurre-denboraldia hasi du Erreka Kirol Elkarteak. Seniorretan Patxiku eta Felipe Ganboa anaiak segituko dute entrenatzaile lanean eta joan den urteko denboraldi bikaina berdintzen saiatzea izanen dute aurtengo erronka, nahiz eta Iban Ezkurra eta Luismi Apezteak, biek ere lesioengatik, taldea utzi behar izan duten. Bertalde, bigarren urtez, Mariezkurrena Eraikuntzak enpresa izanen da talde seniorren babesle nagusia.

Hala ere, aurtengo berrikuntza nagusia ju-

benil mailan ere taldea izanen dela da. Iban eta Txomin Mindegia izanen dira entrenatzaile eta joan den urtean kade-teen aritu ziren jokalariek osatuko dute taldea. Aipatu, joan den urtean Nafarroa mailan hirugarren postuan akitu zutela.

### ASOBALEKO PARTIDAK

Erreka Kirol Elkarte-ko bazkideek Asobal ligagan partidak ikusteko aukera ederra izanen dute. Izan ere, Anaitasuna eta Errekak duela hilabete pare bat sinatutako hitzarmenari esker, Errekako bazkideek %50eko deskontua izanen dute abonoa erostekoan. Gainera, Errekako taldeetan aritzen diren benjamin, alebin eta infantilek debalde jasoko dute denboraldi osoko abonoa.



ARGAZKIA: ERREKA

### Mendizaleak Anayet aldean

Urtero bezala, aurten ere Pirinioetara bisita egin dute uda honetan Errekako Elkarteak antolatuta. Uztailaren 22an 30 bat lagun Anayetera joan ziren.

### Matrikulazioa musika eskolan

Irailaren 10ean zabalduko da Agorreta musika eskolan matrikulazioa egiteko epea. 11:00etatik 13:00etara musika es-

kolan berean egiten ahal izanen da edo bertela, 948 451412ra deituta. Irailaren 14a izanen da hondarreko eguna.

Ondoko ikasgaiak eskainiko dira ikasturte

honetan: Musika eta Mugimendua (6 urteko umeentzat), Musika Hizkuntza, Akordeoia, Gitarra, Pandereta, Pianoa, Perkusioa, Tikitixa eta Txistua.



# Ikasturte Berrtia 2012 - 2013



**Angie**  
ENGLISH ACADEMY

2012/2013 kurtsonako matrikulazio epea zabalik. plaza mugatirik

**IKASTURTE HASIERA: irailak 17**

University of Cambodia azterkissara sarkasteko prestatuakuntza

Itzupen lanak egiten dira • Eskola laguntza

**30 URTE BAINO GEHIAGO MALERREKAN**

Elaagibets 7. denes - 31740 DONEZTEBE  
T. 626 906 075 - angieacademy@gmail.com

**LEGARRA**

Pasa den ikasturteko prezioak eta BEZa

- ESKOLAKO MATERIALA ETA TESTU LIBURUAK ENKARGUZ
- FOTOKOPIAK KOLORETAN A3 eta A4
- USB-ik ZUZENEAN INPRIMATZEN DUGU

T/F. 948 63 70 30 - Albistur, 9 - LESAKA



# Ikasturte Berria 2012 - 2013



**AXULAR**  
 Fotokopiat, lana, enkadereazioak, plastifikazioak,  
 azokariak, prentsa, tabakoak eta  
 beste liburuak eskertzen diren enkarguz

Santiago, 26 • ELIZONDO • T. 948 581 507

**ELKAR**  
 liburudenda

- Testu liburuak
- Eskolako materiala
- Aldizkariak eta prentsa
- Fax zerbitzua eta fotokopiak

Eztegara, 18 • T. 948 630 691 • BERA

**FOTOKOPIA**  
 Astean bereziki molino digital berrak

- Inprimaketa, zuri beltzean eta kolorean (zatalogoak, prezioen zerrak, bilto teknikoak...)
- Piztaren inprimaketa eskarrietarako, formakoa furdituek eta murdisek egiteko
- Zantzetan inprimaketa

Erreklamazioa: 948 630 215  
 berak@urdil.com

**TOKI-ONA**  
 KIROLDEGIA

2012-2013  
 Kirol jardueren programa.  
 Apuntatu zuretz!

Laster eskuorria zuen etxean!

Informazioa: 948 630 215  
 berak@urdil.com

**LESAKAKO**  
 KIROLDEGIA

2012-2013  
 Kirol jardueren programa.  
 Apuntatu zuretz!

Laster eskuorria zuen etxean!

Informazioa: 948 630 400  
 lesakak@urdil.com

**Dasya**  
 Yoga Zentroa

2012-2013 IKASTURTEA  
**Matrikulazioa:** Irailaren 17tik 28ra  
**Arratsaldean, Setatik 8etara**

Yoga  
 Juhilamenezako yoga  
 Haurrentzako yoga  
 Ama/aita eta unicezentzako yoga  
 Hautdunentzako yoga  
 Meditazioak  
 Zoru pelbikoa indartzeko tailerrak

Etia gainera ikastaro desberdinak aste bukaeretan:  
 Hezikia, Diferentzialterapia  
 Entzumenari mentalko saiio praktikokoak  
 Kuartzozko lanekoan kontzertuak  
 Haurren haziera eta hezikuntzari buruzko hitzaldiak, ...

Informazio gehiagorako:  
 T. 948 630 635 (Mugatu) • [centrodasya@gmail.com](mailto:centrodasya@gmail.com)

**ttipi-ttapa**  
 948 63 54 58  
[kulturkari@ttipi.net](mailto:kulturkari@ttipi.net)

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...  
**inprimitzen ditugu**

# SUNBILLA

HERRIKO BESTAK → SANTIBURTZIOEN ERREPASOA

## Idiari gailenduz, gizon proban marka egin dute herriko gazteek

Eguraldi eta giro ederra dira besten ezaugarriak

### Maider PETRIRENA

Eguraldi ederra izan dugu aurtengo bestetan eta horrez gain, besta izugarriak izan dira. Bezperan, beste hasieran eman aitzinetik gizon proba ederra ikusgai izan genuen. Herriko zortzi gazteek 40 plaza egin zituzten 800 kiloko harriarekin, eta idiak, beriz, 38 plaza. Ordura arte inork ez zuen lortu idiari irabaztea eta sunbildar gazteek lortu zuten: Igor, Asier, Unai eta Iker Bertiz, Xabier Petrirena, Arkaiz Vicente, Iñaki Mikelarena eta Luis Ibarra izan ziren partehartzai-leak eta Aitor Agirre eta Daniel Bertiz ordezkariak. Ondotik, 20:00etan eman hitzaien beste hasiera. Florentino Gelbenzu zinegotziaz gain, bi kirolari

gazte omendu zituzten eta beraiek izan zuten txupinazoa botatzeko ohorea, Ane Petrirena eta Iker Espelosinek, alegia.

Bestetan ekitaldi aunitz izaten dira, eta aurtengoz aipatuko dugu XI. urtez Ramon Latasa Saria egin zela eta berrikuntza gisa, zetreria ere izan genuen, eta polita izan zen. Haur eta helduen dantza saioak Santiburtzio Egunean egin ziren eta honi hasiera polita eman zioten Zaira Gaztelumendi eta Aritz Bereauk Aurrekua dantzatzuz. Haurren Eguna, plater tiroketa, Peñen Eguna, espuma besta, su artifizialak, mus txapelketa, krosa... Denak ongi atera ziren.

### Trikitixa ikastaroa

Mendaur Trikitixa Eskolak trikitixa eta pandereita ikastaroak urrian hasiko ditu, baina izen-ematea irailaren 20rako egin beharko da (646 298568)



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Gure dantzariak Elizondon

Baztango merkatariek beraien eguna antolatu zuten abuztuaren 5ean Elizondon eta bertze herrietako dantzariekin batera, Sunbillakoek ere parte hartu zuten.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Gisa aunitzetako ekitaldiak izan dira aurtengo bestetan.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Hamasei lagun kronoeskaladan

Bestak hasi aitzinetik, giro ederra sortu zen abuztuaren 5ean gazteek antolatutako kronoeskaladarekin. Fonda ostatutik atera eta Arretxekobordarainoko bidea egin behar zuten eta guztira hamasei lagunek parte hartu zuten: Iñigo eta Mikel Arrieta, Gari Larraburu, Aitor eta Joxe Apeztegia, Xabier Andueza, Jabiertzo Jorajuria, Eneko Herrera, Mikel, Unai eta Iker Bertiz, Iñaki Mikelarena, Mikel eta Xabier Arretxea, Mikel Agesta eta Jon Maritxalar. Hiru minututik atera ziren eta Aitor Apeztegia izan zen bizkorrena (10:10) eta 15 urterekin parte hartzailerik gazteena zen Eneko Herrera bigarrena (10:46). Zorionak parte hartu zuten guztiei.

GIZARTEA → URRITIK EKAINERA

## Urrezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenak urriaren 13an omenduko ditu Arkupeak-ek

Bazkidearen Egunarekin batera eginen dira omenaldiak

### TTIPI-TTAPA

Aurten lehenbiziko aldiz, urriaren 13an eginen da Bazkidearen Eguna eta egun berean 85 urte bete dituzten bazkideei eta Urrezko Ezteiak egin dituzte omenaldia eginen die Arkupeak Elkarteak. Orain arte, Bazkidearen Eguna urte hondarrean egin izan da, eta omenaldiak ekainean. Aurten, ordea, biek batera urrian egitea erabaki du Arkupeak Elkarteak. Batetik, Nafarroako jubilatuek elkarte aunitzen artean zabaldua dagoen ohitura hemen ere ezarri nahi dutelako egin dute aldaketa hau, zerbaitegatik berezi diren bazkideei omenaldia egun horretan egiten dietelako. Bertetik, berriz, zuzendaritza talde berriak urtean hildako bazkideak go-goan eduki nahi ditu.

Egun horretan, 11:30ean meza izanen da Doneztebeko elizan eta ondorengo omenaldiak eginen dira. Gero bazkaria eta dantzaldia izanen dituzte.

### JARDUERA GEHIAGO

Une honetan eskuartearen dituen ekimenen berri ere eman du Arkupeak Elkarteak. Hala, irailaren 27tik urriaren 9ra

Benidormera joanen dira; urriaren 13an Bazkidearen Eguna eta omenaldiak eginen dituzte; urriaren 25ean Lodosa eta Lizarrara joanen dira eta azaroaren 5etik 14ra Lanzarote aldera.

Helduentzako unitate bertsitateak ekimena ere martxan paratuko du sei gai eskainiz: *Artearen historian sarrera* (aro artistikoak bereizi, inguruko ondare artistikoa ezagutu eta artelan garrantzitsuenak ezagutzeko), *Matematika kalkulu orriarekin* (oinarrizko ezagutza teoriko matematikoa lortzeko eta excel orria erabiltzen ikasteko), *Jubilatu eta zaintzaile: erronka haundi bat* (jubilatzaileen alderdi psikologikoak ezagutzeko eta zainketa egoerei aurre egiteko tresnak garatzeko), *Tokian tokiko historien tailerra* (bertako historia hurbila ezagutzeko), eta *Emozionalki trebea naiz?* (gaitasun emozionalen inguruan). Parte hartzeko irailaren 17tik 21era deitu behar da Arkupeak-era (948 450878) eta ikastaroak urrian hasiko dira. Printzipioz, Donezteben eginen dira, baina apuntatzen den gehiegoaren jatorriaren arabera, Elizondon edo Beran ere izan daitezke.

Bertzalde, frantsesa, oleo pinturarako sarrera ikastarora, informatikako sarrera eta sakontzeko ikastaroak eta hitzaldi ge-

URREZKO EZTEIAK		
BERA	Vicente Fagoaga eta M <sup>a</sup> Cruz Tolosa	
ERRATZU	Migel Dagerre eta Xole Iturbide	
IGANTZI	Migel Hita eta Francisca Etxeberria Hipolito Iparragirre eta M <sup>a</sup> Mar Sanzberro Teodoro Irigoien eta Kontxita Etxebeste	
IRUN	Jose Zurriarain eta Anunciacion Babaze	
LEITZA	Miel Barriola eta Feli Aierdi Enrique Bildarraz eta M <sup>a</sup> Cruz Zabaleta Eusebio Maritorea eta Isabel Uharte	
SUNBILLA	Migel Manterola eta M <sup>a</sup> Jesus Legaz	
ZUGARRAMURDI	Juan Bidegain eta M <sup>a</sup> Jesus Gainza	
85 URTE BETE EDO BETEKO DITUZTENAK		
ARESO	Pilar Arraigo Hernandorena	
ARIZKUN	Francisco Jabier Larralde Ustariz	
BERA	Josefa Agirre Iratzoki Pepita Barandiaran Aldasoro Vicente Fagoaga Barberon Pakita Iratzoki Berasain Migel Martinez Laskurain	
	DONAMARIA	Jacinta Inda Arregi Leon Lasaga Iratzoki
	DONEZTEBE	Esperanza Olaizola Caminoa Maritxu Oskoz Saratea
	ERRATZU	Migel Dagerre Larregi
ETXALAR	Perpetua Arburua Iturria Maria Zubieta Arburua	
GOIZUETA	Milagros Lujanbio Loiarde	
IGANTZI	Francisca Etxeberria Telletxea Elena Gallego Migel	
IRUN	Lucia Otaegi Arrieta Luis Sorzabalbere Otxoteko	
ITUREN	Hilaria Mutuberria Maitikorena Mikaela Etxeberria Hernandorena	
LESAKA	Bittori Pikabea Altzugarai Atanasio Ramos Rueda	
OIZ	Maria Zelaieta Saldias	
ORONOZ	Sagrario Etxandi Uterga	
SUNBILLA	Alberto Arretxea Bertiz	
URROZ	Josefa Etxegia Telletxea	
ZUBIETA	Julia Uhalde Indakoetxea	



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Aralar aldera bisitan

Arkupeak-eko 173 bazkide Aralar aldean ibili ziren uztailaren 26an. Hiru autobus eta taxi batean joan ziren eta bi autobusetan eta taxian joandakoek Leitzako Peruharri museoa bisitatu zuten eta gainerakoek Astizko Mendukilo leizeak. Gero Aralarren bildu ziren denak. Jesus Sotilek eskainitako meza entzun ondorengo, denek elkarrekin bazkaldu zuten. Etxerako bidea hartu aitzinetik dantzaldia ere izan zuten.

hiago ere eskainiko dira urritik aitzinera.

Hitzaldiak doan izanen dira eta ikastaroen-

gatik 30, 20 edo 10 euro ordaindu beharko dira.

## ITUREN

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

# Bederatzi ikasle berrik hasiko dute ikasturtea asteazken honetan

Guztira 54 ikasle eta 8 irakasle izanen dira

## Arkaitz MINDEGIA

Akitzean daude udako oporrak eta neska-mutikoei eskolarako bidea hartzeko tenorea ailegatu zaie. Asteazken honetan, irailak 5, hasiko dute ikasturte berria.

Aurten lehenbiziko aldiz eskolara joanen direnak bederatzi dira, horietako zazpi 3 urtekoak eta bertze biak 4 urtekoak. 3 urtekoak hauek dira: Iñaki, Lur, Aneu, Rafael Florin, Ander, Peru eta Asier. 4 urtekoak, berriz, Candela eta Aihen dira.

Guztira 54 ikasle eta zortzi irakasle izanen

dira ikasturte honetan Pulunpa eskolan.

## Lapurretak

Gure herri inguruetan lapurrak dabilzala sumatua genuen eta Aurtitzera ere bisita egin dute. Aurtizko elkarrean, leihotik sartu eta dirua eta telebista eramantuzte. Beraz, kontuz bisitari hauekin.

## Trikitixa eta pandereta ikastaroa

Bertze urte batez, Mendaur trikitixa eskolak martxan jarri du trikitixa eta pandereta ikastaroan apuntatzeko epea. Ikastaroa urritik maiatzara izanen da eta apuntatzeko 646 298568 telefonora deitu beharko da irailaren 3tik 20ra bitarte.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Lau anaiak Mendaurren

Beraien bizitzetako urte luzeetan, goizero bere gerizpean jeikitzean eta hainbertze aldiz bere gailurra hanka azpian edukitzean, izugarrizko lotura sortu zaie Joxe (84 urte), Juanito (81 urte), Beñardo (79 urte) eta Xegundori (76 urte) Mendaurrekiko. Ba abuztuaren 11ko beroari aurre hartuz, eguzkia atera aurretik abiatu ziren Mendaurko magalean gotti Etxeberriko bordako lau anaiak. Konturatu orduko ermitaren atea parez pare aurkitu zuten eta zerutik hain hurbil egonik ez zuten bertako adiskidearekin hitz batzuk elkartrukatzeko aukera galdu. Ea urte luzez errepikatzen den laukote!

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!  
Barris arazi taldea

**ANTZAZELAK**  
J.L.  
ZIN TARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel: 948 631 177 • Fax: 948 631 567  
Telefono erantsi: BERA  
www.antzazelak.com  
info@antzazelak.com

Antzazak, angelak, oina antzazak, lehoak, atzak, arkuak, pizanak, tximnariak, edazkak, moldurak, zokaloak, hamaiak, mazañak

**BEINTZAKO OSTATUA**  
Tel: 948 45 00 14  
www.beintzakostatua.com  
BERRITZAKO OSTATUA

**ORBELA**

**Kimetz**  
Belardenda

↑ ttipi txarritza

**%5eko DESKONTUA**  
kosmetikan

**HERMANDE TELEBISTA**  
HERRI

**ERAKUNTZA LANAK OIROKORREAN**

Zanberrietasunak, sukariak, komurak...  
Abitatzenak, lerrazak, garapak...

**HT BERA (Nafarroa)**  
670 064 744  
948 630 554  
zibertelebista@gmail.com

**zalain**  
INSTITUCIO ERREKONKORDA

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
t: 948 631 106  
w: www.zalain.com

**zalain**

**kulki**  
kultura bertan

**umeentzako kultur kirolak**

Tel: 948 552 177  
kulki@kulki.org  
www.kulki.org

UDALA → DEIALDIA

## Oihan aprobetxamendua saltzeko enkantea eginen du Udalak

Saroberri,  
Arrataburu,  
Aiaza, Amezti  
eta Isabelgo  
borda inguruko  
pinu, alertze  
eta izeiak dira

kubiko zur eta 882 me-  
tro kubiko enbor ttiki  
egiten dutenak. Hasie-  
rako prezioa 6.947 eu-  
rotan finkatu du Uda-  
lak, BEZ kontuan har-  
tu gabe.

Baldintzen orria udal  
idazkaritzan egonen da  
interesatuen eskura,  
eta han aurkeztu be-  
harko dira eskaintzak.

Iragarkia abuztua-  
ren 27an argitaratu zen  
Nafarroako Aldizkari  
Ofizialean eta bihara-  
mUNETIK hasi eta 20.  
egun naturalean akitu-  
ko da eskabideak aur-  
kezteko epea, 11:00-  
etan, irailaren 16an,  
alegia. Esleipena, be-  
rriz, hurrengo egunean  
eginen da, 13:00etan.

### Fermin ETXEKOLONEA

Oihan aprobetxa-  
mendu bat saltzeko en-  
kante publikoa eginen  
du Udalak. Lote baka-  
rra salduko du eta ho-  
rren barne Saroberri,  
Arrataburu, Aiaza,  
Amezti eta Isabelgo  
borda alderdietan  
6.255 *insignis* pinu,  
alertze eta *douglas* izei  
sartu ditu, 425 metro



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

### Festa herrikoiak eta partehartzaileak

Arbola altxatzearekin hasi eta botatzearekin akitu ziren aurten ere festak. Giro ede-  
rra izan zen eta egitarauan aurreikusitako guztia betetzeaz gain, herritarren boron-  
dateari esker programatik aparte ere hainbat ekitaldi egin ziren. Bezperan, adibidez,  
trikitilari eta panderojoleek kalejira egin zuten herria alaituz; bestetik, herriko fami-  
lia batek suzko-zezena atera zuen; eta azken egunean zaharren omenaldian 60  
urtetik gorako joaldunak joareak astintzera atera ziren. Alejandro Santestebanen  
ekimenez, 60 urtetik gorako hamar joaldun bildu ziren. Horrez gain, azken egunean,  
euskal dantzak ikasten ari direnek beraien saioa ere eskaini zuten. Beraz, festa  
herrikoiak izan dira eta herritarren borondatea azpimarratzekoa da. Horregatik  
guztiagatik denek merezi dituzte eskerrak. Txapelketei dagokienean, musean bi  
senar-emazte izan ziren finalistak eta azkenean, Martuzeneko Jabiartxo eta Maxux  
izan ziren garaile. Pentako Aintzane eta Pedrito azpitxapeldun gelditu ziren. Pla-  
ter tiroketan, Hilario Mutuberriak irabazi zuen eta tortilla lehiaketan Arantxa Diez  
nagusitu zen, Loreto laguntzaile zuela. Pilota txapelketan Urko eta Mikel izan zi-  
ren txapeldun, Ibai eta Imanolen kontra. Gainerakoan, haurren eguna ere oso egun  
polita atera zen. Prestatutako jokoetan ederki pasatu zuten haurrek eta haurren  
bazkaria ere arrakastatsua izan zen, 70 haur eta 30 guraso bildu zirelako. Gaine-  
ra, sobrantekin gauean afaria egin zuten. Gurasoen lana ere azpimarratzekoa da.  
80 urtetik gorakoei egindako omenaldian, gizonezkoei bastoia eta emakumezkoei  
larrosa oparitu zitzaizkien. Hamabi lagun hurbildu ziren eta egun polita atera zen.  
Goizean, beraien omeneg egin zen meza eta plazarako bidea txistulari eta joaldu-  
nen konpainian egin zuten. Gero, plazan, aurrekua dantzatu eta opariak banatu  
zitzaizkien. Honen harira, esan, 80 urtetik goitiko guztei abisatzerako orduan aka-  
tsak izan direla, zaila baita hain denbora gutxian denak topatzea. Dena den, falta  
direnrei oparia helarazten saiatuko dela adierazi du Udalak.

**elier**  
escuela imágen personal

- Matrikulazio epea zabalik
- Estetikako erdi eta goi mailako zikloak
- Ilapaindegiko erdi mailako zikloak
- Ilapaindegi eta estetikako oinarritzko ikastaroak

**IKASTARO BERRIAK:**

- Fisioterapeutak emandako ikastaroak:
  - Haurrentzako masaje ikastaroa
  - Oinarritzko patologia osteoartikularren ikastaroa
- Ikastaro desberdinak: aromaterapia, masajea, makilajajea...

Facebook eta Twitterren jarraitu gaitzazu

**INFORMATU ZAITEZ**  
943 013 627  
www.elier.eu | elier@elier.eu  
ADUANA 27 IRUN

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagarzuzungia jatetxea

Alasta Karrika  
BERA NAFARROA

**Javier Manterola**  
Tuberoa antolatzailea  
Burginza • gaur  
kalafaktas  
Tfno: 629449902 • BERA

## ELGORRIAGA

TXIRRINDULARITZA → BERAKO MIGUEL INDURAIN PROBA

# Manolo Ganboa herritarrak irabazi du Indurain proba

Berak bota zuen bestei hasiera eman zien suziria

## Martin LARRALDE

Uztailaren 21ean jokatu zen Berak Miguel Indurain izeneko txirrindulari proba eza-guna eta bi herritarrek hartu zuten parte: Martin Otxandorenak eta Manolo Ganboak. Parte hartu bakarrik ez, Manolo Ganboak irabazi egin baitzuen ibilbide luzeko proba eta horrek poza sortu zuen herrian.

Arratsalde hartan, auzolaneko bazkaria zela aprobetxatuz, herritarrak Ganboaren zain egon ziren zorionak emateko.

## BESTETAKO ALTXAFEROA

Garaipen horren ondotik, astebete beranduago bestak izandu ziren eta berak bota zuen bestei hasieran eman zien suziria, be-



ARGAZKIAK: GOIKO

Ezkerreko argazkian, Ganboa probaren antolatzaileentzako kide batekin eta Miguel Indurain berarekin ageri da, sari banaketa ekitaldian. Eskuinekoan, Ganboa sariz inguratua ikus daiteke.

ra izan zen ohorezko herritarra.

Lerro hauen bidez, zorionik beroenak eman nahi dizkiogu herritarren partetik. Se-

gi horrela mutil, egin-dako lanak bere fruitua ematen duela.

Beste aldetik, bestak aipatu ditugula, giro ederrean joan zirela

erran daiteke. Ekitaldi aunitz izandu ziren eta nahiko jende poliki ibili zen. Dagoeneko guttigo gelditzen da hurrengoetarako.

## MALERREKA

Traste haundiak ethez ethe dohainik biltzen direla oroitarazi du Mankomunitateak

## TTIPI-TTAPA

Etxean sortzen diren hondakinak ahalik eta egokien bideratzeko lanean segitzen du Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak. Horren harira, neurri handiko trasteak ethez-etxe biltzeko zerbitzua badela oroitarazi du Mankomunitateak, eta gainera, dohainik egiten dela. Etxe-tresna elektrikoak, altzariak, koltxoiak edo bertzelako traste haundiak biltzeko nahikoa da 672 045734ra deitzea eta etxera joaten dira bila, doan.

Bertzalde, etxeko konpostaren kanpainarekin ere aitzinera segitzen du. Ekainean 88 konpostontzi banatu zituen eta abuztuaren 31n akitu zen konpostagailuak eskatzeko berte epea. Urtea akitu baino lehen banatzea espero du.



## APARAN, S.A.

ERRINDOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate amuntak eta sukaike mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bamurako moleak eta osagariak
- KIT moleak: esku-erremintak, itabi



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

# M18 FUEL

DRIVEN TO OUTPERFORM.

## BigMat

MENDITXURI  
BANATZAILE OFIZIALA

POWERED BY  
**REDLITHIUM-ION™**

Zulagallu-ikatzarik gabeko teknologia duen Milwaukee 18 volt **FUEL** Zulogalluaren aurkezpenera gonbidatzen dizugu. Etorni etorkizuneko kablerik gabeko teknologia ezagutzera

## IRAILAK 21

ZATOZ ETA EGUN OSOAN PARTE HARTU:

- Zozketak
- Desafioak
- Erakustaldiak
- Eskaintzak
- Prezio bikainak

MENDITXURI - Leitzako errep. - DONEZTEBE - 948 450 305

*Milwaukee*

# LEGASA

OSPAKIZUNAK → BESTEN ONDOTIK

## Santa Leokadiko bestak ospatuko dira asteburu honetan

Larunbat ilunabarrean botako dute suziria

### TTIPI-TTAPA

Aurreko asteburuan herriko besten txanda izan ondotik, asteburu honetan Leokadiko baselizari dagokio bestaren lekuko izatea.

Larunbatean, irailak 8, 20:00etan suziria botako dute eta 21:00 alde horretan, zopak emanen dituzte baselizaren zelaian.

Igandean, berri, 11:00etan meza nagusia izanen da eta ondotik, bazkaria. Arratsal-

dean, akordeoi doinuek alaituko dute giroa.

### Haurrak berri eskolara

Udako oporrak akitu dira eta haurrei eskolara joateko tenorea ailegatu zaie. Ortzegun honetan, irailak 6, herriko neska mutikoak ikasturte berria hasiko dute. Aurten, lau haur berri hasiko dira eskolan: Xuban, Garazi, Manex eta Beñat, hain zuzen. Ikasturte honetan, hamabi haur egonen dire eskolan; aspaldiko urtetan ez dira hanbertze izan. Espero dugu egin diren murrizketek ikasturtea ez iluntzea.

AZPIEGITURA → UR HONDAKINAK

## Udazken honetan hasiko dira Legasa eta Narbarteko depuradora egiten

Premiazkotzat jo dute lehenbailehen egitea

### TTIPI-TTAPA

Nahitaezko desjabetzarekin bada ere, Nafarroako Gobernuak premiazkotzat jo du Le-

gasa eta Narbarteko ur hondakinak bilduko dituen depuradora egiteko ondasunak eta eskubideak okupatzea. Gisa honetara, 2013rako depuradora martxan eduki nahi du. Aixtondoko parajea eraikiko da depuradora berria, industria-gunean. Azken orduko aldake-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Elizako teilatuaren konponketa

Uda honetan elizako teilatua konpondu dute eta bidenabar, aurrekaldea garbitu eta pintatu dute. Itxura berria eman diote kanpandorreari eta erlojuari ere. Hilabete batez aritu dira iturginak eta baita herriko boluntario batzuk ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Panel informatiboak

Herrian barna egurrezko bi panel jarri ditu Udalak, informazio eta iragarkiak jartzeko. Panel hauek bi tokitan jarri dituzte: lehenengoa Herriko Etxean, Kuku elkartearen ondoan, eta bertzea plazan, elizaren ondoan.

tarik ez bada, depuradora egiteko lanak udazken honetan hasiko dira eta urtebeteko epea izanen dute akitzeko. Instalazioa martxan paratzen eta probak egiten bertze bi hilabete joanen direla aurreikusit dute. Bigarren fasean Oieregi eta Oronoz-Mugairi ere batuko dira proiektura.

Gobernuaren arabera, obrak lehenbailehen egitea «ezinbertzekoa» da «ingurumenaren aldetik gaur egungo hondakinen isuriak sortzen dituen arazoak ahalik eta azkarren konpontzeko». Nonbait, ez dira be-

har bezala garbitzen ur zikinak. Depuradora eta plantara lotuko dituzten bi kolektoreez gain, ponpaketarako putzua ere eraikiko da. Narbarteko ura 2.575 metroko kolektore batekin garraiatuko dute depuradora eta Legasakoa 150 metroko bertze batekin.

Lan hauek egiteko 2,37 milioi euroko aurrekontua onartu du Gobernuak. Horren %80 Nafarroako Gobernuak bideratuko du eta gainerako %20a nafarrek ordaintzen duten ur kano naren bidez, azken hau NILSA enpresa publikoak kudeatua.

Gaur egun, Legasa eta Narbarteko ur zikinak bi hobi septikotara bideratzen dira, eta behin depuradora martxan paratuta, bota egingen direla adierazi du Gobernuak.

### ANTZEKOA SUNBILLAN

Berriki antzeko depuradora bat eraiki du NILSAk Sunbillan, eta udaberri honetan paratu dute martxan. Hasieran, inguru honetarako depuradora bakarra egitea aurreikusit zuen NILSAk, baina Bidasoa ibaia maiz gurutzatu behar izateak bi proiektu egitera behartu zituen.



NEKAZARITZA → JABIER JUANABERRIA XUANKOREKIN SOLASEAN

# «Duela 30 urte 9.000 tomate landare saltzen genituen eta gaur egun 3.000»

Gaur egun, herriko tomate planta landatzen duten gutti gelditzen dira

## Martin BERTIZ

Kolore gorria eta itxura ederra, hori da gure baratzeetako erreginaren aurpegia. Uda-ko otorduetan eta herriko baratzeetan ederki dauka bere lekua hartua tomateak.

Gure herrian ere ohitura haundiko barazkia da eta erraza da edozein baratzetan begitu eta bere itzala ikustea. Denbora medio, hasia da zonaldeko bazterretan gure herriko tomateak ezagutzen, urte aunitz baitira jendea plantak erostera etorritzen dela.

Gaur egun, etxe pare bat gelditzen dira herriko tomate planta lantzen segitzen dutenak eta horietako bat Jabier Juanaberria *Xuan*ko da. Berekin solastu gara.

## • Noiztik zabilta tomate kontuetan?

Etxean betidanik ohitura izan da. Nire aitona landatzen zuen, gero nire aitak eta orain nik.

## • Zein da tomateak ekoizteko prozesua?

Lehenik hazi hobereak altxatzen dira, gero martxo aldera ilargia berapenean dagoenean erein. Maiatzaren 10 aldera plantak saltzen hasten gara eta etxeko

baratzean birlandatzen ditugu eta gustu haundiarekin zaintzen saiatzen gara.

## • Ofizioa ala afizioa da zuretako?

Duela hogeita hamar urte ofizioa zen, baina gaur egun afizioa da niretzat.

## • Zenbat landare saltzera iritsi zarete?

Duela hogeita hamar urte 9.000 landare saltzen genituen eta gaur egun 3.000 inguru.

## • Konpetentzia nabaritzen al da?

Bai, gaur egun no-nahi eros daitezke.

## • Noiz arte segituko duzu?

Bertze mundura joan arte segitu nahiko nuke.

## • Zer du Narbarteko tomateak bertzeek ez daukatena?

Dena ona daukala, eta gustu paregabea duela.

## • Akitzeko, tomateak jateko erarik hobere-na zein da zure ustez?

Ozpin, olio, gatza, tipula eta piper pixka batekin.



ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

Jabier Juanaberria *Xuan*ko etxeko tomateak eskuetan dituela ageri da goiko argazkian eta beheko argazkia bere baratzean egindakoa da.

**DISEÑOS Y HABITACIONES - RUSTICOLAS**

**TELLERÍA**

Kalitateko gitezen 700 m<sup>2</sup>ko erakuslekuak gaitu itzazgarriekin

- Herriko ingurua
- 5000 Hertz Trinkoa
- Elaprotelak
- Subsidioak
- Tsakakak

**KOLORE ETA ARABERA AUKERA HAUNDIA**

**BERRICPLANO (Bilbao) TEL. 948 30 33 04 - www.testelleria.com**

Egin zaituz **ttipi-ttapa**ren harpidedun

(0034) 948 63 54 58

# EZKURRA

UDALA → EGURRA

## Egur loteak prest daudela jakinarazi du Udalak

Zortzi tona banatuko dira eta bi urtetarako izanen da

Aurten etxeraino eramanen da egurra

### Fernando ETXEBERRIA

Udalak etxeetara bidalitako oharrean dioenez, prest daude egur loteak eta interesa duten guztiak udaletxera jo dezakete edo beste-

la hara deitu.

Aurten zuzenean etxeetaraino eramanen du Udalak egurra eta bi urtetarako balioko du, zortzi tona direlako. 120 euro kostako da egur lotea eta urte bukaeran kobratuko dute.

### Herriko jaiak

Krisi larri hau ahaztuz, aurtengo festak bost egunez izan dira eta tarte horretan, musika taldeen emanaldiak, aizkora apustuak, pilota partidak, herri kirolak eta herri bazkari animatua izan dira, azken hau Joxeanjel musikariak alaitua. Beste behin ere Cipriano, Julian eta Pellok zuzendutako boluntarioen lana nabarmentzeko da. Beraiei esker egiten baitira aizkora apustuak, pilota partidak eta herri kirolak. Argazkiari begiratu besterik ez da egin behar edozein saioaren ondotik zeinen azkar garbitzen duten konturatzeko. Herritar guztien txaloak eta esker onak merezi dituzte. Jose Luisen gidaritzapean herri bazkaria prestatu eta zerbitzatzen duten boluntarioek ere aipamen berezia merezi dute. Bestalde, abuztuaren 17arekin, hamabi bikote aurkeztu ziren urteroko mus txapelketara. Cipriano Telletxea eta Migel Elizalde osatutako bikoteak irabazi zuen, eta Joseba Telletxea eta Cristobal Zabaleta gelditu ziren bigarren. Hirugarren postua Jose Luis Gorostiaga eta Migel Telletxearentzat izan zen eta laugarrena Jose Maria Elizalde eta Bautista Mariezkurrenarentzat.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

## inprenta lanak egiten ditugu ideiatik hasi eta etxean izan arte

 ttipi-ttapa



Eskatu  
Informazioa  
948 63 54 58  
kulturkan@ttipi.net

  
Dieta txartelak / egutegiak  
1.000 ale → 85€  
300 g. / 20 g. / 20 g.

  
Solotoak / errifoi  
8.000 ale → 160€  
300 g. / 20 g. / 20 g.

  
Fakturak / orriak  
1.000 A4 → 86€  
300 g. / 20 g. / 20 g.

  
Kartabakiak  
1.000 ale → 107€  
300 g. / 20 g. / 20 g.

# BEINTZA-LABAIEN



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Mus txapelketako irabazleak, alkatea erdian dutela.

**OSPAKIZUNAK → AKITU DIRA UDAKO BESTAK**

## Udako ekitaldien ondotik urriruko bestaren zain gelditu dira herritarrak

Bestak akituta ekitaldi gehiago izan dira

taldi hurrengo asteburuetarako gelditu ziren.

Besten hurrengo larunbatean, esaterako, plater tiroketa txapelketa jokatu zen Gora mendian eta Xubiteneko Karlos Etxeberria izan zen garaile.

### TTIPI-TTAPA

Bestak akitu eta nonbait aski ez, zenbait eki-



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

### Giro ederrean bestak

Bortz egunetik laura murriztu arren, besta ederrak joan dira, ekitaldiz beteak eta giro politean. Aizkora apusturik ere ez zen falta izan eta astelehenarekin herritarren artean jokatu zuten lehia oso polita izan zen. Herri bazkaria ere jendetsua izan zen. Aizkolari profesionalen saioek ere jende andana bilduarazi zuten, eta tartean, Mindegia eta Larretxeari omenaldi tiki bat ere egin zitzairen.

Abuztuaren 18an, berriz, mus txapelketa jokatu zen Herriko Ostatuan eta honetan, Txispeko Joxe Albistur eta Plazeneko Joxe Bertiz

izan ziren irabazleak.

Uda honetako bestak joan dira, baina urrian berriz izanen da besta ederra egiteko aukera, aretze jatearekin.

Gainera, Euskal Herriko Harri Jasotzeko Txapelketa jokatu da egun horretan, eta ohitura den bezala aizkora apustua ere bai.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**UDAKO MERKEALDIA**  
Irailaren 15era arte

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · mairidireak · mantelak · kuxmak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑA · 948 230 634

# ERATSUN

HERRIKO FESTAK → IRAILAREN 6TIK 9RA

## Tortilla lehiaketa eta sagardo dastaketa izanen dira Amabirjin besten hondar egunean

Larunbatean aizkora apustua eta herri bazkaria

### TTIPI-TTAPA

Irailarekin batera, Eratsungo Amabirjinaren festak ospatuko dira irailaren 6tik 9ra, beti bezala egitarau zabalarekin.

### OSTEGUNA, IRAILAK 6

- 20:00etan txupinazoa.
- 21:00etan Baztan Zopak jatea.
- Ondoren FRANTZISKO akordeoilariarekin dantzaldia.

### OSTIRALA, IRAILAK 7

- 10:00etan txistulariekin kalejira herrian barna.
- 11:00etan mus txapelketa. Bikote txapelduak bildots bana eskuratuko du, bigarrenak

bina txuleta eta bina botilar do eta hirugarren bikoteak bina txuleta.

- 13:00etan luntxa.
- 16:00etan umeentzako jokoak.
- 18:00etan pilota partidak. Alde batetik, lau t'erdian Zamora eta Astiz jubenilak ariko dira eta bestetik, afizionatuetan, Rekalde eta Tabar, Ansotegi eta Azanzaren kontra.
- Arratsaldeaz eta gauetz, dantzaldia MODESTOrekin.

### LARUNBATA, IRAILAK 8

- 10:00etan txistulariekin kalejira herrian barna.
- 11:00etan Meza Nagusia Lokariko Amabirjinaren omenez.
- 12:00etan aizkora apustua. Batetik, Eratsun eta Telletxea eta bestetik, Etxeberria eta Saralegi ariko dira.



ARGAZKIA: MAITE TELLETXEA

Besten azken egunean tortilla lehiaketa izanen da aurten ere.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Mus txapelketak ikusmina piztuko du aurtengoan ere.


- 14:00etan herri bazkaria.
- 18:00etan Doneztebeko dantzarien saioa.
- Arratsaldeaz eta gauetz dantzaldia MODESTOrekin.

### IGANDEA, IRAILAK 9

- 10:00etan txistulariekin kalejira.

- Goizez eta arratsaldeaz umeentzako puzgarriak.
- 12:00etan patata tortilla lehiaketa eta sagardo dastaketa. Irabazlearentzat bi afari.
- Bidenabar, Zubietako joaldunak.
- 13:00etan umeen bazkaria.
- 18:00etan afiziona-

- tuen arteko pilota partidak. Lau t'erdian Loban eta Olano ariko dira eta binaka, Garralda eta Linzoain, Ioldi eta Pazosen aurka.
- 20:00etan Oiartzungo Ane, Irati eta Joxe Leon abeslarien saioa.
- Ondoren dantzaldia MODESTOrekin.



**500 91 €**  
bisita txartel

100 txartel 70€

250 txartel 85€

1000 txartel 112€

Anduezteta, 12 | ETXALAR | 948635456 | Kartulina berezia 400gr. • koloretan bi aldeetatik • BEZ. berria

HERRIKO BESTAK → IRAILAREN 7TIK 10ERA OSPATUKO DIRA

# Gazteen laxoa txapelketako partida jokatu da bestetako igandean

Herriko gazteek Doneztebe A taldea izanen dute aurkari

## TTIPI-TTAPA

Lau egunez musika, otorduak, herri kirol saioak nahiz pilota partidak ikusteko aukera eskantz, besta ederrak pasatzeko ekitaldiak prestatu dituzte Oizen. Irailaren 7an hasi eta 10ean akituko dira.

## ORTZIRALA, IRAILAK 7

- 20:00etan altxaferoak bestei hasiera emateko.
- Ondotik Doneztebeko txistulariak herrian barna ibiliko dira.
- 21:00etatik aitzinera Zopak izanen dira Herriko Ostatuan.
- Gaeuz dantzaldia FRANTZISKO akordeoilariarekin.

## LARUNBATA, IRAILAK 8

- 11:00etan Meza Nagusia.
- Ondotik luntxa Herriko Ostatuan.

- 11:30ean mus txapelketa herriko elkartean.
- 18:00etan aizkora apustua: Jose Antonio Loiarte eta Raul Kastro alde batetik, eta Tito Etxeberria eta Xabier Mindegia bertzetik.
- Arratsaldean eta gaeuz dantzaldia AIERRIK taldearekin.

## IGANDEA, IRAILAK 9

- 10:30ean gazteen laxoa txapelketako partida, Oiz eta Doneztebe Aren artean.
- Segidan esku pilota partidak gaztetxoan eta afizionatuen artean.
- 11:00etatik aitzinera herriko artisauen erakusketa.
- 17:00etan haurren jokoak plazan.
- Jokoak akituta, haurren eta helduen txokolatea.
- 19:30ean herritarreko arteko IX. patata tortilla lehiaketa.
- Ondotik, tortilla, xingarra, txistorra eta gazta dastatzea.
- Arratsaldean eta gaeuz dantzaldia FRANTZISKO akordeoilariarekin.



ARGAZKIAK: ALBERTO SAN MIGEL

Herritar guztiek izanen dute bestetan ongi pasatzeko aukera.

## ASTELEHENA, IRAILAK 10

- 11:00etan herritarren artean herri kirolak, gazte eta helduen artean.
- 14:00etan herri bazkaria Sustrai Colina eta Julio Soto bertsolariekin.
- 17:00etan toka eta sokatira lehia herritarren artean.
- Arratsaldean eta gaeuz dantzaldia AGERRAL-

DE akordeoilariarekin.  
• Beste bukaera emateko, kalejira herrian barna eta eta GAIXOANI.

## OHARRA

Bestetan gerta daitezkeen arazoez herria ez dela arduratuko jakinarazi du Udalak.

www.posadaoitz.com

**EZPELURA ITURGINTZA S.L.**  
Kalifikazio • Gasa  
Elektrizitatea • Eguzki plakak  
Zoru bero emailoa  
Tfno.: 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

**udana** salazones  
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztuta  
Bakailu gaztuta eta kongelaturia, erabiltzeko prestatu  
Kale Nagusia no. 8 - Barrena, 8 - 23. poligono - LESABA - Tfno: 948 631 536 - Fax: 948 631 600

## GIZARTEA

ARTZAIN EGUNA → NAFARROA MAILAKO LEHIAKETA

# Antonio Alustiza aresoarrak 13. txapela jantzi du Artzain Zakur Txapelketan

‘Ttiki’ zakurrekin zazpigarren aldiz jarraian irabazi du

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Artzain Zakur Txapelketaren 45. edizioa jokatu zen abuztuaren 26an Uharteko Arakilen eta Antonio Alustiza aresoarrak eta *Ttiki* bere zakurrak ez zuten hutsik egin.

Zazpi artzain aritu ziren lehian hamar zakurrekin eta tartean ziren eskualdekoak ere: Antonio Alustiza aresoarra *Ttiki* eta *Bat* zakurrekin, Joxe Mari Ixtilart amaiurtarra *Lagun* eta *Bizkor* zakurrekin, Jorge Oteiza oronoz-mugairiarra eta *Azeri* eta Pedro Ansa aranoarra eta *Alaiz* zakurra. Guztien artean, azken urteetan jaun eta jabe den Antonio Alustiza aresoarra atera zen garaile. Nafarroako bere hamahirugarren txapela jantzi zuen, zazpigarren aldiz *Ttiki* zakurrekin irabazita. Are gehiago, bederatzialdiz jarraian irabazi du aresoarrak. 2004an eta 2005ean *Argi* zakurrekin irabazi zuen, eta geroztik *Ttiki*-rekin. Gainera, azken garaipen honi eskertxapelketa gehien irabazi duen artzain zakurra bilakatu da.

Bigarren postua ere eskualdera etorri zen, Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza eta *Azeri* bere zakurrentzat izan baitzen. Hirugarren pos-

tua Etxarri-Aranazko Jesus Errazkin eta *Neska*-rentzat izan zen eta laugarren, bosgarren eta seigarren postuak ere eskualdera etorri ziren, baita zortzigarrena ere: laugarren postua Joxe Mari Ixtilart amaiurtarra eta *Lagun* zakurrentzat izan zen, bosgarrena Antonio Alustiza aresoarra eta *Bat* zakurrentzat, seigarrena Pedro Ansa aranoarra eta *Alaiz* bere zakurrentzat eta zortzigarrena Jose Mari Ixtilart eta *Bizkor* zakurrentzat. Txapelketan parte hartu zuten bertze artzainak Antonio Huarte (*Lagun* eta *Argi* zakurrekin, zazpigarren eta bederatzigarren) eta Javier Fernandez (*Lunarekin* hamargarren) izan ziren.

Bertzelako sariak ere izan ziren Uharteko Arakilen. Ansak, erraterako, hobekien jantzitako artzainaren saria jaso zuen. Arraza hoberenaren bigarren saria, berriz, Amaiurko Ixtilarten *Lagun* zakurrak eskuratu zuen.

## BERTZELAKO SARIAK

Uharteko Arakilgo Artzain Egunaren barne, bertze hainbat lehiaketa ere egin ziren eta sarituetako aunitz eskualdekoak izan ziren.



## DATUA

9

## TXAPEL

irabazi ditu jarraian Antonio Alustiza aresoarrak, lehen biak *Argi* zakurrekin eta gainerako zazpiak *Ttiki*-rekin.

Ardi latxaren lehiaketa morfologikoan, mutur zuriko ardietan Iturengo Isidro Bazterrika nagusitu zen, eta bildotsen mutur beltzeko kategorian Arizkungo Irigoien Rekartek irabazi zuen.

Ardi latxaren esneki errendimenduaren lehiaketan, 2 urtetik goitiko mutur zuriko ardietan, Urdazubiko Xabier Bengoetxeak irabazi zuen. Eta 2 urtetik be-



ARGAZKIAK: ARALAR MENDI ELKARTEA

Goiko argazkian, Artzain Zakur Txapelketan parte hartu zuten artzainak eta zakurrak antolatzaileekin ageri dira, sari banaketaren ondotik. Behekoan, berriz, Pedro Ansa aranoarra ageri da. Aurten ere hobekien jantzitako artzainaren saria eskuratu du.

heitikoetan, mutur beltzen kategorian, Elizondoko Maria Jesus Larratxea nagusitu zen eta mutur zurikoetan Azpiltan, Urdazubiko Xabier Bengoetxeak irabazi zuen. Ardi latxaren esneare-

kin egindako gazta lehiaketan ere izan ziren eskualdeko sarituak: Urdazubiko Manuel Bengoetxea bigarren izan zen eta Leitzako Jose Jabier Sestorain bosgarren.



# SOULE

hileta artea

Tfnoa: 948 453 444

Mug.: 629 659 583

ARIZKUN



EGURALDIA → TENPERATURA ALTUAK

# Aspaldiko hilabeterik beroena izan da abuztua

## TTIPI-TTAPA

Joan den urteko abuztua bezala hilabete beroa izan da aurtengoa ere. Baina are bero haundiagoa egin du aurten, termometroetan datu historikoak ikusi baitira. Iaz abuztuaren 20a izan zen hilabeteko egunik beroena, tenperatura 40 gradutara igo baitzen. Aurten, berriz, zenbait tokitan 42 gradutara igo zen abuztuaren 17an.

Eskualdean dauden estazio meteorologikoen arabera, abuztuaren 17an Irurita eta Lesakan neurtu ziren tenperaturarik altuenak, 42 gradukoak. Doneztebeko estazio automatikoan ere hurbil ibili zen tenperatura, 41,9 gradu neurtu baitziren. Gainerakoetan ere tenperatura altuak ikusi ziren.

Media historikoak ere gainditu dituzte abuztuko tenperatura maximoek. Doneztebeko estazio meteorologikoan, erraterako, tenperatura maximoaren abuztuko batezbertzeko historikoa 26,9 gradukoa zen eta aurtengo abuztuan 30,6 gradukoa izan da batezbertzeko maximoa. Gorramendin, abuztuko batezbertzeko tenperatura maximo historikoa 18,5 gradukoa zen eta aurtengo abuztuko batezbertzekoa 22,5 gradukoa izan da.

## PREZIPITAZIOA

Euria ere nekez egin du. Donezteben, abuztuko batezbertzeko historikoa 69 l/m<sup>2</sup> euri egitea zen eta aurtengo abuztuko batezbertzekoa 29,6 l/m<sup>2</sup>koa izan da.

AUTOMATIKOAK	ABUZTUAK 9	ABUZTUAK 10	ABUZTUAK 17	ABUZTUAK 18
Doneztebe	39 °C	40,7 °C	41,8 °C	39,2 °C
Gorramendi	28,9 °C	31,3 °C	33,6 °C	31,7 °C
ESKUZKOAK				
Amaiur	35,5 °C	38 °C	39 °C	35 °C
Areso	35,5 °C	37,5 °C	37 °C	37,5 °C
Arizkun	36 °C	39 °C	40 °C	37 °C
Artikutza	34 °C	35 °C	36,5 °C	-
Bera	37 °C	39,5 °C	41 °C	-
Bertiz	37 °C	40 °C	41 °C	40 °C
Arranbide	35 °C	39 °C	38 °C	31 °C
Doneztebe	38 °C	40 °C	40 °C	38 °C
Etxalar	35 °C	36 °C	-	-
Goizueta	37 °C	40 °C	40 °C	31,5 °C
Irurita	38 °C	41 °C	42 °C	41 °C
Leitza	33 °C	35,5 °C	35 °C	35 °C
Lesaka	39 °C	40 °C	42 °C	32 °C
San Anton	34,5 °C	36 °C	37,5 °C	29 °C



ARGAZKIA: ISIDRO ETXEBERRIA

Domikoko presa, Lesakan, normalean goraino betea egoten da eta orain erabat agortua dago.

Gorramendin abuztuko prezipitazioaren batezbertzeko historikoa 128,8 l/m<sup>2</sup>koa zen eta aurtengo abuztuko 54,6 l/m<sup>2</sup>koa izan da.

GRUPO TANATORIO TALDEA

# IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEKUNBIERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU  
 DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BASTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUNA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
 - LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

# ARESO

KIROLA → KIROL MANKOMUNITATEAREN PROPOSAMENA

## Umeentzako psikomotrizitatea eta multikirola eta helduentzat gimnasia ikastaroak eskaini nahi dituzte

Izen-ematea irailaren 12tik 27ra bitarte egin beharko da

### Juana Mari SAIZAR

Denboraldi berria prestatzeari ekin dio Kirol Mankomunitateak eta aldi berean, urritik aurrera eskainiko dituen ikastaroen berri eman du. Gure herriko kasuan, umeentzako bi ikastaro eskaini nahi dira ikasturte berrian: alde batetik, 3tik 5 urte bitarteko umeendako psikomotrizitatea. Ostiralean izanen litzateke, 16:30etik 17:45era eta hiruhileko prezioa 25 eurokoa izanen litzateke. Ikastaroa aurrera ateratzeko gutxienez zortzi haur behar dira.

Bestetik, multikirola ere proposatu du Mankomunitateak 6 eta 9 urte bitarteko neska-mutikoentzako. Asteleheneretan izanen litzateke, 16:30etik 17:30era eta hiruhileko 20 euro or-

dainduta. Kasu honetan ere gutxienez zortzi haurrek eman beharko lukete izena.

Helduen kasuan, gimnasiako ikastaroa atera nahi da aurrera, asteleheneretan 18:00etatik 19:00etara egiteko. Hiruhileko prezioa 32 eurokoa izanen litzateke, eta gutxienez zortzi lagun apuntatzea beharrezkoa da.

Ikastaroak urriaren 1ean hasiko dira baina izen-ematea irailaren 12tik 27ra egin beharko da udaletxean, bulego ordutegian.

### Antonio Alustiza eta 'Ttiki' berriz ere nagusi

Abuztuaren 26an Uharteko Arakilen egin zen Artzain Egunean, Antonio Alustizak lehenengo postua lortu zuen *Ttiki* bere txakurrekin Nafarroako Artzain Txakur Txapelketan. Gisa honetara, zazpigarren txapela lortu du txakur honekin eta guztira, berriz,



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

### Gorka Arraiago hirugarren izan da Euskal Herriko Gazteen Trikitixa Txapelketan

Gorka Arraiago Aresoko trikitilariak Zeanurin abuztuaren 15ean egin zen Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketan parte hartu zuen Irati Irurtzun zizurkildarrarekin eta honek eskuetan pandereta zuela, hirugarren postua lortu zuten. Zorionak!

hamahirugarren txapela du hau eta jarraian irabazi duen bederatzigarrena.

Bestalde, *Bat* beste txakurrekin bosgarren postua lortu zuen. Zorionak berari eta bi txakurrei!

### Anartz Olano finalez final

Joan den abuztuaren 26an Anartz Olano pilotariak Antiguoko finala (Gipuzkoa) jokatu zuen Cordon lagun zuela eta azpitxapeladun geratu ziren, 22-16 galdu zutelako Labaka eta Elustondoren aurka.

Aste honetan, berriz, irailaren 6an, beste final bat jokatu du Zestoan (Gipuzkoa) egindako Pibeten memorialean. Ander Imaz lagun duela Larrañaga eta Erostarberen aurka arituko da. Ea zortea edukitzen duen.



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

### Asier Pellejero bi finaletan ariko da

Abuztuko azken asteburua borobila izan zen Asier Pellejero aizkolariarentzat. Abuztuaren 25ean Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketako hirugarren eta azken kanporaketan parte hartu zuen Lakuntzan, eta kanporaketako denborarik onena eginez, finalera sailkatzea lortu zuen. Beraz, azaroaren 11n Aldatzen (Nafarroa) jokatu den Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketako finalean izanen da. Biharamunean, berriz, II. Mailako Nafarroako finaleko sailkatzea lortu zuen Gorritin jokatu zen lehian. Final hau Donezteben jokatu du azaroaren 16an.

**ttipi-ttapa**

aldizkari eberrak bidaltzea nahi baduzu,  
diatza telefonozko Fonestara:

(0034) 948 63 54 58 - www.ttipi.net

- Hego Euskal Herria 2012
- Europa 2012
- Bostan, Muzikarria
- Muzikarria 2012
- Amerika eta Australia 2012
- Ipur Euskal Herria 2012
- Labak 2012





OSPAKIZUNAK → UMEEN GOZAMENERAKO

# Globo aerostatikoa ekarriko dute larunbat honetan Iskibi kanpinera

Bezperan *Bertsolari* filma ikusteko aukera izanen da kanpinean

ko dute kanpinean, eta pelikularen zuzendaria den Asier Altuna ere gure herrian izanen da, filmaren ondotik edozein galderari erantzuteko prest. 22:30ean eskainiko dute.

**TTIPI-TTAPA**

Iskibi kanpineko denboraldiak aurrera jarraitzen du eta hilabete honetarako ekitaldi bat baino gehiago prestatu dituzte. Urteko festen artean, gero eta indar haundiagoa hartzen ari den Euskal Jaia irailaren 23an izanen da eta honen inguruko xehetasunak hurrengo aldizkarian aipatuko ditugu. Hori baino lehen, ostiral honetan, irailak 7, *Bertsolari* filma eskaini-

Larunbatean, berriz, globo aerostatiko bat ekarriko dute kanpinera neska-mutikoak ibil daitezzen. Azken bi urteetan ekarri ez badute ere, lehenagotik ekarri izan dute globoa kanpinera, umeen gozamenerako. Larunbat honetan, irailak 8, Iskibi globo aerostatiko batean ibiltzeko aukera izanen den laugarren aldia da. 17:00etatik aurrera paratuko dute martxan.



ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA

## Urteroko hitzordua Artikutzan

Ohiturari hutsik egin gabe, aurten ere herritar asko elkartu zen San Agustin egunean Artikutzan. Giro ederrean, egunpasa polita atera zen.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

## Festa ederrak izan dira aurtengoak ere

Abuztuaren 12ko Haurren Egunean Irumaita txarangak egindako harat honaten ondotik, Amabirjin bezperan Umore Ona Elkartek ordezkariek botatako txupinazoak eta Gazte Egunak festa lehertu zuen herrian. Bost egunez giro ederra izan zen: Amabirjin egunean Aimar Olaizolak merezitako omenaldia jaso zuen. Baina pilotariak ere eskerrak eman nahi izan zizkion herriari eta eskuz banakako txapelketako azken txapela opari eman zion Herriko Etxeari, kristalezko koadro dotore batean sartua. Abuztuaren 16an, sagardoa dastatzeko aukeraz gain, zezenak, toka txapelketa eta profesionalen arteko pilota partida izan ziren, besteak beste. Ostiraletik aurten berrikuntza izan den bakailao lehiaketa aipa daiteke, edo Umore Onako dantzarien saioa ere bai, noski. Peñaren Egunean, eguerdiko pilota partiden ondotik, peñaren bazkaria etorri zen eta ondotik, peñaren irteera... Hortik aurrerakoak argazkietan hobeki ikusten dira. Laburbilduz, giro ederra aurtengo festetan ere.

**ttipi-ttapa**

Inprenta lanak egiten ditugu  
idelatik hasi eta etxean izan arte.

**1.000 ale → 85€**

**1.000 A4 → 86€**

948 63 54 58  
kulturrari@ttipi.net

# LEITZA

NEKAZARITZA → NAFARROAKO GOBERNUARI ESKAERA

## Nekazal Ganbaran langile bat modu iraunkorrean egon dadin eskatu dio Udalak Gobernuari

Bildu eta UPN-ren botoekin mozioa onartu du Udalak

### JM BARRIOLA

Nekazaritza Ganbarak Leitza duen bulegoko langilea jubilatuegin zen joan zen apirilaren. Geroztik ematen den zerbitzua ez da behar den moduan betetzen, astean behin, asteazkenean, etortzen baita langile bat ordu batzuk egitera. Baldintza hauetan ezin zaie behar den zerbitzua eman gure herriko eta inguruetak abeltzain eta nekazari.

Gurea bezalako herri batean, abeltzainek eta nekazariak garrantzi handia dute bai ekonomiko ki eta bai gure ingurumena orekatua mantentzeko ere. Hau dela eta, Udalak mozio bat aurrera atera zuen Bildu eta UPNren aldeko botoekin eta DNEren aurkako botoarekin. Horren arabera, lehen sektorea egoera larrian dago asfaltatik eta Nekazaritza Ganbaran langile bat modu iraunkorrean eta zerbitzu osoa ematen aritzea beharrezkoa dela eta, Nafarroako Gobernuari Nekazaritza Ganbararen zerbitzua bere osotasunean mantentzeko eskatu zaio eta Leitza bulegoan langile bat lanaldi osoan aritzea.

### Helikopteroa

Pasa diren pestak oso giro ederrean joan zizkizkigun, bero haundiarekin gainera. Egunez jende asko ibili zen zeuden ekintza guztietan parte hartuz, eta gauetan jentsiera pixka bat nabaritu zen arren, jende ugari ibili zen, bai herritarrek eta bai bisitariak ere.

Aurten, astelehena-rekin, 13an, gauza berezi bat ere izan genuen herrian proba moduan, gure inguruak airez ezagutzeko aukera bikaina, hain zuzen. Helikoptero bat ibili zen inguruarteko zelaiko helipuertotik itzuliak eginez. 10:00etatik 19:00 arte gelditu gabe ibili zen eta 70etik gora bezero izan zituen hegaldietan. Aitzol Apalantza gidariaren eskutik eskaini zen zerbitzua eta Udalak behar zituen baimenak eta gestioak egin zituen. Hiru lagunekin hamar minutuko hegaldiak egin zituen 60 euroko prezioarekin. Aurrerantzean berri horrelako ekintzarik eginen duten ikusiko dute orain.

### Udako mendi garbiketak

Urtero bezala, mendiko garbiketak lanak esleitu zituen Udalak. Lan hauek beharrezkoak izaten dira landatutako eremuetan zuhaitzek etorkizuna izan dezaten, eta



ARGAZKIA: PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOA

### Talo Eguna igandean

Berriz ere taloa izanen da protagonista nagusia, igande honetan, irailak 9, zazpi-garren aldiz eginen den Taloaren Egunean. Eguerdi artean, herriko talogileak lanean ariko dira plazan, Villabonatar eta Saralegitarren koadrilak, hain zuzen. Herriko jatetxeek artoarekin egindako taloen platerak erakusgai ere jarriko dituzte. Artisau azokak, herri kirolek eta erakusketek osatuko dute jaia. Herri kirol saioan, Euskal Herriko gizonezkoen txinga eramate txapelketa tokatuko da eta bost kirolari ariko dira lehian 50 kiloko txinga pare eramanen. Ondoren, emakumezkoen Nafarroako trontza txapelketa jokatu dute hiru bikoteek. Biltartean, talo tailerrak eta gurdian umeentzat itzuliak izanen dira herritik. Bestalde, 12:00 baino lehen izena ematen duenak talo lehiaketan parte hartzeko aukera izanen du. Sariak 100, 50 eta 25 eurokoak izanen dira.



ARGAZKIA: JUAN MARI BARRIOLA

### Leihoak hautsi dituzte Ixkibarren

Ixkibarko Guardiaetxeko lehiotako kristalak hautsi dituzte pestetan eta 224 euroko kaltea sortu dute herritar guztiei kalte nabarmena eraginez. Udalak Guardiaetxea garbitu eta txukundu zuen 2009an, Ixkibar osoa txukuntzeko planarekin batera, ate eta leiho berriak jarri zituen etxean, jendearentzat mendiko aterpea izateko asmoz. Orain, etxe barrua osatu nahi du herritar eta bisitariarentzat erabilgarria izan dadin. Guztion artean zaindu beharko guke guztiontzat erabilgarria izanen dena.

normalean, lau edo bost urtetan garbitu behar dira sasiak eta istorrak landareei kalterik ez egiteko. Uda honetan garbitutako eremuak hauek dira: Urdiñolan 36,72 Ha, Itzaiden 1,55 Ha, Trunkadan 1,4 Ha, Larbadin 1,1 eta ondoren, Sagar-miako hariztian 5,20 Ha. Eskaintzarik merkeena

Imanol Mendilanak enpresak aurkeztu zuen 17.259,36 eurotan (hasierako aurrekontua 20.231 eurokoa zen).

### Euskal Herriko Historialarien Biltzarra

Larunbat honetan, irailak 8, Euskal Herriko

Historialarien III. Biltzarren mintegi bat egiten da herriko zineman eta *Gaizkileen muga* izanen da landuko den gaia. Honen inguruko xehetasun gehiago aldizkariko 4. eta 5. orrialdeetan aurkituko duzue.

Mintegian parte hartzeko aurretik eman behar da izena.

UDAKO ERREPASOA → HAINBAT EKITALDI IZAN DIRA

## Aspaldiko festarik jendetsuenak izan dira aurtengoak

Festetan lanean aritu direnekin afaria egingo da

### Ainhoa ANSA

Udako egun hauetan festa bat baino gehiago izan da herrian. Santioak ongi pasatu ziren. Karpa izan zen berrikuntza eta bertan antolatutako ekitaldiek jende asko bildu zuten. Beste berrikuntza, oso jendetsua izan zena, arkume jatea izan zen. 190 bat lagun bildu ziren bazkaltzera eta denak aseta eta pozik gelditu ziren jasotakoarekin. Arkumea, goiz guztian erretzen aritu zirena, xa-

mur eta ongi errea, bertako baratzetako produktuak erabiliz egindako entsaladak aurretik eta bertako bi base-ritako gazta eta sagar gozoa atzetik. Kafea, kopa eta purua ere bai bazkaria bukatzeko eta bertso zahar eta berriek girotutako arratsaldea atzetik.

Inoiz baino jende gehiago izan zen lanerako eta aspaldian baino jende gehiago bertaratu zen festetara. Horregatik, festen batzordeak balorazio oso baikorra egin duela bistan da. Hau eta beste kontu batzuk erreparatzeko eta kontuak egiteko, afari bat eginenez, lanean modu batera edo bestera ibili zi-



ARGAZKIAK: AINHOA ANSA

Festetako berrikuntza bat karpa izan da eta oso erantzun ona izan du jendearen aldetik.

renekin elkartzeko asmoa dago eta eguna jarritz ohar bat zabalduko dute luze baino lehen.

San Juan, San Joakin eta Santa Anaz gain, San Rokerena ere

aspalditik ospatzen den eguna da. Aurten ere txistulariek garrantzi handia izan dute eta eguerdiko bazkaria eta gero Seguratik aspaldiko urteetan etortzen di-

ren abesbatza bateko bi lagun omendu dituzte, hainbeste urtetan egun hau alaitzen aritu direlako. Beste hainbeste urtez etortzen jarrai dezatela denek!

## LEITZA

HEZKUNTZA → IKASTURTEAREN ERREPASOA

## Aurreko ikasturtearen balorazioa egin du Amazabal institutuko Guraso Elkarte berrituak

### TTIPI-TTAPA

Amazabal Institutuko Guraso Elkarteak kide berriez osatu zenetik ikasturte bat pasatu denean, egindako lanaren berri eman dute elkarteak gurasoek. Guraso Elkarteak 1998an sortu zen, eta gurasoen partaidetzare-

kin «gorabeherak» izan badira ere, elkarteak kide berriek bertatik pasatu eta lan egin duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete. Kide berriak sartu aurretik, elkartearen lagun bakarra aritu zela ere gogoratu dute: «nahiz eta ahal

zuen guztia egin, ezinezkoa zen egoera horretan elkarteak aurrera egitea. Ondorioz, Pello zuzendariaren laguntzarekin zortzi guraso animatu ginen taldea osatzera». Guraso Elkarte berritua 2011-2012 ikasturtean hasi ziren lanean eta lan administratiboak egiteaz gain, zenbait hitzaldi eta ikastaro antolatu zituzten joan den ikasturtean.

Azken ikasturteko ikasleen emaitzak ere kaleratu dituzte. Lehenengo DBHn 19 ikasle 16k gainditu dute, 2. DBHn 18 ikasle 17k, 3. DBHn 60tik 51k eta 4. DBHn

29tik 27k. Batxilergoan, berriaz, 2. mailako 19 ikasle 17k dena gainditu dute eta kurso berrian bi ikasgai 'libretik' egiteko bi ikasle gelditu dira.

Institutuko ikasgaie-tatik aparte, ikasleek egin dituzten bestelako frogen emaitzak ere jakinarazi ditu Guraso Elkarteak: selektibitatea %94k gainditu dute, euskarako B2 froga %85ek eta EGAKo azterketa %50ek. Kasu honetan, Nafarroa mailan %16k gainditu dutela kontuan hartuz, Leitzako ikasleen emaitzak «oso onak» direla iritzi dio Guraso Elkarte-

ak. Ingeleseko B1 froga, berriaz, hirutik hiruk gainditu dute.

Emaitzak «orokorrean oso onak direla» ikusita, «gure gazte gehienak ikasketetan oso inplikaturik daudela dio Guraso Elkarteak, eta ikasle, guraso eta irakasleei zorionak eman nahi izan dizkie. Bide batez, beraien lan-taldean parte hartzeko gonbitea ere luzatu du, «batez ere, Larraun, Lekunberri, Bete-lu, Araitz, Areso eta Goizuetatik Leitzako ikasle-txerara seme-alabak baidaltzen dituzten guraso-iei».

# BAZTAN

ELBETE → GURUTZE SAINDUAREN BESTAK

## Bortz eguneko bestak prestatu dituzte Elbeten irailaren 13tik 17ra

Ortegung arratsaldeko txupinazoarekin hasiko dira

### TTIPI-TTAPA

Herriz-herriko bestak aitzinera doaz eta Elbeteko Gurutze Sainduen besten txanda ere laster ailegatuko da.

### ORTZEGUNE, IRAILAK 13 BEZPERA

- 18:00etan txupinazoa eta ezkil-jotzea.
- Gero japoniar bonbak.
- 21:00etan Baztan Zopak FRANTZISKOREkin.
- Gauerdian txopo goratzea.
- Ondotik dantzaldia FRANTZISKOREkin.

### ORTZILERIA, IRAILAK 14 GURUTZE SAINDUEN EGUNE

- 09:00etan argisoinuak.
- 11:30ean Meza Nagusia.
- Ondotik Elbeteko Mutildantza taldearen erakustaldia eta luntxa.
- 19:00etan futbito lehiaketa, helduak gazteen kontra.
- Gero tortilla lehiaketa.
- 20:30etik 23:30era dantzaldia FIDELek alaituta.
- 00:30ean kontzertuak: Su Etena, Barniz por la nariz eta talde sorpresa.

### LAUNBETA, IRAILAK 15 ZIKIRO EGUNE

- 09:00etan argisoinuak.
- 14:00etan zikiro-katein, Maialen eta Maialen bertsoariekin. Txartelak 30 eurotan Elbeteko

ko ostatuan eta Karrika ostatuan daude salgai.

- Ondotik Elbeteko Mutildantza taldearen erakustaldia.
- Gero zinger-jatea.
- 20:00-22:00 eta 00:00-04:00 dantzaldia.
- 04:00etatik 06:00/07:00etara Tirri & Tery.

### IGENDIA, IRAILAK 16 HAURREN EGUNE

- 09:00etan argisoinuak.
- 11:00etan txutxulandia.
- 14:00etan haurren bazkaria. Elbeteko ostatuan eman behar da izena.
- Ondotik txutxulandia eta mus eta partxis txapelketak.
- 18:00etan Baztango dantzari ttikien saioa.
- Ondotik txokolatada eta japoniar bonbak.
- Arratsean, zinger-jatea.
- 19:30etik 21:30era dantzaldia FIDELek alaituta.
- Gauerdian zozketa.

### ASTELEHENA, IRAILAK 17 HERRIEN EGUNE

- Herri bazkaria Karrikaxarren, FIDELekin.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Aurten ere adin guztietako jendearendako ekitaldiak izanen dira Elbeteko bestetan.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Elbeteko 'ezkila ebasleak' nagusi Baztandarren Biltzarrean

Baztandarren Biltzarrean 49. edizioa egin zen uztailaren 22an Elizondon. Hamabortz herrietako orgak karrikaratu ziren, 21 denetara, eta horien artean, Elbeteko *Ezkila ebastea* izan zen irabazle. 500 euroko saria eskuratu zuen. 300 euroko bigarren saria Elizondoko Aise taldeko *Coche Sanchez* kotxerarendako izan zen eta hirugarren saria, 250 euro, Iruritik eskuratu zuen, *Iruritako okinek* orgarekin. Karrozaz aparte, aixturak nonahi agertu ziren, murrizketa politika salatuz eta Nafarroako konkistaren 500. urteurrena ere aipatu zen orga gehienetan.

**OÑASKA BERRI**  
OSTATUA - ENNETEUA - HOSTALA

**ERREPIDE BERRIKO ERROTONDA NAGUSIAREN PAREAN**  
Jose M<sup>a</sup> Zumalakarregik beste zokorrituak ope dizkizue!  
ELBETE • 948 452 088

**ELBETEKO POSADA**  
ONGE PARRA BESTAK!

8 logia bostagaitzari eta egungo hit

- Eguneko menua
- Aste hondoretan saria
- Enpresa otorduak
- Familia bikorak
- Batzok

Karrikaundi z/g  
**ELBETE**  
T. 948 581 519  
info@posadaelbete.com

www.posadaelbete.com

**ABELZAINZA → CONASPIK ANTOLATUTA**

# Piriniar arrazako behi-azienda lehiaketa- enkantea irailaren 21etik 23ra egingen da

Udalak plaza prestatzeko eskulanaz gain, 2.000 euroko laguntza emanen du

**TTIPI-TTAPA**

Azkeneko urteetan Elizondon egin den piriniar arrazako behi-azienda lehiaketa eta enkantea kinkan egon bada ere, irailaren 21, 22 eta 23an ospatuko da berriro ere Baztanen.

Aurtengoa XXV. edizioa izanen da eta Conaspi- ren, baserritarren eta Udalaren konpromiso eta elkarlanari esker egi- ten ahaliko dela jakina- razi nahi izan zuten uz- tailaren 24an egindako prentsaurrean.

Nafarroako Gober- nuaren iazko dirulagun- tzen ordainketaren gibe- leratzeak eta aurtengoa egiteko dirulaguntzarik ez baieztatzeak airean utzi du lehiaketa-enkan- tea. Feriak denetara 48.000 euroko aurrekon- tua izan zuen iaz eta ho-

rietatik Gobernuak 15.250 euroko laguntza eman behar zuen. Azke- nean, 2012ko maiatza- ren 16an hartu dute antolatzaileek. Aitzine- ko edizioetan Espainia- ko Ingurumena, Landa eta Itsas Eremua Minis- teriotik laguntza jasotzen zuten Conaspi- ren bitar- tez, baina aurten ere ber- tan behera geldituko da.

Aurtengo antolakun- tzaren ardura Conaspi- k hartu du (piriniar arra- zako behi-aziendaren elkarte- en konfederazio nazionala), hainbat he-

rrialdetako elkarre- ta- ko kideek, abeltzainek, apostu haundia egin baitute lehiaketa man- tentzearen, horrelako ekitaldi baten antola- kuntzaren zama ekono- mikoa bere gain hartu- ko dute.

Udalak, bere aldetik, Merkatuko Plaza lehi- aketarako prestatzeko

eskulana beregain har- tuko du, baita 2.000 eu- roko laguntza emanen ere. Eragile pribatuei ere laguntza eskatu zaie da- goeneko eta lagundu nahi duten herritarrek ere, horretarako auke- ra izanen dute. Azkenik, Nafarroako Gobernu- ari, aurten ere diru-lagun- tza eskatuko zaio.



UTZITAKO ARGAZKIAK

**Udako Jostaldiak Elizondon eta Erratzun bakarrik**

Aurten, Baztango Euskara Zerbitzuak 7. Udako Jostaldiak antolatu ditu. Ha- sieran lau kuarteletan egin nahi zen, baina Basaburuan eta Erberean jenderik apuntatu ez zenez, Erratzun (Baztangoizan) eta Elizondon egin dira jostaldiak. Bietan arras arrakastatsuak izan dira jostaldiak, Erratzuko txandan 31 hurrek eman baitzuten izena, eta Elizondokoan 50ek. Aurten bertze urteetako aktibi- tateez gain (jokoak, dantzak, tailer ezberdinak, ) igerilekura eta BKZra ere egin dituzte irteerak. Gurasoei banatu zaien balorazio paperetan ikus daiteke Jos- taldiak urtetik urtera hobetzen ari direla eta gustura gelditu direla.

eskaintza  
web onak 1€

eskiz

Google

1€

HAZKURAK 2012  
Eskiz Informatikoa  
Baztan 11111  
046 501 232  
eskiz@eskiz.es  
www.eskiz.es

OSORRIK    TERORRIK    LAITARRIK

www.eskiz.es

# BAZTAN

HORNIDURA → UR ESKASIA

## Ur horniduraren bermea kolokan dago Iruritan eta Lekarozen

Gobernuari lan horietarako dirua bideratzeko eskatu dio Udalak

### TTIPI-TTAPA

Lekaroz eta Iruritan herritarren ur horniketaren bermea kolokan dagoela jakinarazi zuen Udalak abuztu erdialdera. Egun horietan erabilgarri zegoen ur kopurua nabarmen jaitsi zen eta Lekarozko ur biltegia hustutzear zegoela ikusi zuen Udalak. Egoeraren aitzinean, Lekarozko biletetgia zisteren bidez hornitzearen beharra nabarmendu zuen.

Udalak oroitarazi duenez, 2008-2012 urtetako tokiko azpiegitura planean Irurita-Lekarozko uraren arazoari konponbidea bilatzeko proiektuaren bigarren fasea gauzatzea aurreikusia zegoen eta «lan hauek ez dira burutu Nafarroako Gobernuak erraten duelako ez daukala berari dagokion ordaintzeko dirurik». Egoeraren larritasuna-

ren aitzinean, eta herritarren oinarritzko eskubideak bermatzen ez direla ikusita, Nafarroako Gobernuari lehenbailehen Irurita-Lekarozko ur horniketa bermatzeko egin behar diren lanak egiteko dirua bideratu dezala eskatu dio Udalak.

Bertze aldetik, Lekarozko eta Iruritako herritarrei eskatu die bandoaren bitartez iragarri diren neurriak bete ditzaten eta ur erabilera arduratsua egin dezatela egoera okerrera joan ez dadin.

### BANDOOA

Ur eskasia dela eta, Lekaroz eta Iruritako herrietan zenbait neurri hartu behar izan ditu Udalak. Tartean, ura kenduko da 00:00-etatik 07:00etara.

Horrez gain, debekatu egin du lorategiak eta baratzeak ureztatzea, igerilekuak betetzea, ibilgailuak garbitzea eta etxeko giza kontsumorako ez den bertze edozein erabilera. Herritarren laguntza eskatu du Udalak, «kontsumo arduratsua eginez, ura alferrik erabili gabe, egoera konpondu arte».



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

### Saharako neska-mutikoei harrera egin zioten Balleko Etxean

Dagoeneko bera herrialdean dauden, baina uda garaia gure artean pasatu duten Saharako 19 neska-mutikoei harrera egin zien Udalak abuztuaren 4an, Balleko Etxeko balkoian Sarahako ikurra zintzilikatua zegoen bitartean.

## Iñaki Erro preso berriz urrundu dutela salatu du Herrira mugimenduak

Iñaki Erro preso elizondarrak 25 urte daramatza kartzelan. Zigor osoa 2010eko maiatzean bete bazuen ere, 197/2006 Doktrina ezarri eta 2017ra arte luzatua diote kartzela. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamalau presoan artean dago, kardiopatia baten ondorioz. Herrira mugimenduak jakinarazi duenez, bere amaren gaixotasun larria zela tarteko, Iruñeko kartzelan egon da, baina ama abuztuaren 17an hil zitzaion eta berriz urrundu dutela salatu du Herrirak. Lehendik zegoen Almeriako kartzelara eraman dute. Herrirak «PPk hartu duen erabakia oso larria dela» uste du eta bide batez, jakinarazi du «ugari izan direla Erro ez urrundu eta libre uzteko tramiteak has daitezkeen eskatu duten ahotsak, baina Gobernuak preso honen eskubideak behin eta berriz zanpatzea erabaki du». Bakearen aldeko indarrak biltzeko deia egin du Herrirak, «PPren gerra-politikak salatuzko urgentziazko mobilizazio orokor baten bidez».



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

### IV. Argazki lehiaketako sariak banatu ditu Bertan elkarteak

Bertan elkarteak laugarren urtez antolatutako argazki lehiaketako sari banaketa egin zen abuztuaren 4an, Bertan Egunaren baitan. Aurtengoan, Baztango ohi-tura, jendeak eta beste buruzko irudiak hartu behar zituzten argazkilariek eta guztira 55 lan aurkeztu ziren. Horien artean, Maria Torres Ustarizek eskuratu zuen lehendabiziko saria (400 euroko balea), Edurne Biguria Uhartek bigarrena (200 euroko balea) eta Mikel Sagastibeltzak hirugarrena (100 euroko balea).

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatuak

Santillana, 39 2º | ELIZONDOKO  
T. 945 581 441 | M. 630 364 811

TURISMOA → ZENTRO BERRIA AURKEZTU DUTE

# Burricleta zerbitzua udan ailegatu da Ornoz-Mugairira

Bizikleta  
elektrikoen  
alokairua  
eskaintzen du

## TTIPI-TTAPA

Basartea enpresaren ekimenez, Nafarroan Burricleta zentroak ireki dituzte, eta bat Oronoz-Mugairin. Landa, natur edo gastronomiako turismoa egiteko era desberdina proposatzen duen ekimena da, eta menditik ahaleginik egin gabe joateko alokatzen den bizikleta elektrikoa da. Audio gida duen GPSa du, pasatzen den lekuetan interesgarria zer den erraten duena.

Ornoz-Mugairiko zentroak zazpi ibilbide proposatzen ditu, gustu eta zailtasun desberdinetakoak: Bidasoko bide berdetik igarotzen direnak, edo Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako herrietan barna ibil-

tzen direnak, Bertizko Natur Parkea edo gaztandegiak eta errotak bisitatzen dituztenak. Bertzelako proposamenak ere bildu dituzte, hala hola, Hendaiara joateko aukera bi egunetarako.

## Esleitu diren obrak

Hainbat obra esleitu ditu Tokiko Gobernu Batzordeak uda honetan eta denak eskaintzarik merkeenei. Zahar etxean egongelako leihoetan pertsiak jartzeko obrak Urtxulutegienpresari esleitu zaizkio 5.371,59 eurotan eta zahar etxean pladurrezko pareta altxatzeko lana Titauro erreformak-i agindu zaio 1.757,67 eurotan. Erratzuko eskolan leiho berriak jartzeko lanak Urtxulutegiri esleitu zaizkio 6.506,38 eurotan; Elbeteko frontoian konponketak egiteko lana Pinturas y Obras H<sup>nos</sup> Sarmineto enpresari esleitu zaio 7.014,73 eurotan.



Burricletak audio gida duen GPSa dauka.

UTZITAKO ARGAZKIA



ARGAZKIAK: ONDIKOL

## 'Haien ametsa gurea da'

Berandu bada ere, ezin aipatu gabe utzi uztaillaren 21ean Amaiurren egindako ikuskizuna. *Amaiur 2012. Haien ametsa gurea da* ikuskizun arrakastatsua taularatu zuten, Nafarroako konkistan bitzta galdutako gudariei eskainia. Bi ordu eta laurdenean, 110 lagun inguru igaro ziren agertokitik, tartean abeslariak, bertsolariak, dantzariak eta antzerkigileak. Espreski paratutako harmailak bete eta sarrerak agortu zituzten 2.000 ikusleek txalo zaparrada batekin saritu zuten egindako lana. Bertalde, zozketaren zenbaki saridunak hauexek dira: Ana M<sup>a</sup> Marinen margolana 13.987; Xabi Oteroren argazkia 6.836 eta Joseba Buruskoren eskultura 10.829.


**zapatar**  
IHE 636 365292 - [indaburugog@gmail.com](mailto:indaburugog@gmail.com)  
Maurizio Berrihotena kalea, 12  
31700 Elizondo - Baztan.

**Sutele-Zaldain**  
Instalazioak

IGOGAILUEN INSTALAZIOA  
AROTEGI METALIKOA  
TOLDOAK

Santiago, 71  
31700 ELIZONDO  
T. 948 580 166  
F. 948 452 557  
M. 619 424 999 - 649 699 820

# BAZTAN



**BESTAK** → ELIZONDO

## Ortziral eta larunbat honetan ospatuko dira Txokotoko bestak

Larunbatean emakumezkoen frontenis txapelketako finala jokatu da

- haundiak.
- 20:00etan Baztan Zopen dastaketa.
- 21:00etan paella lehiaketa eta dantza herrikoiak.
- 23:30ean rock kontzertuak.

### LAUNBETA, IRAILAK 8

- 11:00etan argisoinuak txistulari, erraldoi eta buruhandiekin.
- Goizean bonba japoniarrak Maurizio eta Felix plazan.
- 11:30ean supermega punto trinketea. Eta Txokotoko emakumezkoen II. frontenis txapelketako finala jokatu da Baztan frontoian.
- 14:30ean zikiro jatea.

### TTIPI-TTAPA

Irailean sartuta, Elizondoko Txokoto auzoan ere bestak ospatuko dituzte. Ortziral eta larunbat honetarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

### ORTZILERIA, IRAILAK 7

- 19:00etan txupinazoa.
- Ondotik txistulariak, erraldoiak eta buru-



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Xorroxin irratia pozik behikaka.com zozketaren erantzunarekin

Xorroxin irratia antolatutako behikaka.com zozketa egin zen uztailaren 29an Elizondon laugarrenez. Aurten ere jende andana bildu zen eta Lore, Zagua eta Neke behiak izan ziren protagonistak, Agustin Arraztoa, Jokin Ramirez eta Juan Joxe Iñarrea behizainekin. Dena den, bertzelakoek ere izan zuten zer erranik: Bittor Elizagoien eta Jon Elizetxe bertsolariek, Xabi Ospital soinu teknikariak eta nola ez, behien jarduna komentatu zuten Joseba Otondo eta Julen Zelaieta Xorroxingo esatariek. Bi epaile aritu ziren guztia kontrolatzen, Mikel Altzuarte eta Mikel Azkarate, eta teknologia berrien laguntzarekin, guztia gainbegiratzen Juan Mari Aleman amaiurtarra. Lehenbiziko saria Neke behiak banatu behar zuten, baina kaka egiteko gogo gutti eta 20 minutu igaro ondotik, kakarik ez zuela egin eta zozketa egin behar izan zen. 1. lerroa eta 45. zutabea zuen laukitxoari egokitu zitzaion, Baztandarrren Biltzarra egunean saldutako boletoari. Bigarren saria Lorek erabaki zuen. Sartu eta segituan egin zituen eginbeharrak 4. lerroan eta 98. zutabeko laukian. Boletoa Erratzuko Bestetan saldu zen. 3. saria Erdiz behiak banatu zuen, sartu eta berehala. 7. lerroa eta 51. zutabea zuen laukitxoa izan zen 3. sariaren irabazlea, Urdazubin saldua. Abuztuaren 29ra bitarteko epea zuten saridunek Xorroxinera agertzeko eta bertzela, ondorengo 15 egunetan ordezkotako zenbakien jabeek izanen dute saria eskuratzeko aukera. Ordezko zenbakiak hauek dira: 1. saria: lerroa 14-zutabea 34, 2.saria: lerroa 14-zutabea 44; 3.saria: lerroa 4-zutabea 54.

- Ondotik jokoak.
- Gero, DJ Makala.
- 23:00etan su artifizialak Jajapama pirotekniaren eskutik.
- 00:00etan dantzaldia.
- Akitzeko DJ Mokordo & DJ Tirri.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Mariano Maritorenarekin omendua

Laxoan urteetan egindako lana eskertuz, merezitako omenaldi ttiki bat jaso zuen Mariano Maritorenarekin arraiotzarrak abuztuaren 4an, Laxoa Txapelketako finalaren egunean. Alde batetik, Jose Luis Arozena eskulangileak egindako guantea eman zioten semeek eta Sotero Etxandi Arraiotzoko alkateak eta bertzetik, Joselu Retegik egindako egurrezko eskulana ere jaso zuen.

## ANZABAL INMOBILIARIA

- Zuzen Anzabal Auzo, Elizondoko, Iñarri eta Naitze eremuetan.
- I.a. etxebizitzak
- Birrindak eta Argura Sotak
- Alcobadaria Sotak
- Errenta Dikontzako, SEZA...
- Inbentarioa
- Baserri, berrak, zoro, etab... salmenta eta alkatariak
- Inbentarioa

Santiago, 15 • ELIZONDO • T.F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



ZINEMA → BAZTANEN ERRODATUTAKO PELIKULA

# Urriaren 5ean estreinatuko dute 'Baztan' filma zinema aretoetan

Donostiako  
zinemaldian  
ikusgai izanen  
da aitzinetik

## TTIPI-TTAPA

Iñaki Elizalde zuzendariak agoteen inguruan egin duen *Baztan* filmak laster egingen du zinemetarako saltoa. Urriaren 5etik aitzinera zinema aretoetan ikusgai izanen baita. Hala ere, hori baino lehen, Donostiako Zinemaldian estreinatuko dute, irailaren 21etik 29ra egingen den Zinemaldiaren Zabaltegi-Bereziak sailean, hain zuzen.

*Baztan* film historikoa da, eta agoteek jasandako bazterketa kontatzen du. Unax Ugalde, Kandido Uranga, Joseba Apaolaza, Carmelo Gomez eta Ramon Agirre dira protagonistak.

## Eskolen besta

Aurten, Erratzuk hartuko du Urdazubi-Zuga

rramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta. Irailaren 30ean izanen da eta xehetasunak hurrengo alean aipatuko baditugu ere, lehenagotik zenbait jarduera osagarri egingen dira.

Igande honetan, irailak 9, eskolen koordinaketaz hitzaldia eskainiko da Erratzuko elkartearen, 19:00etan. Toki eta ordu berean, irailaren 16an, *Eskola bizia-herri bizia* Gipuzkoako eskola ttikien dokumentala ikusgai izanen da. Urriaren 3an *Bertsol haritza* ipuin emanaldia izanen da Iru-ritako eskolan, goizez.

## Erakusketa itxiera

Xabier Soubeleten erakusketaren itxiera musikala egingen dute irailaren 29an Arizkungo Sasternean, 19:00etan. Erakusketaz gain, Yutta Dietrich kantaria, antzerkia, Lakort kantaria eta Nat eta Watson kantariak izanen dira. 23:00etan aforia izanen da.



ARGAZKIA: ONDIKOL

## Protestak Barcinaren bisitaren harira

Yolanda Barcina Nafarroako Gobernuako presidentea bisitan izan zen Elizondoko bestetan. Bere etorrerak hainbat herritarren protesta eragin zuen. Baina protesta-ekin bat egin zuten bi baztandarri salaketa ere paratu zion Foru Poliziak, Xabi Ospital eta Itziar Torresi, hain zuzen. Eta bi hauei elkartasuna adieraziz, hainbat herritarrek prentsaurrekoa eskaini zuten Barcinaren bisitaren biharamunean. Prentsaurrekoan erran zutenez, lehendakari izanda, Barcina «Nafarroako Kutxa desagertu izanaren arduraduna da, hezkuntzan edo gizarte zerbitzuetan egindako murrizketen erantzulea; osasungintza pribatura bideratutako dirulaguntzak mantentzen dituen bitartean, osasungintza publikoa suntsitzen ari da; Gobernuak onartzen dituen ERE guztien arduraduna da eta Madrilen onartutako murrizketa neurriak aplikatzearen arduraduna ere bada». Gaineratu zutenez, «Nafarroako herritarrak jasaten ari den egoeraren erantzulea da, eta joaten den tokira joaten dela ere berarekin eraman beharko du ardura hori, baita herritarren artean sortzen ari den haserrea ere». Elizondoko protesta «espontanea eta baketsua» izan zela adierazi zuten eta horren adierazle, «hainbat adin, kondizio eta joeratako jendeak» parte hartu zutela. Aldiz, Barcinak «bere kideen laguntzarekin, probokatzaila eta harrotasunez jokatu zuela» salatu zuten: «herritarren kontrako neurri klase guztiak hartzen dituzte eta gainera, poliziez inguratua egoteak ematen dien nagusikeriaz aurpegira irri egiten digute. Logikoa den bezala, guttieneko duintasuna duen edozeinek horrelako egoera batean protesta egiten du». Gainerako herriak «murrizketen eta horien arduradun diren politikari eta gobernariaren kontra protesta egitera» deitu zituzten.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

## Bere 11. urteurrena ospatu du Ufestuek taldeak Erratzun

2001ean sortu zen Ufestuek taldea Erratzun eta abuztuaren 22an, 11. urteurrena ospatzeko kontzertua eskaini zuen herrian, Zubipunta ostatuan. Hasiara hartan Iban Iparragirre (baxua eta koroak), Xabi Ospital (ahotsa eta gitarra) eta Joseba Etxandik (bateria) sortu zuten taldea, eta handik guttira Jose Inazio Etxamendi (gitarra) batu zitzairen. Geroztik, punk musika eskainiz, hainbat emanaldi eskaini dituzte, gehienak Euskal Herrian, baina baita kanpoan ere. Laukotea osatu eta segituan, Mikel Altzuarrek egindako hitz batzuekin *Nafarroa Hitzak Dantzak* diskan parte hartu zuten. Handik guttira, beraien lehenbiziko lana kaleratu zuten: *Ufestuek*. Ondotik *Lanari mus* eta *Judas bat naiz* etorri ziren. 2011 hondarrean, beriz, *Faxismoaren harra* beraien azken lana argitaratu zuten. Azken hau formatu analogikoan egindakoa da, eta gainera, ia desagertua dagoen binilo formatuan, CD batekin batera.

ANTXITONIA  
Berritu itxura 16, Etxandak • 948 581 807 • 948 581 853  
berritu@antxitonias.com • www.antxitonias.com

# URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → HERRIEN ARTEKO BESTA

## Egun osoko besta antolatu dute irailaren 16an eginen den Xareta Egunerako

Arratsaldean Pilotaren Unibertsari bukaera emanez partidak jokatu dira

### TTIPI-TTAPA

Xareta Eguna irailaren 16an ospatuko da, igandearekin. Eta elkartasun besta horren aitzakian, egun osoko besta antolatu dute.

Goizean, 10:00etatik aitzinera Baztan-Bidasoaldea eta Xareta-ko artisauen erakusketak ikusgai izanen da. 12:00etan Xareta eta Zudaireko dantzariak beraien saioa eskainiko dute. 13:00etan Ainhoa eta Urdazubi arteko bide berria inauguratuko dute eta 14:00etan zi-

### INAUGURAZIOA

Irailaren 16an, Ainhoa eta Urdazubi arteko bide berria inauguratuko dute. 13:00etan egina dute hitzordua.

### ANIMAZIOA

Egun osoan musika doinuak izanen dira eta eguerdian dantzariak ere bai. Eta gero, zikiro jatea eginen dute.

kiro jatea eginen da karpn.

Arratsaldean, berriz, abuztuaren 4an hasitako Pilotaren Unibertsari ekimenari bukaera ematen zaio. Aurten hirugarren aldiz pilota modalitateen inguruan erakustaldia eginen da.

Bestalde, egun osoan musika doinuak nagusituko dira akordeoilarien eskutik.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Bosgarren Burdinaren Eguna arrakastatsua izan da

Burdinaren Eguna eguzki beroaren azpian, eguraldi sargoriarekin ospatu zen abuztuaren 11n. Bosgarren edizio honek gaiarekin lotutako egitarau zabala izan zuen: burdin minerala idi-gurdietan garraiatu zen, goizetik artisautza azoka izan zen plazan 35 bat eskulangilerekin, eta ttikienek ere izan zuten puzgarrietan ibiltzeko aukera, baita Urdazuri errekan zebiltzan *pedalo* ttiki batzuetan ere. Donibane Lohizunetik zetorren burdin mineralaren segizioak burdina, buruzareetan sartuta idi gurdi batean garraiatu zuen Axularetik plazaraino eta eguerdian ailegatu zen monasteriora, Arizkungo txistulariekin batera. Plazako antzezpena eta gero, monasterioko elizan hitzaldia eskaini zuen Miguel de la Quadra Salcedo bidaiari eta abenturazale ezagunak. Ondotik, zikiro jatea eskaini zen 300 bat lagunendako frontoian eta arratsaldean, mariatxien kontzertua izan zen.



ARGAZKIA: ALFIL AGENTZIA

### Txuletaren Eguna lehen edizioa

Lehenbiziko aldiz Txuletaren Eguna egin zen abuztuaren 25ean. Txuleta aitzakia gisa hartuta, bertzelako hainbat ekitaldi ere egin ziren.

ttiipi ttapala

**IPINGI**  
%10  
DESKONTUA  
30Etk gomako  
gastuan

HESSWA  
ESTATIBO  
CENTRE  
CASA DE LA MAIRIE  
PILASARRA  
Maison de la Ville  
CASA

ARMUA JATEKIA  
CASA DE LA MAIRIE  
PILASARRA  
Maison de la Ville  
CASA

**MONTXO** OSTATUA  
ТАВЛІКО-БЕНДІ

Нале барінстві | Гостаркіца | Паўноч | Мемок вікітэатр

Егунні жекі 09:00еткі 02:30еткі - Дзятнінстві 2 км баа

АНДАН-БІРДІА - УРДАЗУБІ | 948 599 039

# ZUGARRAMURDI

TURISMOA → OSPAKIZUNAK

## Sorginen Museoaren 5. urteurrena hainbat ekitaldirekin ospatu dute

Jendeak museoa estimatzen duela ikusi da

### Koro eta Margari

Uztailaren 20an bortz urte bete ziren Sorginen Museo ireki zenetik. Hori ospatzeko ekitaldi batzuk antolatu ziren: hainbat herritarrek parte hartua zuten grabazio bat ikusgai izan zen, dantzari ttikiiek emanaldi bat egin zuten, eta finitzeko, luntx bat eskaini zuten.

Jende andana bildu zen ospakizun honetan, 70 bat lagun, eta hauek izan ziren aipatutako batzuk: garen herri ttiki honendako ohore handia dela halako museo bat izatea; jendeak estimatzen duela museoa eta gainera, hainbat ekitaldi, irteera eta ikastaro antolatzen dituela; museoan dagoen auditorioa baliatzen dela herrian antolatzen diren ekitalditarako; eta gauza garrantzitsu bat ere

aditu zen: museo hau gure antzinakoei eskainitako omenaldi bat dela, eta aldi berean, beren ospe ona berreskuratzeko balio izan duela.

### Jende ospetsua herrian

Uda honetan jende ospetsua ibili zaigu herrian: abuztuaren 11n Iñaki Urdangarin, bere familia eta koadrila haundi batekin izan zen museo eta lezea ezagutzen. Erran dutenez, gordeka ibili omen ziren, baina halako gizon luzea errez ezagutzera eman zen.

Bestetan, berriz, Alex de la Iglesia zinema zuzendaria herrian ibili zen bere hurrengo pelikularako tokiak ikusten. Barrantzeko familia ezagutu nahi zuela, eta hantxe marmitako jateira gonbidatu zuten. Bi plater jan omen zituen.

### Asiako liztorra

Ze komeria Asiako liztor madarikatu ho-



ARGAZKIAK: MARGARI ETA KORO

70 bat lagun bildu ziren Sorginen Museoaren 5. urteurrenako ospakizunear.

riekin: bestetan kabi bat kendu zuten suhiltzaileek Narkoneko

teilatutik, baina gaur egun oraino Elizargietako inguruetan bertze

bat ez ote dagoen... Burrunba sumatzen baita...

**Kattalingorri**  
arropa denda

ttipi txartela

**% 10** eko  
DESKONTUA

MENDIA

T: 948 453 060 | AMAJUR

**MENDI**  
ostatua

Santiago 25  
948 500 312  
ELIZONDIO

**FANTXIKE**

**% 10** eko  
DESKONTUA  
30etik gorako  
gaituan

ttipi txartela

## SENPERE

AZPIEGITURAK → OBRAK

# Jondoni Petrikari elizan segurtasuna hobetzeko lau hilabeteko lanak bukatu dira

65 000 euro baliatu dira

**Franck DOLOSOR**

Jondoni Petrikari Senpereko otoitz leku nagusia fededunei itzulia izan zaie uda honetan aitzineko lau hilabetetan hetsia egon baita lanak egiteko. Lehenik argiztapena eta galerien segurtasuna hobetu behar zen, baina Herriko Etxeak eta parrokiak lan gehiago egin nahi izan dute. Lan horiek beharrezkoak ziren zurzeko galeria batzuen se-

gurtasuna hobetzeko eta argiztapen orokorra osoki berritzeko. Orotarat 65 000 euro baliatu dira lan horiek oro egiteko eta parterik haundiena herriak ordaindu du otoitz lekuaren jabea baita.

Bertzalde, Daniel Petriat herritar zenaren nahia bete da lan hauekin. Berriki zendu den fededun ezagunak eliza, horren historia eta oro har erlijio katolikoa ezagutiarazi nahi zituen molde berriekin. Bere ametsa bete da euro baten truke elizaren bisita gidatua



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

### Ikastolaren selauru hustea

Joan den agorrilaren 26an mundua bildu zen Zaldubi ikastolak gaztelu plazan apailatu zuen selauru hustean. Aurten 20 bat erakusmahai baziren, partikularrak batzuk, profesionalak bertzeak. Selauru husteak ohitura bilakatu dira azken urteetan.

egiten ahal baita orain euskaraz, frantsesez edo gaztelaniaz. Bisita haue-tan bilduko den dirua parropiari ematea deliberratu du Herriko Etxeak.

### Saihesbideko lanak

Karrika Nagusiko sai-hesbideko lanak berriki hasi dituzte berriki. Ibarrunen altxatu den zubi berri bidea eraikiko dute orain Urgurin barna. Urgurin bigarren itzulbi-

dea eginen da auzo zelai hortarat sartzeko eta lotura eginen da ere Utsalean egin beharra dan ibilgailu aparkalekuarekin. Gero zubi bat eta bide bat gehiago egin beharko da Olharaino joateko. 8 milioi euro gostako diren lanak 2013ko otsailean bukatuko direla diote Pirineo Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusiko arduradunek.

### Ibarrungo bestak

Laster Ibarrungo bestak ospatuko dira eta urte guztiz bezala, xerri tiki errearen jatearekin hasiko da besta buruilaren 28an. Ondoko egunetan izenak eman beharko dira. Flashmob ekitaldiak, pilota partidek, Zumba erakustaldiak eta Kuxkuxtu taldearen emanaldiak osatuko dute egitaraua. Besta on ibarrundar guztiei!

## SARA

KIROLA → ERRUGBIA

# Uztaritzeko taldeak irabazi du Euskal Herriko II. Errugbi Txapelketa

500 lagun bildu dira zikiro jatean

**Joana GUERENDIAIN**

Joan den agorrilaren 25ean Euskal Herriko Errugbi Txapelketaren bigarren edizioa egin zen Saran. Euskal Herriko zortzi ekipa aritu ziren

bata bertzearen kontra Animainiako zelaietan.

Azkenean, txapeldu-na Uztaritzeko taldea izan zen eta txapeldu-nordea Ziburu. Hirugarren Hernaniko taldea sailkatu zen, laugarren Getxo, bosgarren Donapaleu, seigarren Sara, zazpigarren Baztan eta



ARGAZKIA: SARAKO IZARRA

Errugbiar gozatzeko aukera ederra izan zen agorrilaren 25ean Animainiako zelaietan.

zortzigarren Sara eta Hernaniren arteko taldea.

Txapelketa bukatu eta jende guztia plaza-runtz joan zen, Madricale talde kortsikarra

entzuteko. Gauean 500 bat pertsona hurbildu ziren Integrazio Batzordearen alde antolatuta-ko zikiro jaterat. Ondotik Zelata taldeak plaza animatu zuen, eta gaua

bukatzeko bestazaleek gatzetxean bukatzeko aukera izan zuten.

Bigarren edizio hori lorpen polit bat izan da eta agian bertze aintz eginen dira!

**BESTAK** → BURUILAREN 8TIK 12RA ANIMAZIO HANDIA IZANEN DA

## Larunbateko Sara Korrikarekin abiatu eta asteazkenekoazienda primarekin bukatuko dira bestak

### Besten komiteak antolatuta

#### TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez egitarau zabala prestatu du Besten Komiteak herriko besten karietara.

#### LARUNBATA, BURUILAK 8

- 09:00etatik 19:00etara Ball-Trap Placiden bordan.
- 17:00etan Sara Korrika, 10 kilometroko lasterkaldia.
- 12:00etan aizkora apustua.
- 19:00etan karrika animazioa INCANSABLES txarangarekin.
- 22:00etan Kontzertua OBRINT PAS taldearekin.
- 00:00etan dantzaldia NAHAS taldearekin. Gau osoan, Iparraldeko Gaiteroek eta txarangak karrikak animatuko dituzte.

#### IGANDEA, BURUILAK 9

- 10:00etan Meza Nagusia Urruñarrak klika-rekin. Itzulin itzuli Mariñelak tanborradarekin. Gaiteroak.
- 10:30ean Luzean errebotean Luzaz Gazte (Frantziako xapeldunak), selekzio baten kontra.
- 16:30ean karrikan ibilaldia. Joaldunak. Aha-te jokoak. Euskal kirolak.
- 19:00etan aperitifa musikarekin. Sarako kantariak.
- 22:00etan kantaldia IZARRAK taldearekin.

- 23:30ean dantzaldia XITOAK taldearekin.
- 00:00 suzko zezena eta karrika animazioa TXARANGAITA taldearekin.

#### ASTELEHENA, BURUILAK 10

- Goizean, itzulin itzuli gaitero eta txistulariekin.
- 10:30ean Luzean errebotean bi selekziorekin txapeldun izanak.
- 13:30ean zikiro jatea Olhain ikastolak antolatua, oihal etxeak aterpeturik. Erreserbatzeko 0559542758 edo 0673900352ra deitu. Gaineratiko txartelak buruilaren 10ean, 10:30ean Herriko Etxeko Ostatuan salduko dira.
- 16:30ean Jokoa.
- 17:30ean esku huska trinketean.
- 18:30ean euskal dantzak Zazpiak Bat taldearekin.
- 20:00etan aperitifa trikitilariarekin eta Saranga taldearekin.
- 22:00etan kantaldia HIRU SOINU taldearekin.
- 23:00etan dantzaldia EGAN taldearekin.

#### ASTEARTEA, BURUILAK 11

- Goizean, itzulin itzuli gaitero eta txistulariekin.
- 09:30ean paxaka eta bote luze txapelketa.
- 10:30ean luzean errebotean, Biarnoko selekzioa SPUCen kontra.
- 17:30ean Joko Garbi errebotean. Lehen partida Sarako Izarra pilota eskolako gazteekin.

- 18:15ean helduen partida: Hardoytarrak eta Luzaz Gazte.
- 19:00etan Mutxikoak Kuxkuxtu txarangarekin. Txalaparta.
- 20:00etan "P"GAUA Gaztetxean.
- 20:30ean aperitifa trikitilariarekin.
- 22:00etan dantzaldia SAMAIN taldearekin. Gau guzian, Kuxkuxtuk karrikak animatuko ditu.

#### ASTEAZKENA, BURUILAK 12

- Goizean, itzulin itzuli gaitero eta txistulariekin.
- 09:00etan trinketeko zabaldeianazienda prima.
- 10:00etan xoko txapelketako errebantxa trinketean.
- 10:30ean haurren jostaketak plazan. Eurirekin kiroldegian.
- 17:00etan esku huska plazan. Euskal Herriko bestetako esku pilota txapelketaren final erdia.
- 18:00etan esku huska trinketean: Waltari-Du-



ARGAZKIAK: GOIKO

Urruñarrak klika eta meza, joan den urteko bestetan.

- cassou, Monce-Etche-to. Trinketean eta plazan bertsulariak izanen dira eta zozketa ere eginen da.
- 19:30ean Aperitifa ALNARAK taldearekin.
- 22:00etan dantzaldia

- KIKI BORDATXOekin.
- 23:30ean suzieren tiroketa.
- 00:30ean dantzaldia GAUBELA taldearekin.
- Gau guzian LOS INCOGNITOS-ek karrikak animatuko dituzte.

**SARA**  
HERRIKO ETXEA

Plazan elkar ikusiko dugulakoan Herriko Kontseiluak besta onak opatzen dauzkitzue

SARA HERRI BARRUTIAKIN ETA LETALZALIZIAKIN SARA ERRIA, LEIHO XIU-EN 1693-AN

## EZKONTZAK

**Patxi Jaurena Urrutia** eta **Maitane Eizagirre Aranburu**, Urdazubikoa eta Sunbillakoa, uztailaren 21ean.

**Agustin Migeltorena Etxenike** eta **Miren Arretxea Bidegain**, Berroeta eta Narbartekoa, uztailaren 28an Narbarten.

**Karlos Iribarren Rekarte** eta **Naiara Saldias Salaberri**, Urrozkoa eta Iturenkoa, abuztuaren 11n Iturenen.

**Alberto Arnedo Inda** eta **Miren Mitxelena Etxeberria**, Doneztebekoa eta Igantzikoa, uztailaren 28an Igantzin.

**Miguel Larrañaga Zulueta** eta **Victoria Isabel Insausti Alberdi**, Segoviakoa eta Madrilgoa, uztailaren 27an Lesakan.

**Ricardo Diego Ortiz de Urbina** eta **Nerea Etxezarreta Apaolaza**, Donostia eta Hondarribikoa, uztailaren 21ean Lesakan.

**Nicola Michelle Bryan Catrara** eta **Charlotte Marie Laetitia Daix**, abuztuaren 25ean, Saran.

**Asier Larrañaga Alberdi** eta **Ainara Mendiburu Altzuri**, Berakoa eta Doneztebekoa, abuztuaren 4an Donezteben.

**Alatz Olasagasti Saizar** eta **Idoia Erasun Alberdi**, Oriokoa eta Legasakoa, abuztuaren 4an Etxalarren.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



### Valentín GARBISU IRAZOKI

*Isiltasunean izan dira  
zure lana eta bizitza,  
beti izanen zara gure oroimenean.*

**TANTIRUMAIRU IKASTOLAKO FAMILIA,  
BAZKIDE ETA LANGILEAK**

Lesakan, 2012ko uztailaren 26an



## SORTZEAK

**Iker Altzuri Lujanbio**, Arantzakoa, uztailaren 31n.

**Sara Iriberris Casquero**, Arantzakoa, abuztuaren 20an.

**Andoni Pikabea Hidalgo**, Lesakakoa, uztailaren 9an.

**Xabat Arburua Portu**, Lesakakoa, uztailaren 18an.

**Julen Kastro Ordoki**, Lesakakoa, uztailaren 20an.

**Gorka Mitxelena Sunsundegi**, Lesakakoa, abuztuaren 12an.

**Julen Agesta Miura**, Urdazubikoa, uztailaren 27an.

**Janire Buldain Esnaola**, Leitzakoa, abuztuaren 7an.

**Aimar Bazterrika Illarregi**, Iturenkoa, abuztuaren 2an.

**Beñat Perurena Bazterrika**, Iturenkoa, abuztuaren 9an.

**Lukas Jose Genua Ruiz**, Etxalarkoa, uztailaren 16an.

**Saioa Irigoien Sanz**, Doneztebekoa, uztailaren 29an.

**Hegoa Rekarte Gartzia de Paredes**, Doneztebekoa, uztailaren 31n.

**Kemen Villamea Saralegi**, Doneztebekoa, abuztuaren 7an.

**Alexandre Antoine Marsant**, Sarakoa, uztailaren 12an.

**Mikel Olagarai**, Sarakoa, abuztuaren 10ean.

**Jon Sanjurjo Beotegi**, Sarakoa, abuztuaren 14an.

**June Urkiola Mariezkurrena**, Leitzakoa, abuztuaren 24an.

**Maddi Delgado Apeztegia**, Zugarramurdikoa, abuztuaren 5ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

Rekordatoriook egiten ditugu



Nahi duzun argoak eta testuarekin prestatuak

ttipi-ttapa

## HERIOTZAK

**Segundo Ruiz Gartzia**, Goizuetakoa, uztailaren 31n, 80 urte.

**Francisco Txoperena Altamira**, Goizuetakoa, abuztuaren 19an, 67 urte.

**Maria Teresa Ibarra Mariezkurrena**, Elgorriagakoa, uztailaren 19an, 78 urte.

**Pedro Altxu Fagoaga**, Iturenkoa, uztailaren 23an, 88 urte.

**Francisca Irisarri Organbide**, Elizondokoa, uztailaren 23an, 85 urte.

**Jesus Otxandorena Telletxea**, Beintza-Labaien, uztailaren 24an, 84 urte.

**Victoria Graziarena Mitxelena**, Sunbillakoa, uztailaren 24an, 93 urte.

**Teresa San Miguel Vazquez**, Berakoa, uztailaren 26an, 82 urte.

**Valentin Garbisu Irazoki**, Lesakakoa, uztailaren 26an, 61 urte.

**Jesus Tapia Irigoien**, Alkaiagakoa, uztailaren 27an, 63 urte.

**Guillermo Aranburu Irazoki**, Berakoa, abuztuaren 1ean, 79 urte.

**Hilario Lopez Ramos**, Berakoa, abuztuaren 1ean, 97 urte.

**Jose Manuel Irigoien Etxabide**, Lesakakoa, abuztuaren 8an, 96 urte.

**Lazara Belarra Villanueva**, Doneztebekoa, abuztuaren 8an, 94 urte.

**Klaudio Duhalde Erramuspe**, Erratzukoa, abuztuaren 10ean, 86 urte.

**Juan Jose Irazoki Nesprías**, Berakoa, abuztuaren 14an, 87 urte.

**Presentacion Arozana Biurrarena**, Arantzakoa, abuztuaren 14an, 81 urte.

**Juan Zelaieta Etxenike**, Iruritakoa, abuztuaren 23an, 81 urte.

**Florentina Mugertza Labaien**, Leitzakoa, abuztuaren 23an.

**Martin Mendikoa Apezetxe**, Iruritakoa, abuztuaren 25ean, 87 urte.

**Juan Jose Etxabide Berrueta**, Etxalarkoa, abuztuaren 27an, 68 urte.

**Consuelo Ubiria Irigoien**, Lesakakoa, abuztuaren 27an, 81 urte.

**Juan Jabier Rekarte Iturburu**, Erratzukoa, abuztuaren 27an, 70 urte.

PILOTA → BIGARREN URTEZ SEGIDAN

# Euskal Herriko Herriarteko txapelketa irabazi du berriz ere Doneztebek

Hiru partidak irabazi zizkion Markinari uztailaren 27an

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Doneztebek ez zuen ezustekorako tarterik utzi eta Markinari hiru partidak irabazita, berriz ere Euskal Herriko herriarteko pilota txapelketa lortu zuen uztailaren 27an Gallartan (Bizkaia).

Kadeteetan, Doneztebeko Joanes Bakaikoa eta Ruben Medinak 22-11 irabazi zieten Markinako Ion Zubikarai eta Mikel Urizarri. Baina lehen garaipen hori zalantzan izan zen, Medinak pilota-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Euskal Herriko Herriarteko txapelketa bigarreniz irabazi du Doneztebek.

kada handia jaso baitzuen buruan eta Doneztebe ordezkorik gabe joan zelako kategoria honetan. Azkenean, lortu zuen bere onera bueltatzea.

Jubeniletan faborito argiak ziren Doneztebekoak, baina uste baino lan gehiago egin zuten. 12-2 irabazten izan ziren Markinakoak, Kepa Albi-

su eta Alain Pujana, baina pixkanaka buelta eman zioten Ugaitz Elizalde eta Adur Lasak. 16na berdindu ondotik, garaipena Doneztebeko-

rentzat izan zen (22-20).

Txapelketa erabakia zegoen, baina seniorretan ere 22-10 irabazi zieten Mikel Maia eta Jon Gorriti doneztebarek Andoni Malax eta Kepa Castillo markinarrei.

Patxi Ordoki Doneztebeko prestatzailea kontent zegoen bigarren urtez segidan lortutako garaipenarekin eta azpimarratu nahi izan zuen, azken bi urteetan hainbat herriekin jokaturako azken hamar norgehiagokak bata bertzearen ondotik irabazi dituela Doneztebek, «eta hori hagitx zaila da». Nafarroan pilotaren alde ari diren guztiei eskaini nahi izan zien txapela.

MENDI LASTERKETA → 49. EDIZIOA

## Seigarren aldiz irabazi du Fernando Etxegaraik Sarako Kontrabandisten lasterketa

33 lasterketarik egin dute proba

TTIPI-TTAPA | SARA

Sarako Kontrabandisten lasterketa seigarren aldiz irabazita, marka berria egin du Fernando Etxegaraik beratarrik. Orain arte, Sarako Ramuntxo Lamothe eta Etxegaraik pare-parean zebiltzan bakoitza bos-

na txapelekin. Erdietsi berri duen markari esker, Etxegarairen esku dago orain errekor berria.

Denborei begiratu, ordea, aurtenez zen markarik hobetu; konparaziora, 2006an, Etxegaraik berak 38 minutu eta 36 segundotan egin zuen proba. Eta aurtenez, 39:11 behar izan zuen itzulia osatzeko, bigarren postua eskuratu zuen



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

Abuztuaren 19an Sarako Kontrabandisten lasterketa egin zuten korrikalarietako batzuk.

Ezpeletako Benoit Corik baino lau minutu guttiago. Lehenbiziko emakumea, berriz, Lurdes Oiarzabal lezoarra izan zen (55:24), sailkapen orokorrean 22. postuan.

Gainerakoan, 33 lasterketarik parte hartu zuten proban, 18 herri ordezkotuz. Sarako lasterketa hau egiten hasi

zirenetik, antolatzaileek errekarren bi aldeetako lasterkariak gonbidatzen dituzte parte hartzera deus ordaindu gabe, gehenez ere bi lasterkari herri bakoitzeko. Arrazoi horrexegatik gonbidatutako herri bateko inork ez badu izenik ematen eta gonbidatua den bertze herri batetik bi las-

terkari baino gehiago baldin badaude, azken hauek ordezkari ez duen herriaren izenean parte hartu ohi dute. Aurtenez ere, Bera, Sara, Zugarramurdi, Senpere, Lesaka, Etxalar, Urdazubi eta Elizondoko herrien izenean aunitzek parte hartu dute, batzuk eskualdekoak, baina ez denak.



LAXOA → BAZTAN-ERREKAKO XXXIII. TXAPELKETA

# Hirugarren urtez segidan Irurita Ak jantzi du txapela

9-3 irabazi zion abuztuaren 4an Arraiozen jokaturako finalean Doneztebe Ari

## TTIPI-TTAPA | IRURITA

Baztan-Errekako 33. Laxoa Txapelketaren finala jokatu zen abuztuaren 4an Arraiozen eta hirugarren urtez segidan Irurita suertatu zen garaile, 9 eta 3 irabazi baitzion Doneztebe. Aitzineko bi urteetan bezala Joseba Urtaşun, txapeldunen sakalaria izendatu zuten finaleko jokalaria onena eta Mikel Izagirreraren saria eraman zuten. Berekin batera, Guillermo Etxenike numeroa eta Jesus Etxenike eta Xabier Ripa laurdenak aritu ziren talde txapeldunak.

Azpitxapeldun izan zen Doneztebe A taldean, berriz, Pascual Bertiz sakalaria, Koldo Legarra numeroa eta Javier Bertiz eta Jokin Arraztoa laurdenak aritu ziren. Partida hasiera



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Goitiko argazkian, txapeldunak eta azpitxapeldunak, sari banaketaren ondotik. Behehian, Joseba Urtaşun Irurita sakalaria, hirugarren urtez segidan finaleko pilotaririk onena.

berdindua joan zen (1-0, 1-1, 2-1, 2-2), baina tantu borrokatuak izan arren, borts joko segidan egin zituzten iruritarrek (7-2). Doneztebe barrek hirugarren joko egin zuten, baina gero 9ra joan ziren baztandarrek, bere bederatzigarren txapela janzteko.

Alberto San Miguel oiztarra, Juan Mari Artazkoz doneztebarrak eta Miguel Maritorena eta Mikel Mindegia arraioztarrak izan ziren epaile eta Arraiozko Mariano Maritorena aritu zen

marrak zaintzen.

Hirugarren posturako norgehiagokan Oizek 9 eta 5 irabazi zion Irurita Bri. Oizekin Iker Bereau sakalaria, Lander Mendiola numeroa eta Iñaki Mendiola eta Ugutz Zelaieta laurdenak aritu ziren eta Irurita Brekin Xabier Barberena sakalaria, Igor Urtutia numeroa eta Andres Elizaintzin eta Iñaki Etxandi laurdenak.

## MARIANORI OMENALDIA

Sari banaketan, Mariano Maritorena histori-

koari oroigarri berezia eman zioten bere seme-ek eta Sotero Etxandi Arraiozko alkateak. Batetik Jose Luis Arozena eskulangileak eginiko guantea eta bertetik, Joselu Retegik egindako egurrezko eskulana. Sari banaketan izan ziren Iñigo Iturralde Baztango kirol zinegotzia, Nafarroako Pilota Federazio-ko Jon Oartzun, Pilotarien Batzarrako Joxean Arroio eta txapelketako babesle izan diren Nafarroako Kutxa eta Gas Naturaleko ordezkariak.

## LAXOA

### Gazteen laxoa txapelketa ere abian

Aurten gazteen arteko laxoa txapelketa ere antolatu dute eta dagoneko hasia da. Lau taldeari diraparte hartzen: **Arraioz** (Eki Etxandi, Jon Etxandi, Urki Etxandi, Mikel Organbide, Pello Telletxea), **Doneztebe A** (Goio Mindegia, Jon Belarra, Aimar Jabalera, Urtzi Juanena), **Doneztebe B** (Julen Larretxea, Aitor Arozena, Gorka Iribarren, Iñaki Maylin) eta **Oiz** (Ioritz Zelaieta, Aimar Saldias, Zorion Zelaieta, Jon Oartzabal). Orain arte ligako lau saio jokatu dira eta asteburu hone-tan eginen diren bertze biek, ligan sailkatutako bi lehenbiziko talde-ek irailaren 15ean finala jokatu dute Arraiozen, 11:30ean hasita.

## TXAPELDUNAK

1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OIZ
1984	OIZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OIZ
1989	DONEZTEBE
1990	OIZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ
2000	DONEZTEBE
2001	ARRAIOZ
2002	IRURITA
2003	DONEZTEBE
2004	IRURITA
2005	DONEZTEBE
2006	DONEZTEBE
2007	IRURITA
2008	DONEZTEBE
2009	ARRAIOZ
2010	IRURITA
2011	IRURITA
2012	IRURITA



**HERRI KIROLA** → ABUZTUAREN 10EAN JOKATU ZEN EUSKAL HERRIKO ARPANLARI TXAPELKETA AIAN (GIPUZKOA)

# Nerea Sorondo eta Amaia Garcia Euskal Herriko txapeldun lehen aldiz

Iaz Nafarroakoa irabazi eta Euskal Herrikoan bigarren izan ziren beratarrak

## TTIPI-TTAPA

Berako Nerea Sorondok eta Amaia Garcia irabazi zuten abuztuaren 10ean emakumezkoen Euskal Herriko arpanlari Txapelketa. Berako bikotea Nafarroako txapeldun eta Euskal Herriko azpitxapeldun izan zen iaz, baina aurtentxapel nagusia janztea lortu du. Lau bikote aritu ziren lanean Aian,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Nerea Sorondo eta Amaia Garcia lanean iaz Igantzín, Nafarroako txapeldun izan zirenean.

eta bakoitzak etzandako 45 ontzako enborrari hamar epai eman behar izan zizkion. Soron-

do eta Garcia bikain aritu ziren hasieratik bukarera. Nuñez eta Lopez lezaundarrak bigarren

izan ziren, Ferran eta Varela arabarrak hirugarren eta Sanchez eta Urriza nafarrak laugarren.

## GIZONEZKOEN

### BIGARREN MAILAKOA

Leku berean jokatu zen gizonezkoen Euskal Herriko bigarren mailako finala ere. Hiru bikote aritu ziren lehian, eta bakoitzak hamar epai eman behar izan zizkion etzanda jarrita zegoen 45 ontzako enbor bati, eta bertze bortz zutik jarritakoari.

Pikabea anaiak ziren irabazteko favoritoak, eta ez zuten hutsik egin. Iurretako Guillermo Etxenike eta Anizko Andoni Irigoien hurbil izan ziren, baina azkenean azpitxapeldun izan ziren eta Oteiza eta Berrueto, berriz, azken postuan sailkatu ziren.

**AIZKORA** → ABUZTUAREN 12AN SUNBILLAN

# Donato Larretxeak eta Otañok irabazi dute Latasa Saria

Gazteetan Rekondo eta Erasun garaile

## TTIPI-TTAPA | SUNBILLA

Donato Larretxeak eta Unai Otañok irabazi zuten abuztuaren 12an Ramon Latasaren omenez Sunbillan jokatu zen aizkora saria. Gazteen mailakoan, berriz, Jon Rekondo leitzarrek eta Ander Erasun aurtiztarrak lortu zuten txapela. 500 ikusle baino gehiago bildu ziren frontoian saioa ikusteko.

Maila nagusian, hiru bikote aritu ziren, eta bakoitzak lau lan ezberdin egin behar izan zituen. Nazabal eta Arrospide indartsu hasi ziren, eta azkeneko proba ere hiru segundo aitzinetik iritsi ziren. Iraupen proban, ordea, Otaño eta Larretxea aunitzez ere gehiago izan ziren eta alde nabarmena kendu zieten gainerakoei (39:52). Nazabal eta Arrospide bigarren izan ziren (40:58). Aitzol Atutxa eta Juanjo Lopez, berriz, hasierako probatik gelditu ziren gi-



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Ramon Latasa sarian aritu ziren aizkolariak, antolatzaileak eta udal agintariak.

belean, eta kasik 6 minutu gehiago behar izan zuten (45:40).

## GAZTEETAN REKONDO ETA ERASUN

Helduen mailaz gain, gazteena ere erakargarria zen, eta hor Jon Rekondo leitzarra eta An-

der Erasun aurtiztarrak gailendu ziren (31:24). Maila honetan bikote bakoitzak hiru proba ezberdin egin behar izan zituen. Txapeldunak hasieratik paratu ziren aitzinetik, baina ez zen alde handirik egon. Emoziorik handiena bigarren pos-

turako egon zen. Muger-tza II.ak eta Oihan Larretxeak lortu zuten postu hori (32:36), baina Otaegi eta Olano I.a ere gainean izan zituzten (32:54). Azkeneko bikoteen artean 18 segundoko tartea bertzerik ez zen izan bukaeran.

## irailak 6 - irailak 20

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58**Bizikleta**

IGANTZI | 2012.09.09

**XXII. mendi bizikleta ibilaldia Igantzin**

Hauerek ibilbide bat eta helduek bi ibilbide izanen dituzte aukeran, 20 eta 31 kilometrokoak. Haurrak 09:30ean eta helduak 10:00etan abiatuko dira.

**Ospakizunak**

LEITZA | 2012.09.09

**Talo Eguna eginen da Leitzaan zazpigarren aldiz**

Artisau azoka, talo lehiaketa, taloarekin egindako plateren erakusketa, herri kirolak, talo tailerra eta umeentzat gurdian ibilaldiak izanen dira, besteak beste.

**Dokumentala**

IRURITA | 2012.09.21

**'Gazta Zati Bat' dokumentala Iruritan ikusgai**

Nazioen Mundua herri-ekimekin Jon Maiaren gidaritzapean sortutako *Gazta Zati Bat* dokumentala Iruritan izanen da ikusgai, Gizarte Bilgunean.

bestak. Xehetasunak 36. orrialdean.

ELIZONDO

**Txokotoko bestak**

**Irailaren 7an eta 8an** auzoko bestak. Xehetasunak 40. orrialdean.

SENPERE

**Ibarrungo bestak**

**Irailaren 28tik aitzinerara** auzoko bestak. Xehetasunak 44. orrialdean.

ETXALAR

**Urritzokietako bestak**

**Irailaren 14an eta 16an** auzoko bestak. Xehetasunak 13. orrialdean.

LEGASA

**Santa Leokadia bestak**

**Irailaren 8 eta 9an** Santa Leokadiaren omenez bestak. Xehetasunak 24. orrialdean.

**Hitzaldiak**

ERRATZU

**Eskolen koordinaketa hizpide**

**Irailaren 9an** Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrieta-ko eskolen koordinaketa hitzaldia eskainiko da Erratzuko elkartearen, 19:00etan.

**Zinema**

ERRATZU

**Eskola ttikien dokumentala**

**Irailaren 16an Eskola bizia-herri bizia** Gipuzkoako eskola ttikien dokumentala ikusgai 19:00etan Erratzuko elkartearen.

GOIZUETA

**'Bertsolari' filma ikusgai**

**Irailaren 7an Bertsolari** filma ikusgai Iskibi kanpian, 22:30ean.

**Erakusketak**

URDAZUBI

**Monasterioko kalostrepean**

**Abenduaren 31 arte** ikusgai izanen da monasterioko kalostrepean *Euskal Herriko margogintzaren 50 urteak* erakusketa. Udan, egunero zabalik 11:00etatik 20:00etara.

OIEREGI

**Diana Iniestaren lanak Bertzen ikusgai**

**Urriaren 31 arte** Diana Iniestaren margo eta marrazki erakusketa Bertziko Parkean, *Principios* izenburupean. Irailaren 15era arte 10:30-13:30 eta 16:00-19:00 eta irailaren 16tik aitzinera 10:30-13:30-era eta 16:00-17:00.

**Solasaldiak**

ELIZONDO

**'Euskaraz bizi nahi dut' Iñaki Lasaren eskutik**

**Irailaren 20an Euskaraz bizi nahi dut** hitzaldia eskainiko du Iñaki Lasa Kontseiluko kideak 19:00etan Arizkunenean. Baztango Euskara Batzordeak antolatu du.

**Ospakizunak**

IRUÑEA

**Ameriketako Artzain Euskaldunen Eguna**

**Irailaren 15ean** ospatuko da *Izan zirelako, gara* izenburupean.

LEITZA

**Talo Eguna**

**Irailaren 9an** Talo Eguna 7. aldiz. Xehetasunak 34. orrialdean.

URDAZUBI

**Xareta Eguna**

**Irailaren 16an** ospatu-

ko da. Xehetasunak 42. orrialdean.

ETXALAR

**Lehenbiziko aldiz Gazte Eguna**

**Irailaren 15ean** gazteen eskutik hainbat ekitaldi. Xehetasunak 13. orrialdean.

**Bestak**

OIZ

**Herriko bestak**

**Irailaren 7tik 10era** herriko bestak. Xehetasunak 29. orrialdean.

ERATSUN

**Amabirjin bestak**

**Irailaren 6tik 9ra** Lokariko Amabirjin bestak. Xehetasunak 28. orrialdean.

SARA

**Herriko bestak**

**Irailaren 8tik 12ra** herriko bestak. Xehetasunak 45. orrialdean.

ELBETE

**Herriko bestak**

**Irailaren 13tik 17ra** Gurutze Sainduaren

## PROPOSAMENA

IRUÑEA

**Ameriketako artzainen besta**

Irailaren 15ean ospatuko da Ameriketako Artzain Euskaldunen Eguna Iruñean, *Izan zirelako gara* izenburupean. San Nicolas elizan meza, zitudadelako arma aretoan harrera eta bazkaria izanen dute. Aitzinetik, irailaren 1etik 14ra artzainen argazki erakusketa ikusgai izanen da Condestable jauregian eta Rosa Arburuak solasaldia eskainiko du.



Asier Altuna zuzendaria bertan izanen da.

IRURITA

**‘Gazta zati bat’ dokumentala ikusgai**

**Irailaren 21ean**

*Gazta zati bat* dokumentala ikusteko aukera Damaso Zabalza Bilgunean, 20:00etan, Iruritako gazteek antolatuta.

**Antzerkiak**

AMAIUR

**Txan magoaren magia ikuskizuna**

**Irailaren 21ean** Txan magoaren ikuskizuna haurrendako, 17:00etan. Amaiurko Otsondo Barride Elkarteak antolatuta.

ELIZONDO

**Kale antzerkia**

**Irailaren 22an** kale antzerkia Elizondoko plazan, eguerdian. Baztango Kultura Batzordeak antolatuta.

**Lehiaketak**

ELIZONDO

**Piriniar arrazako behien lehiaketa enkantea**

**Irailaren 21etik 23ra** Piriniar arrazako behien lehiaketa lehiaketa/enkantea. Xehetasunak 37. orrialdean.

**Mendi ateraldiak**

SUNBILLA

**Ulibeltzak mendi taldea Goizuetara**

**Irailaren 9an** Sunbilla-Goizuetara ateraldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak. Irteera 07:00etan plazan.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**



Udazkeneko lorea


**XABIER ETXEBERRIA**

Elkar, 2012

Carlosen ezkontzan ezagutuko dute elkar Mikelek eta Luciak. Baina euren artean gertatutakoa isilpean gorde beharko du Mikelek, Naroak ezer jakin ez dezan. Luciak, berriz, Marta bere ahizpari sekretu mingarri bat dauka argitzeko; gutun batean idatziz kontatuko dio bere egia osoa. Naroa ere Mikeli esatera ausartzen ez den gezur batean harapatuta dago.

Erran ezin direnei edota erratea komeni ez direnei buruzko eleberri honetako hiru istorioak ustekabean gurutzatuko dira. Eta halabeharrez edo, bizi dituzten pertsonaien sekretuak bere horretan geratuko dira, ezagutzera eman gabe. Izan ere, idazleak berak dioen bezala, guztia ezagutzea ez da beti ona; gehienetan, ez jakiteak babestu egiten gaitu. Egiak aurpegi aunitz baititu eta gezurrak ere bai. Eta batzuetan, gezurra da egiaren aurpegietako bat.

**Musika**



Ibilean

**ANJE DUHALDE**

Elkar, 2012

Bizitza osoa kantuari lotuta darama Anje Duhaldek (Arrangoitze, Lapurdi, 1950). 50 urte daramatza konposatzen, grabatzen eta, zuzenean jotzen. Bakarlarri hasi zen 70. hamarkadaren hasieran eta Errobi euskal rockaren aitzindari izandako taldean izan genuen Mixel Ducaurekin batera. Ondoren, Akelarre taldeko kantaria izan zen. 2006an, *Sorminetan* kaleratu zuen, estudioko bere azken lana. Orain, zuzeneko grabaketa bat dakarkigu. Hamar urte baino gehiago daramatza talde egonkorrekin. Oholtza gainean, Iñigo Telletxea beratarrak (baxua), Remy Gachis uztariztarra (gitarra) eta Txomin Duhalde semea (bateria) izan ditu bidaide. Eta Urbil Artolak bere lapsteel gitarrarekin hiru kantutan kolaboratu du. *Ibilean* zuzeneko Bilbo eta Ondarroako Kafe Antzokietan grabatu da. Teknikariak Maikel Garcia eta Mikel Ugarte izan dira, eta, nahasketak eta masterizazioa Berako Mik estudioan egin ditu Maikerek.

**Internet**



Twitter sare sozialaren interfazea euskaraz

**#TWITTEREUSKARAZ**

Azkenean, hemen da: Twitter euskaraz. Dagoneko badugu mikroblogging sare sozial famatuaren interfazea euskaraz jartzeko aukera. 140 karaktere baino gutxiagotan eman daitekeen albiste pozgarria euskal twitterlariontzat. Euskal twitterlariek hala eskatuta, Twitterreko arduradunek sare soziala itzultzeko bidea ireki zuten eta, pixkanaka eta guztion artean, lortu dugu euskaratzea. Gaztelaniaz edo frantsesez ez bezala, jatorrizko tweet hitza itzuli egin dute eta orain arte tweet bezala eza gutzen genituenak, txio bihurtu dira; twitteatu ekin-tza, txiokatu; eta retweeatu, bertxiotu. Twitter euskaraz jartzeko, zure kontuko ezarpenetara jo beharko duzu eta Basque – Euskara aukeratu hizkuntzen artean. Oraindik beta fasean dago; hau da, konpontzeko zenbait akats izan ditzake. Horieta-koren batekin topo eginez gero, jo Twitterren itzulpen zentrorra eta eman ezazu akatsaren berri.

**Nire aukera**



**Josu BALEZTENA**  
Taxista eratsundarra

**«Neskalaguna Paraguaiaren dago eta Skipe egunero erabiltzen dut»**

Pilotari moduan, eskuz eta erremontez ezagun egin zen Baleztena, baina orain taxia gidatzen du Iruen: «Orduan pilota gogorra iruditzen zitzaidan, baina orain ohartzen naiz zer bizimodu ona zen!» aipatu digu. Izan ere, sei egun segidan lan eta bi jai hartzen ditu eta hortaz, ez du denbora libre askorik izaten. Halakoe-tan, «izerdi pixka bat bota eta lagunekin palaz aritzea» gustatzen zaio, beti ere oraindik mindua duen eskuin eskua bortxatu gabe. Mendira ere joaten da noizbehinka, «ez dut kostunberrik, baina lagunekin berriki Orhira joan nintzen». Opor luzeagoak dituenean «lasaitasuna» bilatzen du, «eguzkia eta hondartza» gogoko ditu, baina «abioia ez dut inoiz hartu eta trenaren lehenbiziko aldiz iaz, Madrilerak eskumuturretik operatzera joateko». Baleztenaren ustez, «urrutira joan gabe nahiko altxor badaukagu inguruan». Neskalaguna sei hilabeterako Paraguai duenez, «orain Internauta egina nago eta Skipe erabiltzen dut egunero».

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**ORONOZ-MUGAIRI.** 2 bizitza salgai, moblez-tua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta baje-arekin. Prezio onean. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabek salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra- rekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**SUNBILLA.** Pisu berria salgai, 2 logela, egongela, tximinia itxiarekin, sukaldea hornitua, balkoia eta terraza, trastelekua goiko solairuan, marra garajea, kalefakzio zentrala, igogailua, kalitatezko eraikin berria eta inguru oso lasaian. 155.000 euro. Alokatzeko aukera ere, hilean 500 eurotan. ☎628 473539.

**ZUGARRAMURDI.**

Etxebizitza berria salgai. 160 m<sup>2</sup>ko etxea, sukaldea egongelarekin, hiru gela eta bi bainugela, garajea bi kotxerentzat. ☎619 461423-615 744433.



**DONEZTEBE.** 2 logela-bizitza berritua salgai.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

15m<sup>2</sup>ko trastelekuarekin. 112.000 euro. Ez gelditu ikusi gabe, ez duzu deus galtzen! ☎630 160353.

**LEITZA.** Pisua salgai,



Landa-Goikoa 16 (lehen-go Renault gainean). Hirugarrena. Igogailua badi, bi komun, barne patioa estalia (arropa lehortzeko)... Urte batzuk badi pisuak baina ongi dago. Zenbatean?: 155.000 € (26 milioi azpitik). Interesatua bazaud, mintzatu garbi eta nik uste konponduko ginatekeela (espekulatzeko: ez). ☎619 530386 / antton.leitza@gmail.com.

**UZTEGI** etxea salgai 250.000 eurotan edo errentan hartzeko, erosteko aukerarekin. Betelutik 2 kilometrora eta Donostiatik 30 minutura. Etxeak lau solairu ditu, 90 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Logela nagusiak 90m<sup>2</sup> ditu, 16 m<sup>2</sup>ko bainugela jacuzzi eta tximiniarekin. Beste hiru logela eta egongela tximiniarekin. 1.000 litroko gasolio depositua, erradiadoreak. Teilatuaren egoera ona. 15 minutura 5.000 m<sup>2</sup>ko herri-lurra, eta etxe ondoan 400 m<sup>2</sup>ko lur eremua errentan hartzeko aukera. ☎657 709722.

**ETXALAR.** Promotorearengandik zuzenean estrenatu gabeko etxebizitza salgai. 2 solairuko etxebizitza, garajea eta kanpora ematen duen lorategiarekin. Prezio berriak. ☎629 443405.

**LESAKA.** 66m<sup>2</sup>ko pisua salgai herri erdian. 2 tras-

teleku, garajea eta igogailuarekin. Berri-berria. Prezio negoziagarria. ☎657 708866.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**LESAKA.** Logelak errentan emateko irailetik ekainera, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. ☎948 637862/678 855056.

**IRUÑEA.** San Fermin kalean, Zaragoza etorbidearekin eskina eginez, pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, trastelekua, igogailua, berogailua eta argitsua. ☎680 638994.

**IRUÑEA.** San Juanen pisua errentan emateko. 4 logela, egongela, sukaldea, dena berritua. 2 komun, trastelekua eta igogailua. Berokuntza zentrala eta argitsua. 750 euro negoziagarriak. ☎948 510664.

**DONEZTEBE.** Amezti zeharkarrikan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berogailu zentrala eta eguzkitsua. Prezio negoziagarria. ☎669 563188.

**IRUÑEA.** Mendebaldea auzoan pisua errentan emateko, hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela, terraza eta garajearekin. ☎628 581031/646 674406.

**IRUÑEA.** Arrosadian 2 logela errentan emateko. UPNAtik 5 minutura, Go-roabe kalean. ☎620 209663.

**IRUÑEA.** Donibane auzoan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, trasteleku ttikia, igogailua eta berogailu zentrala. Moblezatua. 600 euro. ☎667 208082.

**BERA.** Eztegarra pasealekuan pisua errentan emateko. Moblezatua eta berogailuarekin. ☎626 774582.

**ITUREN.** Etxebizitza errentan emateko, irailetik uztaileira. ☎661 006327.

**ETXEBIZITZAK**  
konpartitzeko

**Lesakako** bi ikasle 3. lagun baten bila gabiltza pisu bat konpartitzeko Iruñean. UPNA ondo-ondoan (2-3 minutu). Prezio onean. ☎659 523481

**IRUÑEA.** Ikasleen pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎664 357554.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(abuztuaren 17tik 24ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 34,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,425 € kilo. (+0,022)

**Zerramak:**  
0,620€ Kg/bizirik. (+0,020)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,19 (=)

**1.koa** 3,89 (=)

**2.koa** 3,68 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,25 (=)

**1.koa** 3,97 (=)

**2.koa** 3,90 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 120,00 (=)  
idixkoak 140,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,94/3,04  
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 8,40/8,50  
8-10 kilokoak: 6,50/6,90

**GARAJEAK-LOKALAK**  
Errentan eman

**LESKA.** Garaje itxia errentan ematen da plazan. ☎675 714360.

**LANA**  
eskariak

**Informatikan ingeniaria** den mutil gazte bat lan bila dabil. Hizkuntzetan abila: euskara eta gaztelania ama-hizkuntzak, ingelesa erdi mailakoa eta frantsesa eta alemana oinarizko maila. ☎677 241571.

**Neska euskaldun batek** haurrak zainduko lituzke Leitzañ irailetik aurrera. ☎667 518404.

**Neska euskaldun batek** haurrak zainduko lituzke Leitzañ irailetik aurrera. ☎695 716894.

**Baztango neska euskaldunak** adineko jendea zaintzen lan eginen luke. Esperientziaduna. Interna moduan lan egiteko prest. ☎608 070853.

**Emakume euskalduna** lanean ariko litzateke. 20 urteko esperientzia gizonetzko nahiz emakumezkoak zaintzen, ostalaritzan, etxeak garbitzen... ☎678 074973.

**LANA**  
eskaintzak

**LESAKA**ko belar-dendan langile bat behar da urritik aitzinera. ☎948 637373/orekanutrizioa@hotmail.com.

**BERA.** Neska euskalduna behar da asteburu eta eskolako opor egunetan haurrak zaintzeko. ☎629 694443.

**ETXALAR.** Herriko Ostatuan lagun bat behar da barran lanean aritzeko, larunbatetan 16:00-etatik 20:00-etara eta igandetan 18:00-etatik 22:00-etara. ☎948 635450.

**ANIMALIAK**  
salerosketak

**Border Collie** zakurkumeak salgai. Ama eta ai-

ta hagitx onak. Biak lanean erakutsi daitezke. ☎678 896909.



**6 txerrikume** salgai, 3 eme eta 3 aketzetarako. Txerrikumeak uztailaren 9an jaiotakoak dira. Nahizanez gero, goizez deitu. ☎695 716894.



**LESKA.** Bi euskal asto ernari salgai. Prezio negoziagarria. ☎690 181644.

**ANIMALIAK**  
oparitzeko

**Hiru katukume** oparitzeko. ☎948 580231.

**Zakurkumeak** oparitzeko. Euskal ardi zakurra eta Kaukasoko mastinaren arteko nahasketa dira. ☎633 356997.

**MOTORRAK**  
salgai

**Nissan Almera Tino 1.8** monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005ekoa. 65.000 km. Ongi zaindua. ☎628 572273.

**Yamaha XT 350 motorra** salgai, 1988koa, oso gutxi erabilia eta egoera onean. Dokumentazioa ordenean. Prezio interesgarrian. ☎619 980909.



**DENETARIK**  
salerosketak

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 / 699 461394.

**ORONOZ.** Egurra xehetua salgai. Paga eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



**Sofa chaise longue motorrarekin** estrenatu gabea, salgai. ☎680 347407.




**LESKA.** Trikixia eta zeharkako xirula salgai. ☎675 714360.

**Belarra mozteko diskoa** erosi nahi da. ☎679 092896.

**Bigarren eskuko musika-tresnak** salgai: akordeoiaren teklak, gitarrak, teklatu elektrikoak. Prezio onean eta ederki funtzionatzen dute. ☎630 603130.

Ehizerako **grifon azul de gascuna** arrazako **zakurkumeak** salgai. ☎639 518780.

**ARIZKUN.** Egurrezko armairua salgai, egoera arras onean. Neurriak: 3,80 x 2,20. ☎699 375558.



**urtebetetzeak**



**ENENKO IRIARTE ITURZAETA** arizkundararak urteak beteko ditu irailaren 14an. Zorionak etxeko guztien partetik eta muxu haundi-haundi bat!



**ARITZ LARBURU ELIZALDE** etxalartarrak irailaren 16an urtea beteko du. Aunitz urtez familia guztia partetik eta bereziki Anderren partetik!

**TTIPI-TTAPAK kazetaria behar du**  
ordezkapenatarako

**Eskatzen da:**

- Kazetaritza edo euskal filologia ikasketak izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila

**Kontuan hartuko da:**

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- QuarkXPress programa erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

**Bidali curriculuma** [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) helbidera

**BERAUTO tailerra**  
%5eko DESKONTUA errekambioetan

hemen agertu nahi duzu?

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

**IRAGARKIA**  
2 aldizkariak 8 euro

abuztuak 31 baino lehen bete behar du Bortxinatako Hiri Hondakinen Mankomunitateak

948 63 52 34

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.tipi.net bitartez



Lakuntzako **MADDI SAN SEBASTIAN** ARRAIZAK 8 urte bete ditu abuztuaren 13an. Aunitz urtez! Aurten bizkotxo apaindu ere egin duzu?



**UNAI ARANGUREN** MUTUBERRIA lesakarrak 3 urte bete ditu abuztuaren 1ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**ENARA SANTESTEBAN** MUTUBERRIA zubietarrak abuztuaren 12an 6 urte bete ditu. Zorionak!



**IRATI ZABALA** OTAEGIK urtea bete du abuztuaren 25ean. Zorionak eta muxu asko gure neska polittari, familia guztiaren partetik.



**AIORA ALZUIET** OIARZABAL urdazubiarrak 3 urte bete ditu abuztuaren 2an. Zorion berezi bat Nahia, Izaro eta familia guztiaren partetik.



Donamariako **EGUZKI** eta **ALAITZ** IRIGOIEN **JUANENAK** urteak bete dituzte abuztuaren 9 eta 27an. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu haundi bana biei.



Iturengo **NAIARA** eta Urrozko **KARLOS** abuztuaren 11n ezkondu dira. Zorionak bikote!!! Oso ongi pasatu genuen elkarrekin. Muxu haundi bat zuen lagun Amaia, Ainhoa eta Oihanaren partetik.



Gazteluko **IORITZ GONZALEZ GAMIOK** abuztuaren 28an 6 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



Aresoko **IROITZ AGIRREZABAL** NIETOK urteak beteko ditu irailaren 6an. Zorionak igerilari! Eguna ospatzeko ea aparigoxoa prestatzen diguzun! Bide Ondoko familia.



Berako **IZARO GOIENETXE** MARTIALARREK abuztuaren 27an 2 urte bete ditu. Binaka musubukuak gure panpoxari anaien eta gurasoen partetik.



Lesakako **LEXURI AROTZENA** PORTU lesakarrak 6 urte beteko ditu irailaren 15ean. Aunitz urtez eta 6 muxu haundi ilargiraino eta buelta maite zaituzten atxa, ama eta Orti, Elorri eta Aiert anaien partetik.



Etxalarko **ENAITZ AGINAGALDE** IPARRAGIRREK urtea bete du abuztuaren 18an. Muxu haundi bat atxa, ama, Aimar, Oier eta amatxiren partetik.




Zorionak Doneztebeko **OIER BELARRA** MARIEZKURRENARI abuztuaren 27an 7 urte bete dituelako, Ezkurra eta Doneztebeko familiaren partetik, prestatu berendu goxo-goxoa!



Igantziako **KAIET PORTU** TELLETXEA gure morroxkoak urtea bete du abuztuaren 12an. Zorionak Lesakako familiaren partetik eta bereziki Eneritz eta Xiker zure lehengusuen partetik. Heldu den urterako tanborra prestatu, e!



**UNAI ETXEBERRRIA** GOIAK irailaren 16an 6 urte beteko ditu. Zorionak Amaia, Ane, Kattalin, Oihan eta amatxiren partetik.



Zorionak Beintzako **LUCIA TABERNARI** abuztuaren 3an urteak bete dituelako. Muxu potolo bat Donamariako familiaren partetik.



Zorionak Beintzako **ASIER ETXEBERRIARI** abuztuaren 6an urteak bete dituelako. Muxu potolo bat Beintzako familiaren partetik.



Zorionak Beintzako **AINARA ETXEBERRIARI** abuztuaren 5ean 3 urte bete dituelako. Zorionak attatto, amatto eta lbairren partetik. Muxu potolo bat Beintza eta Urrozko familiaren partetik.



Doneztebeko **URTZI MENDIBURU** ERASUNEK irailaren 5ean 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta bereziki Iratiren partetik.



Doneztebeko **URTZI MENDIBURU** eta Labaiengo **AITZIBER** ERASUNEK urteak beteko dituzte irailaren 5ean eta 6an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.




Zorionak **EDURNE SANCHEZI** irailaren 5ean 5 urte beteko dituelako. Zorionak eta muxu bat Sunbilla eta Irungo familiaren partetik, eta bereziki Oihanen partetik.



**ELAIK** irailaren 12an 2 urte beteko ditu. Aunitz urtez gure printzesari eta mila muxu pottolo Kaxkarra guztien partetik.



Sunbillako osaba **XANTUS IRIARTE** IBARRAK urteak beteko ditu irailaren 11n. Aunitz urtez familiaren partetik baina bereziki bere iloba tikiakiak diren Garaine eta Iraideren partetik. Ongi ongi pasa eguna osaba. Muxuak.



Zorionak **ALFRE** eta **SARARI** irailaren 15ean ezkonduko direlako. Zoriontsuak izan!



Eskerrik asko bi 'indomable' hauek 'ex-indomable' bihurtzeagatik! Zorionak parejal!




Gazteluko **JOSEBA TELLETXEA** SARRATEAK 8 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zorionak! Zure anaia Mikel eta familia guztiaren partetik muxu haundi bat.



Berako **ALAIN ZELAIETA** BERASATEGIK 6 urte beteko ditu irailaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko mendizaleari familia guztiaren partetik.



Zorionak **KEMEN ANSALARBURUA** gure korrikalariari, irailaren 12an 7 urte beteko dituelako. Ongi pasa zure egunean eta muxu bat familiaren partetik.



Zorionak zuri, zorionak **AINERE...!** Ongi pasa zure bigarren urtebetetzean! Tarta haundi haundia prestatu txokolatearekin, irailaren 10ean denen artean jateko. Muxu potolo bat familia guztiaren partetik!



Leitzako **ARKAITZ LOIARTE** OLANOK urteak bete ditu abuztuaren 29an. Zorionak artista; aitaxo, amatxo, Ugaitz eta familiaren partetik. Muxu haundi-haundi bat!



Donamariako **OIHAN ELORZA** REKARTEK 5 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zorionak trasto!




Zorionak Donamariako **TIA FELI** INDARI abuztuaren 28an urteak bete dituelako. Egun ona pasatu eta bizkotxo ona prestatu. Muxu bat etxeko guztien partetik.



Donamariako **ANE BERSTEIN** REKARTEK 6 urte beteko ditu irailaren 16an. Zorionak printzesa!



Zorionak **KEMEN ANSALARBURUA** gure korrikalariari, irailaren 12an 7 urte beteko dituelako. Ongi pasa zure egunean eta muxu bat familiaren partetik.



Zorionak zuri, zorionak **AINERE...!** Ongi pasa zure bigarren urtebetetzean! Tarta haundi haundia prestatu txokolatearekin, irailaren 10ean denen artean jateko. Muxu potolo bat familia guztiaren partetik!



Leitzako **ARKAITZ LOIARTE** OLANOK urteak bete ditu abuztuaren 29an. Zorionak artista; aitaxo, amatxo, Ugaitz eta familiaren partetik. Muxu haundi-haundi bat!



Donamariako **OIHAN ELORZA** REKARTEK 5 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zorionak trasto!



Zorionak Donamariako **TIA FELI** INDARI abuztuaren 28an urteak bete dituelako. Egun ona pasatu eta bizkotxo ona prestatu. Muxu bat etxeko guztien partetik.



Donamariako **ANE BERSTEIN** REKARTEK 6 urte beteko ditu irailaren 16an. Zorionak printzesa!



ttipi txartelarekin

besti rabaz ten da!

deskontuak + zozketak + aldirikara musu truk

Eskaeri zurea: 948 63 54 58 telefonoz

**571. ALEKO IRABAZLEAK**

- \* IBAIZABAL 2 LIBURU  
Azer gurea + Zergak eta Komunikazioa
- Elizko Mikioparizena | ELIZONDO
- \* LANKU LIBURUA + DVD + CD  
Elizko Liburuak eta DVD + Muzika CD
- Sokora: Almandoz Mitxelena | BERA
- \* ONINART KAMISETA  
Neli Aleman Santesteban | DONEZTEBE
- \* KATXIPORRETA DVD  
Orain berri! Puzo eta Loro
- Falotza Meeki Antzia | LEKAROX
- \* URTXINTXA ESKOLA  
PUNPALAPAN CD + DVD
- Mintxu Gorenbe | AMAJUR
- \* AQUARIUM 2 SARRERA  
M<sup>o</sup> Dolores Saz Muñiz | ELIZONDO

zozketak




**2 LIBURU**  
Elkar argitaletxea  
[www.elkarliburu.com](http://www.elkarliburu.com)



**KAMISETA BAT**  
Onddo ta punto  
[www.onddobapunto.com](http://www.onddobapunto.com)

deskontuak



**AQUARIUM**



**AQUARIUM 2 SARRERA**  
Donostiako Aquarium-a  
[www.aquariuma.com](http://www.aquariuma.com)

**Lanku**



**LANKU DVD + CD**  
Lanku argitaletxea  
[www.lanku.com](http://www.lanku.com)



**2 LIBURU: PIRRITX + PORROTX**  
Pirritx, Porrotx eta Maximotots  
[www.katalgomea.com](http://www.katalgomea.com)

**Urbintza**




**PUNPALAPAN CD + DVD**  
Urbintza eskola  
[www.urbintza.org](http://www.urbintza.org)

**ttipi-ttapa**

Anduizeta 12, 31760 ETXALAR  
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457  
info@ttipi.net | [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

# Euskara, errazago,



metodika  
euskaratik hiztunak / hiztunak hiztunetara

## errosoago

**BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA**

- Lesakako Matxinbeltzenea Tel. 948 637 796
  - Berako Ricardo Baroja eskolan Tel. 948 62 50 19
- astearte eta ortzegunez, 18:00etatik 20:00etara  
[bortziriak@ikanet.net](mailto:bortziriak@ikanet.net)



metodika  
euskaratik hiztunak / hiztunak hiztunetara

## lehenago

**MALERREKAKO EUSKALTEGIA**

- Donezteben, Rosa Seminario, 6
- Tel. 948 451 555  
[malerreka@ikanet.net](mailto:malerreka@ikanet.net)

**LEITZALDEKO EUSKALTEGIA**

- Leitzako Udaletxean
- Tel. 948 610 776  
[leitza@ikanet.net](mailto:leitza@ikanet.net)

# MATRIKULA ZAITEZ irailaren 28a baino lehen



euskara errazago egiten

**ika**

[www.ikanet.net](http://www.ikanet.net)